

URTXINTXA 4 URTE

IRAKASLEAREN GIDALIBURUA

3. ZEHAZTAPEN MAILA

1. hiruhilabetea

1

“Berriro ikastolara”

Gaia: ikastola

Iraupena: iraileko 3 asteak, oporretatik bueltan

Sarrera



Unitateko PROIEKTUA: gela berria antolatu

Lehen unitate honetan TXOKOAK antolatzeko eta dinamizatzeko unea izango da.



Proiekturako proposatutako sekuentzia didaktikoak:

1. Gure gela antolatu eta Ikastolako espazioak ezagutu.
2. *Udako oporrak* bilduma egin, gelako liburutegian gordetzeko.

Sekuentzia didaktikoaren ebaluazioa:

- Abiapuntua (nondik hasi garen eta zergatik).
- Sekuentziaren garapenean erabilitako baliabide materialek, jarduerak, lan-taldeek eta abarrek ondo funtzionatu duten, ala aldaketaren bat egin behar den hurrengo saio baterako.
- Sekuentziaren garapenean izan diren harremanei (haurren artean, hezitzailearekin...) eta jarrerari behatu.

Ipuinen hasiera eta bukaera posiblea, lehenengo hiruhilabeterako:

Ipuinetarako hasiera eta bukaera bat proposatzen ditugu, lehen hiruhilabeteen kontakizunak diren ipuinetan erabiltzeko:

Hasiera: “Behin batean...”

Bukaera: “...eta hala bazan, ez bazan, sar dadila kalabazan.”

Hasiera eta bukaera desberdinak ikasiz joango gara kurtsoan zehar; bigarren hiruhilabeterako beste proposamen bat topatuko duzue, eta, hirugarrenean, hirugarren bat.

HASIERAKOAK

1. Ttanttoren gutuna

Helburu didaktikoak: I.5, III.1 (H)-9 (H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: MOTORRAK, KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Hezitzaileak oporretan ikastolara iritsi den eskutitz baten berri emango die haurrei.

Ttanttorena da, eta aurten gure gidaria izango den Txirritx kilkerrarekin oporretan egon dela azaltzen digu.

Komeni da hezitzaileak gutuna idaztea orri batean eta gutun-azal batean sartzea (ikastolako helbidea jarrita eta, ahal bada, zigilu eta guzti), haurren aurrean irekitzerakoan benetakoa dela sinistarazteko.

KAIXO, LAGUNOK:

TTANTTO NAIZ. GOGORATZEN AL ZARETE NITAZ? BAI, EZTA? BENO, HEMEN NAUKAZUE, TXIRRITX KILKERRA NIRE LAGUN MAITEAREKIN OPOR ZORAGARRIAK PASATZEN.

HONDARTZATIK IDAZTEN ARI NATZAIZUE, BAINA ESKUTITZ HAU JASOTZEN DUZUENERAKO, JADANIK OPORRAK BUKATUTA IZANGO DIRA ETA ZUEK LAU URTEKO GELAN ARIKO ZARETE JO ETA KE JOLASEAN...

LAU URTEKO GELAN!!! UAUUU, ZEIN HANDIAK EGITEN ARI ZARETEN!!!

NI TXIKIEN GELAN GELDITUKO NAIZENEZ, ZIUR NAGO GAUZA BERRI ASKO IKASIKO DITUZUELA ZUEN LAGUN BERRIAREKIN, TXIRRITX KILKERRAREKIN, ETA HEZITZAILEAREKIN, ETA PRIMERAN IBILIKO ZARETELA.

BENO, ONDO PASA LAU URTEKO GELAN, ETA JASO EZAZUE BESARKADA BERO BAT.

AGUR.

TTANTTO

2. Txirritx kilkerraren abestia

Helburu didaktikoak: III.15 (H)-32 (MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH / B
Materiala: 4. CDa, 1. ABESTIA. *TXIRRITX* CD-ROMA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

3. ZEHAZTAPEN MAILA

Kanta berri bat aurkeztu baino lehen, komeni da letra ikastea eta kantarekin batera egingo diren keinuak zehaztea, koreografia txikia osatuz. CD-ROMa erabil dezakegu horretarako, proiektagailuarekin proiektatuz.

TXIRRITX KILKERRA

*Kir-kir! Kir-kir!
Esan nor naizen ni.
Kir-kir! Kir-kir!
Ni naiz kilker TXIRRITX.*

Zelaian bizi naiz
lore, belar azpian,
kantari udaberri guztian,
lagunak ipiniz
dantzan eta kantuan
udazkenean eta neguan.

Kir-kir!...

Zelaia utzita
nator ikastolara
laguntxo berriak egitera,
zuekin batera
poz-pozik jolastera,
jator eta alai ibiltzera.

Kir-kir!...

3. Txirritxeri kantatzeko koplak

Helburu didaktikoak: III.1 (H)-7 (H)-15 (H)
Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: Txirrina kantari LIBURUA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

AURRENEKO EGUNA

Zatoz gurekin! Goazen!
Baina, nor zara zu?
Zure izena esan
beharko diguzu.

Lai, lai, lai!
Beharko diguzu.

Zatoz gurekin! Goazen!
Eskua emadazu!
Hemen lagun pila bat
gingo dituzu.

Lai, lai, lai!
Egingo dituzu.

Zatoz gurekin! Goazen!
Baina, zer daukazu?
Irribarre ttiki bat
egingo al didazu?

Lai, lai, lai!
egingo al didazu?

Zatoz gurekin! Goazen!
Emadazu musu!
Ipuin polit-polit bat
entzun nahi al duzu?

Lai, lai, lai!
Entzun nahi al duzu?

Txirrina kantari, Antton Kazabon

PROZEDURA

Lagun berriei kantatzeko koplak batzuk ikastea proposatzen dugu. Koplak horiek zatika aurkeztuko ditugu. Koplak bakoitzak hiru zatitan banatuta daude. Esaldi horiei bertsolariek *puntua* deitzen diote.

Esaldiak banan-banan botatzeko eta errepikatzeko eskatuko diegu haurrei; aurrera jarraitzeko, denen artean abestuko dugu esaldia.

Arbelean edo paper handi batean idatz ditzakegu koplako esaldiak, behaketa-lana errazteko.

Adibidez:

Zatoz gurekin! Goazen!
Baina, nor zara zu?

Zure izena esan
beharko diguzu.

Lai, lai, lai!
Beharko diguzu.

Abestean, esaldien errima indar dezakegu, haurrak kontura daitezen esaldi guztiek berdin bukatzen dutela.

ZU bukaera daukaten beste hitz batzuk bila ditzakegu, edota hurrengo koplak aurkitu.

4. Nork bere burua aurkeztu (elkarrekin bizitzen ikasi)

Helburu didaktikoak: I.5, II.4-5-23 (MAT)-24 (MAT)-25 (MAT), III.1 (H)-4 (H)-12 (H)

Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, GIZARTERATZEKOAK, KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH / B

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Gelan zenbat haur dauden kontatzeari ekingo diogu: bat, bi... eta iazko guztiak ote gauden galdetuko diegu hurrei.

–Zenbat ginen iaz? Zenbat gara aurten? Gehiago al ginen? Gutxiago?

lazko eta aurtengo kopuruak arbelean idatz ditzakegu eta konparatu.

Aurreko urtetik hona kopurua aldatu bada, galdetu hurrei nola azalduko luketen gertatu dena marrazki batean. Ideiak hartu eta arbelean antzez ditzatela.

–Uuii! Zenbat arte dakizuen kontatzen! Bai ongi egiten duzuela! Ea noraino gogoratzen garen...

Ikastolara haur berririk etorri bazaigu, aukera ona da beste hurrek beren burua aurkez diezaieten. Horrela ez bada, Txirritx erabiliko dugu aitzakiatzat. Txirritxen irudia eraiki eta, lehenik, bere burua aurkeztuko du:

–Ni Txirritx kilkerra naiz. Zelaian bizi naiz, eta kantuan ibiltzea gustatzen zait, eta dantzan eta... Zuen lagun handia izan nahi dut, eta nire lagunak Ttantto, Xango matxinsaltoa, tximeletak, barraskiloak... dira.

Ondoren, haur guztiek, banan-banan, beren burua aurkeztuko diote Txirritxi:

– Ni (izena, eta deitura, aukeran) naiz. (herria)n bizi naiz eta (adina) urte ditut. (afizioak) egitea/jolastea... gustatzen zait eta nire lagunak (lagunaren izena) eta (lagunaren izena) dira.

– Kaixo Txirritx! Nik ere zure laguna izan nahi dut!

5. Igarkizuna

Helburu didaktikoak: II.12, III.1 (H)-2 (H)-13 (H)-15 (H)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK

Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH/B

Materiala: ---

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Hezitzaileak asmakizun bat aurkeztuko du. Aurretik, komeni da asmakizunean agertzen den hiztegia ezagutzen dutela ziurtatzea (*hegaztia* zer den, adibidez). Horretarako, hurrei laguntza eskatuko diegu: *–Ba al dakizue zer den hegaztia?*

Hegazti izan gabe
hegoak ditu,
pertsonea izan gabe
burua du,
mikrofonorik gabe
abesten du.
Zer da?
(Kilkerra)
Xabier Etxaniz

Asmakizuna entzun ondoren, esaldi bakoitzari buruzko pistak emango ditugu, pixkanaka kokatzen joateko. Adibidez: *Hegaztiak ez diren zer animalia bururatzen zaizkizue?* Euliak, zomorroak...

Amaitzeko, eman dituzten aukerak igarkizunean esaten denarekin konparatuko ditugu, eta egokiak diren edo ez erabaki.

Unitatez unitate hainbat asmakizun proposatzen ditugu. Horiek guztiak bildu, eta txartel txikietan inprima ditzakegu. Horrela, igarkizunak lantzea proposatzen dugunean, jolasaren bitartez egin daiteke jarduera.

Hezitzailea: – *Jolastuko al dugu asmakizunekin?*

Txartelak atera eta nahasten dituen bitartean, kanta edo esaera bat errepikatuko du (adibide bezala, *nahastu, nahastu* jarri dugu)

Haurrek: *Nahastu, nahastu, nahastu...*

Haurrek: *Nahikoa!*

Hezitzailea: *Zer da, zer da...?*

6. Elkarrizketa: oporrak bukatu dira

Helburu didaktikoak: I.5, III.1-12-13

Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, GIZARTERATZEKOAK, KOGNITIBOAK

Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: HORMA-IRUDIA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

Horma-irudiaren aurrean jarriko gara, eta IKUSI MAKUSI jolasa egingo dugu. Horren bidez, jarduerari hasiera emango diogu eta haurrak kokatuko dira.

JARDUERAREN PLANIFIKAZIOA

Elkarrizketa planifikatzerakoan, honako oinarrizko elementu hauek izango ditugu kontuan:

1. Haur guztien parte-hartzea lortu.
2. Elkarrizketa egiteko espazioa eroso eta komunikazio bultzatzen duena izan behar da: HARRERA TXOKOA.
3. Jarduera egiteko denbora aurreikusi.
4. Galderen tipologia ondo pentsatu.

3. ZEHAZTAPEN MAILA

- Galdera irekiak, baina haurren hizkuntza-kompetentzietara egokituak.
- Pentsarazten duten galderak.

HEZITZAILEAK BERE ESKU-HARTZEA BERRAZTERTUKO DU

Haurren interesak

- Haurren esperientzien kontaketa bultzatu duzu jardueraren bitartez?
- Haurren interesak lehenetsi dituzu?

Erronka kognitiboak

- Galderak errebotatzen dituzu edo erantzuna ematen duzu?
- Hipotesiak, arrazoibideak egiteko, iritziak emateko aukera eskaintzen duzu?
- Jardueraren amaieran, azaldutako ideiak laburbiltzen eta biribiltzen dituzu?

7. Ikasnorabideak

Helburu didaktikoak: AURKEZPENA

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: GUZTIAK

Jarduera mota: MOTIBAZIOA, Araketa

Taldekatzea: TH

Materiala: 1. FITXA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Txirritx kilkerraren azalpenak:

Kaixo lagunak:

Oporrak bukatu dira eta berriro gaude ikastolan. Ondo pasa al dituzue oporrak? Ba al zenuten ikastolara itzultzeko gogorik? Bai, ezta? Bada, begira, ikasturte hasiera honetan hainbat gairi buruz hitz egingo dugu, eta gauza asko ikasiko ditugu!

*Hasteko, **ipuin** bat entzungo duzue. Ipuin horrek kontatzen digu zer nolako gezurrak asmatzen dituen mutiko batek, ez zuelako ikastolara joan nahi. Eta ez ipuina bakarrik; kantak, olerkiak, jolasak, igarkizunak... ere egingo ditugu.*

Ondoren, gure gela berria antolatuko dugu. Denen artean arauak pentsatuko ditugu, txokoak antolatuko ditugu, gela apainduko dugu...

Bukatzeke, oporrak non pasa ditugun gogoratuko dugu, gelako lagun guztiek jakin dezaten oporretan nola ibili garen. Jakingo dugu nor joan den mendira, hondartzara, aitona-amonen herrira, igerilekura..., eta zer ikusi duten kontatuko digute. Jakingo dugu, baita ere, nola joan diren: autoz, trenez, hegazkinez... eta garraio mota bakoitzari buruz zerbait

ikasiko dugu. Denen oporrak gogoratzeko, bilduma bat osatuko dugu gure gela berrirako.

Zerbait gehiago egin edo ikasi nahi baduzue, edo, gaia bukatzean, hemen agertzen ez den zerbait gogoratu nahi baduzue, dagoeneko badakizue zer egin behar duzuen, ezta? Egin marrazki bat edo itsatsi oroigarriren bat hutsune honetan. Hezitzaileari proposatu, eta... aurrera!

Sortu elkarrizketa ireki bat atal horietako bakoitzean, eta aztertu bakoitzari buruz haurrek dituzten aurrezagutzak, bizipenak, esperientziak... hasierako ebaluazio txiki bat eginez.

8. Antzezen kolektiboa: *Koxmeren gezurrak*

Helburu didaktikoak: I.6, III.1 (H)-12 (H)-13 (H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK, AFEKTIBOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: -----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Ipuinaren antzezen kolektiboan sartu aurretik, komeni da ipuinaren sarrera bat egitea. Hau da, ipuinean azalduko diren pertsonaiak izendatu, antzezen kolektiboan dauden arauak gogoratu...

Ikusi jarduera konstanteak: Antzezen kolektiboa (ipuin dramatizatua).

KOXMEREN GEZURRAK

	Behin, bazen Koxme izeneko mutiko bat. Koxme oso ondo ibili zen udako oporretan, baina bukatu egin ziren. Egun batean, amak honela esan zion:
Ama	Koxme, oporrak bukatu dira. Bihar ikastolara joan behar duzu.
Koxme	Aizu, ama! Nik ez dut ikastolara joan nahi. Nik hondartzara joan nahi dut.
	Ez, ikastolara joan behar duzu! Orain berandu da eta zoaz azkar ohera!
	Nik telebista ikusi nahi dut!
	Ezin da! Bihar ikastolara joan behar duzu. Zoaz ohera!
	Azkenean, ohera joan zen Koxme, baina,

3. ZEHAZTAPEN MAILA

	hurrengo goizean, gezurra esan zion amari.
	Ez, ez eta ez! Ez dut ikastolara joan nahi! Badakit! Gezur bat asmatuko dut! Amatxo, amatxo!
	Zer nahi duzu, Koxme?
	Atx! Ai ene, ai ama! Hagineko mina! Ama, hagineko mina dut!
	Ai, nire maitea! Dentistarengana eramango zaitut.
	Amak sinetsi egin zion Koxmeri eta dentistarengana eraman zuen.
Dentista	Koxme, ireki ahoa! Non duzu mina?
Koxme	Hemen, hemen. Hagin honetan.
	Ba, indizio bat jarriko dizut! Txista! Eta ris-ras! Hagina kanpora!!
	Atx! Ai ene, ai ama! Hau mina! Hau mina!!
	Egun hartan, Koxme ez zen ikastolara joan. Eta, hurrengo egunean, beste gezur bat asmatu zuen Koxmek.
Koxme	Amatxo, amatxo!
Ama	Zer nahi duzu, Koxme?
	Ama, ama, ez dut ezer ikusten! Itsutu egin naiz!
	Ene, ene! Nire Koxme maitea! Anbulantziari deituko diot.
	Eta amak, oso kezkatuta, ambulantiari deitu zion.
Ama	Txirrin-txirrin! 943-312476 SOS DEIAK?
Larrialdi zerbitzuko langilea	Bai, SOS DEIAK. Esan?
	Semea itsutu egin zait! Azkar-azkar etorri, mesedez!

	Oraintxe bertan goaz! NI-NAA, NI-NAA, NI-NAA!
	Anbulantzia berehala iritsi zen. Koxme hartu eta klinikara abiatu ziren. Baina, bidean, Koxmek aitaren kamioia ikusi zuen.
Koxme	Ama, ama, begira!! Aitaren kamioia!!
Ama	Aitaren kamioia? Baina, Koxme!!!! Ikusten al duzu, ba?
	Kaka zaharra! Ahaztu egin zait itsu nengoela!
	Ahaztu! Ahaztu egin zaizula! Mutiko gezurtia! Atzo gezur bat, eta gaur beste bat. Oraintxe bertan ikastolara goaz!
	Eta egun hartan ambulanzian joan zen Koxme ikastolara.
	NI-NAA! NI-NAA! NI-NAA!
	Iritsi gara. Orain, sartu gelan eta kontatu andereñoari zer egin duzun.
	Barkatu, amatxo....!
	Azkenean, Koxmek ikastolara joan behar izan zuen. Harrezkero, Koxmek ez du gezurrik esaten eta oso pozik joaten da ikastolara.
	<i>Hala bazan ez bazan, sar dadila kalabazan...</i>

IPUINA AITZAKIA

9. Ipuinaren abestia

Helburu didaktikoak: I.6, III.14 (H)-15 (H)-30 (MUS)-32 (MUS)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota: MOTIBAZIOA, ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: LIBREA

Materiala: 4. CDa, 2. ABESTIA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

3. ZEHAZTAPEN MAILA

Abesti hau bi eratara antzez dezakegu. Batetik, taldean, abestearekin batera, gorputzarekin adierazi hagineko mina, itsutasuna, eskolarako ibilbidea... Bestetik, bi taldetan banatu eta elkarrizketa antzetzu: talde batek amaren hitzak abestuko ditu, eta besteak Koxmeren hitzak.

KOXMEREN GEZURRAK

-Ai, ai!
-Zer duzu, oi, enetxo?
-Hagineko mina!
Loak hartu ezinik nago gau guztian.
-Ez zaitetz ibili gezurretan, maitea!

-Ai, ai!
-Zer duzu, oi, enetxo?
-Itsutu egin naiz!
Ez dut ezer ikusten begien aurrean.
-Ez zaitetz ibili gezurretan, maitea!

-Ai, ai!
-Zer duzu, oi, enetxo?
-Kamioian aita!
Argia ikusten hasi naiz bat-batean.
-Ez zaitetz ibili gezurretan, maitea!

-Ai, ai!
-Zer duzu, oi, enetxo?
-Eskolara noa!
Pozik doaz lagunak eskola bidean.
-Ez zaitetz ibili gezurretan, maitea!

10. Ipuinaren elkarrizketa-jolasa atzamarrekin

Helburu didaktikoak: III.1 (H)-12 (H)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK, GIZARTERATZEKOAK

Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: binaka

Materiala: TXOTXONGILOAK (MATERIAL OSAGARRIA)

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Haurrak U forman kokatuko dira; horrela ziurtatzen da ume guztiek hezitzailea ikusten dutela eta,aldi berean, hezitzaileak denak ikusten dituela.

Eskuak bizkarrean gordetzeko eskatuko diegu; hezitzaileak ere berdin egingo du. Eskuak ateratzen ditugunean, *ttik-ttik-ttik-ttik* esango dugu, eta keinu bat egingo diegu, errepikatzeko gonbidapena eginez. Adin honetako haurrek oso gustuko dituzte mota horretako jolasak. Behin esku bat ateratakoan, esaldi labur hau esango dugu: —*Kaixo, Ttantto naiz*. Gauza bera egin behar dugu beste eskuarekin ere: *ttik-ttik-ttik-ttik*, eta bigarren eskua atera. Esku horrek ere bere esaldia izango du, eta beste izen bat: —*Kaixo, Mikel naiz*. Errepikatzeko eskatuko diegu, betiere keinuen bidez eta begiradaren laguntzarekin. Eskuek elkarri muxu emango diote: —*Mua, mua*, eta agurtuko dira: —*Agur, Mikel*, —

Agur, Ttanttto. Jolas txiki horrekin, haurrak errepikapenaren jolasera ohituz joango dira, eta beharrezkoa izango zaien aho-hizkuntza barneratuz joango dira, modu motibagarri eta ludiko batez.

Jarraian, atzamar-jolasean egiteko bi elkarrizketa labur proposatzen ditugu, ipuin dramatizatuarekin lotura dutenak.

HEZITZAILEAREN EGINKIZUNA

Jarduera honetan, talde-antzerkian bezala, hezitzaileak oso zeregin garrantzitsua dauka. Alde batetik, dinamizatzailea da (haur guztiak jardueran sartzen saiatu behar du), eta horretarako, ondo ikasita izan behar du elkarrizketa. Baina horrez gain, haurrekin batera, sortzaile eta eraikitzaile ere izan behar du: elkarrizketa berriak sortu, bat bateko jolasak asmatu...

Elkarrizketa labur horiek edozein unetan erabil daitezke egunean zehar, ipuina labur-labur gogoratzeko, etxera joan aurretik, ipuinaren antzezpen kolektiboa hasi aurretik...

1

<i>Haur guztiak elkarrekin hezitzailearen laguntzarekin</i>	Amak sinetsi egin zion Koxmeri eta dentistarengana eraman zuen. Dentistak honela esan zion:
	Koxme, ireki ahoa! Non duzu mina?
	Hemen, hemen. Hagin honetan.
	Ba indizio bat jarriko dizut! Txista! Eta ris-ras! Hagina kanpora!!
	Atx! Ai ene, ai ama! Hau mina! Hau mina!!

2

<i>Haur guztiak elkarrekin hezitzailearen laguntzarekin</i>	Anbulantzia berehala iritsi zen. Koxme hartu eta klinikara abiatu ziren. Baina, bidean, Koxmek aitaren kamioia ikusi zuen.
	Ama, ama, begira! Aitaren kamioia!
	Aitaren kamioia? Baina, KOXME! Ikusten al duzu ba?
	Kaka zaharra! Ahaztu egin zait itsu nengoela!
	Ahaztu! Ahaztu egin zaizula! Mutiko gezurtia!

	Atzo gezur bat eta gaur beste bat. Oraintxe bertan ikastolara goaz!
--	--

11. Ipuinari buruz: elkarrizketa

Helburu didaktikoak: II.4, III.4 (H)-5 (H)-16 (H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA, Nortasuna
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, GIZARTERATZEKOAK, AFEKTIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzeta: TH
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

- *Koxmek ez zuen ikastolara joan nahi oporretan gustura zegoelako. Zuek gustura etortzen al zarete ikastolara?*
- *Ikus dezagun: oporretan egiten dituzuen gauzen artean zein dira gustukoak dituzuenak?*
- *Eta ikastolan egiten dituzuenen artean?*
- *Koxmek gaixoarena egin du, eta amatxori une txarra pasarazi dio gezurtxo bat esanez. Zer iruditzen zaizue amari egin diona?*
- *Noizbait egin al diozue zuek horrelakorik amari edo aitari? Eta besteren bati?*

12. Ikastolako bidea

Helburu didaktikoak: I.7-11-12, II.33
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, GIZARTERATZEKOAK, AFEKTIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzeta: TH
Materiala: 2. FITXA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Talde handian, lan-koadernoko fitxa aztertuko dugu. Irtenbidea bilatzeko estrategiak ere lan ditzakegu (adibidez, atzamarra bukaeran jarri eta atzera joan...).

- *Koxmek ikastolara joan nahi ez duenez, ez da saiatu ikastolako bidea zein den bilatzen, eta bide-gurutze honetan galduta dago. Lagunduko al diozu bide egokia aurkitzen?*

13. Gezurra ala egia?

Helburu didaktikoak: III.1 (H)-4(H)-12 (H)-13 (H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzeta: TH/B
Materiala: ----

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Jolas honetan hezitzaileak **esaldiak** egingo ditu eta hurrek esango dute gezurra ala egia diren. Hezitzaileak gezur bat esaten duenean (*Gero hegazkinez joango gara etxera*), hurrek leloa errepikatuko dute:

*Ez, ez eta ez,
gezurrik ez, mesedez.
Hori ez da egia,
eta isil zaitetz faborez.*

Eta egia esaten duenean:

*Bai, bai eta bai,
egia da, benetan.
Txintxo ari zara,
oraingo honetan.*

Hezitzaileak esaldiak egin ondoren, hurrei utziko die esaldiak asmatzen.

14. Gezurretan

Helburu didaktikoak: III.15 (H)-32 (MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH/B
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Aurreko jolasarekin jarraitzeko, kanta bat abestuko dugu.

GEZURRETAN

Orain hastera goaz
denok gezurretan,
arrantxoak saltoka
goiko mendietan,
arkumeak larrean
itsasoko uretan,
abereak hegan eta
txoriak kotxetan.

15. Esaera zaharra

Helburu didaktikoak: II.9, III.15 (H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA
Taldekatzea: TH/B
Materiala: ---
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Adin honetako haurrei nahiko zaila edo ezinezkoa egiten zaie esaeren esanahia besterik gabe interpretatzea. Baina entzutea egokia da, batez ere egiazko testuinguruan entzutea, horrela, pixkanaka, zentzua hartzen joango baitira.

*Gezurra esan Getarian,
etxeratu orduko atarian.*

*Gezurtia aiseago harrapatzen da
zango motza baino.*

16. Koxme gezurtiaren erantzunak

Helburu didaktikoak: III.1 (H)-4 (H)-15 (H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH/B
Materiala: ---
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Olerki bat balira bezala ikas ditzakegu honako galdera-erantzun hauek, osorik nahiz zati bat. Antzestu ere egin daiteke, bi taldetan banatuta, binaka, edo talde txikitan.

–Nola duk izena?

–**Ipurdi gizona.**

–Hi!

–**Hi ta ni, bi!**

–Inuxente!

–**Zakurraren buztana tente!**

–Gero?

–**Hotz ez dena bero!**

–Nongoa haiz?

–**Joan da bertakoa!**

17. Pertsonaiak. Memoria-jolasa

Helburu didaktikoak: I.12, II.4-33 (MAT)-5, III.8 (H)-9 (H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH/B
Materiala: PERTSONAIEN TXARTELAK (MATERIAL OSAGARRIA)
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Lehen unitate honetan bi pertsonaia aurkeztuko ditugu jolasteko: Koxme eta ama. Hurrengo gaietan pertsonaia bakarra izango da. Memoria-jolasa pertsonaien irudiekin eta baita izenekin ere jolas dezakete.

Halere, iazko pertsonaiak edukitzea komenigarria iruditzen zaigu jolasa aberasten joateko. Edozein arrazoirengatik iazko pertsonaien txartel originalak edukitzea ezinezkoa izango balitzaizue, fotokopiatu ondoren margotu eta txukun forratzeko aholkua luzatzen dizuegu.

Iaz bezala, jolas dezatela pertsonaien txartelek eta erlazioa ditzatela irudiak eta izen idatziak.

18. Pertsonaien horma-irudia

Helburu didaktikoak: I.11, III.8 (H)-9 (H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, ARAKETA
Taldekatzea: TH/B
Materiala: PERTSONAIEN MARRAZKIAK (MATERIAL OSAGARRIA)
Jarduera egiteko espazioa: ADIERAZPEN TXOKOA

PROZEDURA

Oraindik gela nahiko triste daukagunez, bada garaia zerbaitekin apaintzen hasteko.

Koxmeren eta amaren irudiekin (gorputz osokoak izatea hobe) horma-irudi handi bat egingo dugu, eta irudien azpian izena jarriko dugu letra handiz. Lehen horma-irudi hau tenperaz margotzea proposatzen dugu, eta talde osoak parte hartu dezala.

Gidaren amaierako marrazkiak erabil daitezke horma-irudiak egiteko, proiektore batekin handituz eta kopiatuz.

Gelako horman kortxo edo kartulina bat jarriko dugu, **Gure pertsonaiak** errotulua daukana. Bertan itsatsiko ditugu pertsonaien txartelak, beren izena azpian dutela eta plastifikaturik, hurrek manipula ditzaten. Berehala hartuko dute bertara hurbiltzeko joera.

Beste aukera bat da ipuinetako pertsonaien bilduma egitea. Gidaliburuaren amaieran daude ipuinetako pertsonaien irudiak, zuri-beltzean. Hurrek margotuko dituzte, eta bilduma bat osatuko dute, egokien deritzozuen formatuan; azalean, izenburu gisa, **Gure pertsonaiak**. Haur bakoitzak etxera

3. ZEHAZTAPEN MAILA

eramango du bere bilduma; beste bilduma bat gelan utz dezakegu, datorren ikasturterako ere, gelako liburutegia hornitzeko.

Ipuinetako pertsonaiekin egin dugun bezala, gai bakoitzeko hiztegi-txartelekin ere bilduma bat egin dezakegu: **Gure hiztegia**. Gaiak dirauen bitartean, hiztegi-txartelak haurren eskura jar ditzakegu, belkroz itsatsita, edo kaxa batean, fitxategi modura.

19. Ipuinaren hasierak eta bukaerak aztertzen

Helburu didaktikoak: III.5 (H)-6 (H)-7 (H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA
Taldekatzea: TH/B
Materiala: -----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Ipuinarekin jarraituz, denborazko baldintzen azterketa txiki bat egingo dugu. Horretarako, *Koxmeren gezurrak* ipuinaren hasiera eta bukaera irakurri eta aztertuko ditugu. Ondoren, haurrei galdetuko diegu zer beste modutan hasi eta bukatuko luketen ipuina. Baten batek beste formula bat proposatuko balu, harekin ipuina nola geratuko litzatekeen ikusiko genuke. Amaitzeko, beste ipuin batzuekin alderatuko dugu, formula desberdinak ikusiz:

HASIERAK

Behin batean...
Orain urte asko...
Munduan asko bezala...
Gauza guztiek hizketan zekiten denboran gertatu omen zen...

BUKAERAK

... eta hala bazan ez bazan, sar dadila kalabazan.
... egia bada, sakelan sar.
Haiek ondo bizi izan baziren, gu ondo bizi izan gaitezen.
Aditzeko belarririk duenak aditu eta ikas dezala.

20. Ipuinak asmatzen

Helburu didaktikoak: III.11 (H)-12 (H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: TH/Tt
Materiala: -----
Jarduera egiteko espazioa: LIBURUTEGI TXOKOA

PROZEDURA

Koxmeren eta amaren pertsonaiak hartuta, eta landu dugun ipuinaren hasiera eta bukaera erabiliz, ipuin laburrak asmatuko ditugu taldean. Hezitzaileak haurren ideiak hartu eta egokitu beharko ditu. Hona hemen adibide batzuk:

Behin batean, herri txiki batean, Koxme izeneko haur bat bizi zen bere amarekin. Oso txintxo zenez, bere urtebetetzean amak opari pila erosi zizkion. Eta hala bazan ez bazan, sar dadila kalabazan.

Behin batean, etxe polit batean bizi zen Koxme. Denek pentsatzen zuten pozik bizi zela, baina ez zen horrela! Triste bizi zen bere ama kanpoan zelako, bidaia batean, eta bakarrik zegoelako. Egun batean, itzuli egin zen ama, eta Koxme poz-pozik jarri zen. Eta hala bazan ez bazan, sar dadila kalabazan.

21. Olerkia

Helburu didaktikoak: I.5, III.15 (H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: TH/Tt
Materiala: -----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

- *Koxmek amatxori esan dizkion gezurren artean, bat, hagineko mina zuela zen. Orduan, amak dentistarengana eraman zuen, zist-zast! hortz eta hagin pila kendu zizkion, eta aitona zahar bat bezala gelditu zen, hortzik gabe.*
- *Baina, lasai, berriro berriak haziko zaizkio eta!*
- *Zuei ere, handiagoak egiten zaretenean, orain dituzuen hortzak erori eta berriak aterako zaizkizue.*
- *Hori gertatzen zaizuenerako, Bizkaian entzuten den olerki hau ikas dezakezue.*

*Saguzarra
eutsi hagin zaharra,
ekarten ez badozu berria
saguzarra buru handia.*

(Juan Manuel Etxebarria)

22. Moztu, ordenatu eta itsatsi

Helburu didaktikoak: I.15, II.6-7-26(MAT), III.3 (H)-6(H)-8 (H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH/B
Materiala: 3a eta 3b FITXAK
Jarduera egiteko espazioa: ADIERAZPEN TXOKOA

3. ZEHAZTAPEN MAILA

PROZEDURA

Hasieran, gero, bukaeran, ondoren... denborazko lokailuak erabiliz, denon artean hiru bineta hauetan gertatzen dena kontatuko dugu, ordena logiko batean. Ipuinean gertatutakoari kasu egiten badiogu, erantzuna bakarra da, baina, bizitza errealean, beste ordena bat izan daiteke. Eztabaidatu haurrekin eta adostu ordena bat guztion artean.

Itsasteko fitxako laukietan 1. , 2. eta 3. zenbakiak agertzen direnez, fitxa egiten hasi aurretik, zenbaki ordinalak landuko ditugu: lehenengoa, bigarrena eta hirugarrena.

Egoera horrek aukera ematen digu dentistari buruz hitz egiteko: zergatik joaten garen, zertan laguntzen digun, nola uxatu beldurrak... Prebentzio mailan ere, hortz-haginak egunero ongi garbitzearen garrantzia aipatuko dugu, zer den txantxarra, nola eta zergatik sortzen den...

23. Itsuen jolasa

Helburu didaktikoak: I.5-7-12-14, II.5, III.16 (H)

Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA

Gaitasun motak: MOTORRAK, AFEKTIBOAK, GIZARTERATZEKOAK

Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: ----

Jarduera egiteko espazioa: gelan zehar

- *Gure Koxme gezurtiak itsuarena ere egin du ikastolara ez joateko.*
- *Ba al dakizue zer gertatzen zaien itsuei?*
- *Hori da, ez dutela ezer ikusten.*
- *Probatuko al dugu zer sentitzen den ezer ikusi gabe, gelan zehar batetik bestera ibiltzean?*

PROZEDURA

Jolas honetan bikoteka jolastuko dugu. Haur bati begiak estaliko dizkiogu eta bere bikotekideak gelan zehar gidatu beharko du, kontu handiz, inolako kolperik har ez dezan.

Ondoren, txandakatuko gara; laguntzaileak itsuarena egingo du eta itsuarena egin duenak laguna gidatuko du.

Jolasa egin ondoren, **elkarrizketa** bat proposa daiteke:

- Nola sentitu diren azaldu.
- Itsuren bat ezagutzen badute, kontatu haren berri.
- Ezintasun fisiko nahiz psikikoak dituztenekiko izan behar dugun jarreraz hitz egin.

24. Jolas-kanta: *Oilo zahar*

Helburu didaktikoak: I.7-12-3, II.5, III.15 (H)-32 (MUS)
Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: MOTORRAK, GIZARTERATZEKOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: 4. CDa, 6. ABESTIA
Jarduera egiteko espazioa: GELAN ZEHAR

PROZEDURA

Haur guztiak biribil handi batean jarriko dira, eta erdian gelditzen den haurrari (*oilo zahar*) begiak estaliko dizkiogu. Abestiarekin batera, erdiko haurrak biribilean dagoen lagun bat aukeratuko du eta, abestia bukatzean, hura ukituz nor den asmatu beharko du. Ez badu asmatzen, berak jarraituko du *oilo zahar* izaten.

OILO ZAHAR

Oilo zahar, oilo zahar,
saltoka eta jiraka.
Oilo zahar, oilo zahar,
harrapa nazazu azkar

Zapi bat begietan jarriz,
itsuak bezala ibiliz,
haur guztiak zu inguratzen.
Ezetz asmatu hori zein den!

Martin Irizar/Josi Oiarbide

25. Jolas-kanta: *Begira, begira nago*

Helburu didaktikoak: I.1-8-9-10-2-13, II.5-33(MAT), III.15(H)-30(MUS)-32(MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: 4. CDa, 7. ABESTIA
Jarduera egiteko espazioa: GELAN ZEHAR

PROZEDURA

Koxme bezala, gu ere itsuarena egiten jardun dugu jolas batzuetan, baina, orain, *Begira, begira* jolasa egingo dugu.

Lauzpabost uztai jarriko ditugu lurrian biribil handi bat eginez, eta uztai bakoitzaren kanpoaldean haur bat jarriko da kanta agintzen duena egiten. Kanta bukatzean, beste haur talde bat hasiko da jolasean; horrela, gelako haur guztiak jolastu arte.

Talde txikian ari direnez, haur bakoitzaren orekaren eta mugimenduaren kontrolari beha diezaiokegu (bi hankaz salto, hankamotzetan...).

BEGIRA, BEGIRA NAGO

3. ZEHAZTAPEN MAILA

Begira, begira, begira nago.
Begira, begira, begira,
uztai barrura labiru-labiru-labirula.

Bi hankaz barrura!
Jira, jira, jira, bira!
Bi hankaz kanpora!
Jira, jira, biraka!
Hankamotzetan barrura!
Jira, jira, jira, bira!
Hankamotzetan kanpora!
Jira, jira, biratan.

26. Haurren ipuin-kontaketa

Helburu didaktikoak: III.1 (H)-12 (H)-13 (H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: IPUINAREN LAMINAK
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

Haurren ipuin-kontaketa egiteko, antzezpen kolektiboan erabiltzen den testua eta espazioa erabiltzea proposatzen dugu (ipuin dramatizatua hiru aldiz egin ondoren).

PROZEDURA

- Haurrak hezitzailearen aurrean kokatu.
- Isiltasuna lortu.
- Haurren arreta erakarri.
- Ipuineko pertsonaiak eta nondik norakoak gogoratu.

Ipuinaren laminak lehenengo aldiz erakusten zaizkienean, jakin-min handia sortzen da haurrengan; hori dela eta, haiekin adostu beharko dira jardueraren "arauak".

Lehenengo lamina erakustean, tarte txiki bat utzi, haurrek begira dezaten. Hezitzaileak esango die ipuina kontatzeko laguntza behar duela: *Gogoratzen al duzue ipuina?, Lagunduko didazue ipuina kontatzen?*

Hezitzaileak narratzailearen zeregina zein den azalduko du, eta haurrek parte hartzen badute eta narratzailearena egiten badute, hobe.

Pertsonaien arteko elkarrizketak agertzen direnean, aurrea hartzen utziko diegu haurrei; gogoratu haur guztiek parte hartzea lortu nahi dugula. Ez da nahikoa bakar batzuen parte-hartzea, denei eman behar diegu parte hartzeko denbora. Nahiz eta haurren esaldiak hitzez hitzekoak ez izan, onartuko ditugu, osatu, eta ipuinean txertatuko ditugu.

HEZITZAILEAREN EGINKIZUNA

Laminekin haurren ipuin-kontaketa egitean, komeni da eskuarekin adieraztea zein pertsonaia ari den hizketan. Horrek kontaketa hariari jarraitzen lagunduko die.

- Giro goxoa sortu.
- Denen parte-hartzea bultzatu.
- Moderatzailearen zeregina egin (arauak betetzeko).
- Ipuina kontatzean, atzean gelditzen direnei denbora utzi.
- Ipuina kontatzeko, antzezpen kolektiboan ikasitako esaldiak eta ipuinen laminak erabil ditzatela eskatu.
- Arreta mantentzeko estrategiak erabili: tonu-aldaketak, haur bati zuzentzaile-lana egin dezala eskatu...

27. Sekuentziak jolasean

Helburu didaktikoak: II.14, III.2 (H)-3 (H)-5 (H)-12 (H)-26 (MAT)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK

Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: IPUINAREN LAMINAK

Jarduera egiteko espazioa: GELAN ZEHAR

PROZEDURA

Ipuinaren izenburua kontuan izanik, gertatuko denaren hipotesiak egin. Ipuinaren zenbait gertakizunen kausa-ondorioak aztertu. Sekuentziak desordenaturik eman eta ipuina desordenaturik kontatu.

Sekuentziak desordenaturik eman eta umeek ordenatu eta, ondoren, kontatu. Sekuentzia bat eman eta ipuinaren zati hori bakarrik kontatu. Sekuentzia bat edo bi desagerrarazi eta zein diren asmatu. Sekuentzia horiek gabe ipuina nola kontatu edo alda daitekeen galdetu.

Laminak ordenatzean, zenbaki ordinalak landuko ditugu: lehenengoa, bigarrena, hirugarrena, laugarrena...

Orain, laminen eta haurren karpeta dugun ipuinaren arteko konparazioa egingo dugu:

- *Zertan dira berdinak?*
- *Zertan dira desberdinak?*

Desberdintasunen artean, iazko lanari jarraituz, ipuin baten egituraren azterketa txiki bat egingo dugu, hainbat elementu nabarmenduz eta horiek behatzeko ohitura sortuz: izenburua, egilea/moldatzailea, marrazkilaria, lege-gordailuak... Ikasturtearen hasieran gaudela aprobeztatuz, gela antolatu beharko dugu. Antolaketa behar diren hainbat punturi buruzko zerrenda bat luzatzen dugu proposamen gisa.



Gure gela antolatzen

Mota honetako jarduerak kurtsoen arteko koordinazioa eskatzen dute, urtero gauza bera ez egiteko, bestela jardueraren funtzionalitatea, motibazioa eta zentzua galdu egiten da.

HASIERA

28. Oporretatik bueltan

Helburu didaktikoak: II.3, II.16 (MAT)-17 (MAT)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOGNITIBOAK, KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Materiala: 4. FITXA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

Txirritxen azalpenak:

- *Benoa, haurrak: gela antolatu aurretik, eta ondorengo oporretako bilduma egin baino lehen, ea gogoratzen dituzuen... hondartzara eramaten ditugun gauzen izenak. Eta mendira eramaten ditugunak? Eta ikastolara ekartzen ditugunak, edo bertan daudenak? ...*
- *Orain, fitxa honetan hainbat gauza ikusiko dituzue. Ondo behatu, eta ezer erantzun baino lehen, pentsatu.*

Behaketa espazioaren antolamendua kontuan hartuta bideratu dezakegu, elementuak dituzten ezaugarri komunak inferituaraziz, desberdintasunak aiparaziz..

- *Zer egin beharko dugu fitxa honetan?*
- *Zergatik pentsatzen duzue hori egin behar dugula? Ados al zaudete? Nola egingo dugu?*

Utzi haurrei estrategiak proposatzen eta justifikatzen, eta denonak onartu: marra batez dagokion tokira eraman, biribil batez inguratu, oporretakoak bakarrik nolabait markatu edo lotu... Denen artean aukeratutako estrategia aplikatu, edota, txandaturaz, bakoitzak berea aplikatu, eta ondo geratu ote den galdetu.

- *Orain, Txirritxek esaten diguna irakurriko dugu, eta ea asmatu dugun berak nahi zuena: "Elkarrekin erlazioa duten marrazkiak lotuko al dituzu?"*

Irudiak erlazionatzeko hainbat era egon daitezke, eta baita lotzeko ere.

29. Txokoak izendatu

Helburu didaktikoak: II.2-3, III.7-8-9-10

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK

Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA, MOTIBAZIOA

Materiala: PAPERA ETA ARKATZAK

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA, ADIERAZPEN TXOKOA

PROZEDURA

Gelako txokoak izendatzeko haurren laguntza eska dezakegu. Hiru urteko gelan txokoak bazeuzkaten, izen hura bera mantentzea da egokiena.

Haurrei izenak gogoratzea eskatuko diegu. Hezitzaileak idazkari-lana egingo du jarduera honetan. Laguntza ere eska dezake txokoen izena osatzeko eta izenak txarteletan idazteko.

Txartelak idazterakoan, haur taldean garbi gelditu behar da lanaren zergatia. Txokoen izena idazteko arrazoia informazioa ematea dela azaldu beharko da. Hori horrela izanik, izen horiek nagusien modura ere idatzita egon beharko dira. Jarduera honetan, beraz, haurren produkzioaz aparte hezitzailearen transkripzioa ere egitea proposatzen dugu.

30. Gutunen txokoa

Helburu didaktikoak: II.4, III.1 (H)-5 (H)-8 (H)-9 (H)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK

Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA, MOTIBAZIOA

Materiala: AEROFIX, KARTULINA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

Harrera-txokoan, haurrek etxetik ekarri dituzten gutunak itsasteko toki aproposa aukeratuko dugu, eta GUTUNAK jartzen duen txartela ipiniko dugu bertan. Horman zeloarekin itsasten aritu beharrean, koloretako kartulina handiak jar ditzakegu, aerofixarekin forratuta. Horrela, errazago kenduko dugu zeloa eta kartulina gehiago erantsiz txokoa handitzeko aukera izango digu.

Hezitzaileen eta gurasoen arteko idatzizko harremana bultzatzea egokia iruditzen zaigu, haurrak konturatzen joan daitezen hizkuntza idatziak ere baduela funtzionaltasuna, hau da, komunikatzeko tresna dela eta mezuak bidaltzeko balio duela. Kontuan hartu behar dugu, guraso askok, behar bada, ez dutela euskaraz jakingo, horregatik, erdarazko gutunak ere onartuko ditugu komunikazioa bideratzeko. Hezitzailea arduratuko da horien edukia euskaratzeaz haurrei.

Gurasoekin bilera egitean, beharrezkoa iruditzen zaigu haurrari etxean gertatu zaion edozer gauza gutunen bidez jakinarazi dezaten eskatzea. Dinamika hori martxan jarritz gero, egunero izango duzue berriren bat korroan irakurtzeko eta, esan beharrik ez dago, jarduera horrek haurren inguruko gai askori buruz hitz egiteko aukera emango dizuela:

3. ZEHAZTAPEN MAILA

Gaur gauean Mikelek ez du ohean pixarik egin. Atzo arratsaldean Ane oso ondo jolastu zen bere ahizpa txikiarekin. Anderrek atzo etxera ekarri zuen marrazkia oso polita zen...

Gutunen elkartrukatzea bultzatzeko, guk ere, tarteka, gelan zerbait gertatu bazaio haur bati, gutunen bidez kontatuko diegu gurasoei eta, ahal dugunean, galdera batekin bukatuko dugu, beraien erantzuna ziurtatzeko. Adibidez:

Kaixo Miren eta Patxi:

Gaur goizean Ane triste samar sartu da gelan zuekin egon nahi zuelako. Negar pixka bat egin du, baina, jolasean hasi bezain pronto, oso gustura egon da gelan. Etxetik gustura ateratzen al da ikastolara etortzeko?

Besarkada bat.

31. Albiste txokoa

Helburu didaktikoak: II.4, III.1 (H)-5 (H)-8 (H)-9 (H)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK

Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA, MOTIBAZIOA

Materiala: -----

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

Gutunen txokoaren ondoan, albisteak biltzeko beste espazio bat sortuko dugu; ALBISTEEN TXOKOA idatzita duen txartela jarriko dugu.

Hezitzailea saiaturiko da egunero egunkaria eramaten gelara. Liburutegian toki jakin bat edukiko dute egunkariak, nahi duten haurrek ikus ditzaten, edota taldean ikusteko.

Albiste batek gure arreta deitzen badu, moztu, eta Albisteen txokoan itsatsiko dugu. Jarduera honek gai askori buruz hitz egiteko aukera emango digu.

Era berean, haurrak etxetik albisteak ekartzera ere animatuko ditugu. Gurasoek horren berri izan dezaten, eskutitz bat idatziko diegu, edo guraso bileran adieraziko dugu. Hona hemen eskutitz-eredu bat:

Guraso agurgarriak:

Zuen seme-alabak handituz doaz, eta jadanik lau urteko gelan daudenez, beste gauzen artean, egunkarian agertzen diren albiste xebreak lantzea pentsatu dugu. Horrek bi helburu ditu: batetik, hizkuntza idatziaren funtzionaltasunaz ohartuz joatea, eta, bestetik, munduan gertatzen diren gauzekiko jakin-mina piztea eta gelan eztabaidatzeko aukera izatea.

Hori dela eta, zera eskatu nahi dizuet: egunkarian zerbait interesgarria ikusten duzuenean, zuen haurrekin irakurri eta, ondoren, ikastolara bidali.

Laster arte eta ondo izan. Besarkada bat

OHARRA:

Albiste horietako batek udako oporrekin loturarik balu, Txoko txurian jartzea proposa diezaiekegu haurrei.

TXOKOEN LAN DINAMIKA

32. Harrerako horma-irudia

Helburu didaktikoak: I.12, II.4-5, III.8 (H)-9 (H)-16 (H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK, GIZARTERATZEKOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: KOLORETAKO KARTULINAK
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Hasteko, harrera txokoan, errutinak lantzeko daukagun espazioaren inguruan, kartulinaz egindako etxe bat jarriko dugu, zazpi leihoekin. Leiho horiek asteko egunak irudikatuko dituzte, astelehenetik ostiralera. Leihoetan ageri den egun bakoitza kolore batekin ezberdinduta azalduko da. Larunbata eta igandea zuriz utziko ditugu. Leihotxo guztiei asteko egunen izenak jarriko dizkiegu.

IGANDEA	
OSTIRALA	LARUNBATA
ASTEAZKENA	OSTEGUNA
ASTELEHENA	ASTEARTEA

33. Txokoetako identifikazio-txartelak

Helburu didaktikoak: I.12, II.4-5, III.8 (H)-9 (H)-16 (H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK, GIZARTERATZEKOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: KOLORETAKO KARTULINAK, ARKATZAK
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Astearen koloreak errespetatuz, txartelak egingo ditugu, adibidez, 20 haurrentzat 4 txartel kolore bakoitzeko. Hurrei kolorea aukeratzen utziko diegu; modu horretan, 5 talde sortuko dira. Ume bakoitzari eskatuko diogu aukeratutako txartelean bere izena idazteko; norberaren argazkia ere itsatsi dezakegu, eta plastifikatuko ditugu. Modu horretan, txartel hori identifikazio-ikur bihurtuko da, proposatzen dugun funtzionamendurako. Azkenik, izen-txartelak Harrera-txokoaren etxetxoaren ondoan gordeko dira, kutxa batean.

34. Gelako arduradunak

Helburu didaktikoak: I.12, II.4-5, III.8 (H)-9 (H)-16 (H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK, GIZARTERATZEKOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH

3. ZEHAZTAPEN MAILA

Materiala: ----

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Haurrei galdetuko diegu nola antola dezakegun arduradunaren izendatzea, banaka, binaka...

Egunero **Gelako arduraduna(k)** izendatuko d(it)ugu errutinazko jarduerak egiteko. Gelako haurren zerrenda edukiko dugu begi-bistan, eta haur bakoitzak, arduradun izatea egokitzen zaionean, *gometxa* itsatsiko du izenaren ondoan. Horrela, gelako lagunen izenei behatzen eta ezagutzen jarraitzeaz gain, beste burutazio motak batzuk egin ditzakete: *Bihar niri tokatzen zait, Zerrendan seigarrena agertzen naiz, Hiru aldiz lo egin eta ni izango naiz arduraduna, Maddiren atzetik tokatuko zait, Ni hirugarrena naiz...*

35. Etorri garenak eta etorri ez direnak

Helburu didaktikoak: I.12, II.4-5, III.8 (H)-9 (H)-16 (H)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK, GIZARTERATZEKOAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: ----

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Aurten egin dugun asteko harrerako horma-irudiaren ondoan kokatuko dugu etorri direnen eta ez direnen etxea.

Iaz aukeratutako sistema bera erabiliz, txoko batean gelako haur guztien izenak jarriko ditugu, kartulinaz egindako txarteletan; alde batean *Etorri garenak* jarriko du, eta bestean *Etorri ez direnak*. Haur bakoitza, gelara sartu orduko, bere izena alde batetik bestera pasako du, edo kaxan sartu, buelta eman... Horrela, etorri direnen eta etorri ez direnen multzoak bereiziko ditugu.

Bere izena oraindik ezagutzen ez duen haur bat egongo balitz, bere izenaren identifikazioa erraztuko liokeen erreferentziaren bat jar diezaiokegu: izenaren ondoan bere argazia itsatsi (eta ezagutzen doan neurrian kendu), bere izena beste kolore batez idatzi...

Errutinazko ekintza horrek hainbat aldagai izan ditzake. Horietako bat *Galtzagorri adarjotzaile* pertsonaia sortzea izan daiteke. Hezitzaileak *Galtzagorri adarjotzaile* aurkeztuko die haurrei: *Galtzagorrik* gauetan gelara sartzeko eta bromak egiteko ohitura du; ez da gaiztoa, bihurri samarra baizik.

- Gelan sartzean, haurrek izen guztiak lurrean botata eta nahastuta aurkituko dituzte. Gauean galtzagorri izenekin jolasten aritu da eta lurrean sakabanatuta utzi ditu.
- Haurrek beren izena daraman txartela aurkitu behar dute, eta betiko tokian utzi. Lurrean gelditzen direnak *etorri ez direnak* multzoan jarriko ditugu.
- Izenak egoten diren tokian hezitzaileak *Galtzagorriren* gutun bat itsatsiko du. Bertan esaten du izen-txartelak lurrean edo aulkien gainean sakabanatuta utzi dituela, eta ea gai diren nork berea aurkitzeko.
- ...

36. Zenbat falta dira?

Helburu didaktikoak: I.12, II.4-5-23 (MAT)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA
Gaitasun motak: KOGNITIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH/B
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Gelan, *Etorri garenak*, *etorri ez direnak* txokoaren ondoan, *Zenbat falta dira?* kartulina jarriko dugu; bertan, batetik bederatzira arteko zenbakiak dituzten txartelak edukiko ditugu eskura, zenbakia eta zenbakiaren izen idatzia daukatenak. Egunerok, haurrek beren izena lekuz aldatu edo buelta eman ondoren, bati egokituko zaio zenbatzea zenbat ez diren etorri, eta dagokion zenbaki-txartela zintzilikatuko du.

lazko zenbaki-txartelak oso egokiak dira ekintza hau egiteko. Edozein arrazoirengatik ezin izan badituzue eskuratu, fotokopiatu eta plastifikatu.

37. Zer ari da gertatzen hemen?

Helburu didaktikoak: I.2 - II.4, II.5, III.2 (H)-12 (H)-16 (H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, PROBLEMEN EBAZPENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOGNITIBOAK, AFEKTIBOAK, GIZARTERATZEKOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH/B
Materiala: 5. FITXA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Egoera: hezitzaileak jostailuak jasotzeko agindu du. Haur batzuk jasotzen ari dira, baina beste batzuek jolasten jarraitzen dute.

1. Irudiarri behatu, eta ahal dugun guztia hitzez adierazi. Ikusten dena deskribatu, arazoa identifikatu, hipotesiak formulatu, ondorioak atera. Izenburua proposatu, ahal dela, ideia nagusira hurbilduz.
2. Izenburua idatzi.
3. Printzipioa formulatu. *Zer ikas dezakegu hemendik?*
4. Printzipioa orokortu, hau da, beste testuinguruetan izan dezakeen aplikazioa bilatu. Beste zer egoeratan gerta dakiguke horrelako zerbait?
5. Fitxan agertzen den egoera dramatizatu.
6. Egoera horri irtenbide bat aurkitzen bazaio, dramatizatu egoera bera irtenbidearekin, eta biak konparatu.

38. Gelako arauak sortu

Helburu didaktikoak: II.2-3-4-5, III.11 (H)-12 (H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOGNITIBOAK, AFEKTIBOAK, GIZARTERATZEKOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA

3. ZEHAZTAPEN MAILA

Taldekatzea: TH/B

Materiala: 6. FITXA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Aurreko jardueraren ondoren, gure gelako arauak sortuko ditugu, eta gelan jarriko ditugu denen bistan.

Arauak sortzeko mementoan, haurrak binaka jartzea proposatzen dugu. Bikotetan daudenean, bi arau sortzeko denbora utziko diegu (komeni da kopurua mugatzea, jardueraren lan-dinamika errazteko). Garrantzitsua iruditzen zaigu mezua eraikitzen laguntzea, arauak ezartzean mezu ezkorra nagusitzen baita normalean. Ahaleginduko gara arauak biltzen eta ahal den neurrian karga negatiboa murrizten. Adibidez:

- *Ezin da koska egin*
- *Ezin da bultzatu*
- *Ezin da iletik tiratu...*

Arau horiekin bakarra egingo dugu, zentzu baikor bat emanez:

- *Ez diegu minik emango lagunej, edo Gauzak lasai eskatuko dizkiegu lagunej.*

Ondoren, talde handian elkartuko gara, eta azaltzen diren arauak arbelean edo paper handi batean idatziz joango gara. Arauak errepikatzen badira, marka adierazgarri bat egingo diegu (hezitzaileak egingo du idazkari-lana).

Bukatzeko, bikote guztien artean osatu dutena birpasatuko dugu, eta gure zerrendako arauak onargarriak diren ala ez erabakiko dugu.

Erabakiak hartuta, orri batean idatziko ditugu txukun-txukun (kopiatzea izan daiteke egokia), eta gure gelako Harrera txokoan ipiniko ditugu.

Haurrek lan-koadernoko 6. fitxa osatuko dute, horrela, beti gogoratuko dituzte denen artean idatzi dituzten arauak.

39. Arau batzuk txartelen bidez

Helburu didaktikoak: II.5-III.12(H), III.15(H), III.16(H)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA

Gaitasun motak: KOGNITIBOAK

Jarduera mota: MOTIBAZIOA

Taldekatzea: TH/B

Materiala: ARAU TXARTELAK (MATERIAL OSAGARRIA)

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Elkarrizketetan parte hartzeko, ipuina entzuteko orduan isiltasuna lortzeko... horrelako egoeretan gelako arauak gogoraraztea besterik ez zaigu geratzen. Horretarako, txartel batzuk erabiliko ditugu, guk proposatutakoak edota haurrek egindakoak.

Txartelak materiala osagarrietan daukazue. Bertatik moztu eta plastifikatu behar dituzue. Hemen proposatzen ditugunak elkarrizketa kudeatzeko dira:

Eskua altxa txanda eskatzeko.

Hitz egin aurretik pentsatu.

Besteei entzun.

Isildu.

Txartelak erabiltzeko:

Moderatzailearen rola martxan jarriko dugu. Moderatzaileak garbi izan behar du zein den bere lana eta zer erabilera eman behar zaien txartelei.

Txartelak erabiltzeko, arbitroen modura egitea proposatzen dizuegu. Hurrei garbi azaldu behar diegu hau guztia. Arbitroek txartela ateratzen duten bezala jolas-arauak gogoratzeko, moderatzaileak txartela altxatuko du isiltasuna eskatzeko, norbaitek hitz egin nahi duenean txanda eskatzeko, besteek hitz egiten dutenean entzun behar diegula gogoratzeko...

Txartelak egiteko, haurren marrazkiak erabili:

Gidaliburuko txartelak erabili orde, hurrei marrazkiak egiteko eska dakieke. Marrazki horiekin txartelak egin, eta erabilpenari buruzko aurretik emandako azalpenak gogoratu ondoren, erabiltzeko prest egongo dira.

40. Zer egun da?

Helburu didaktikoak: I.12-15, II.14-30 (MAT), III.8 (H)-9 (H)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA

Gaitasun motak: KOGNITIBOAK

Jarduera mota: MOTIBAZIOA

Taldekatzea: TH/B

Materiala: ----

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Jarduera azaldu aurretik, oinarrizko galdera bat egingo dugu: *Zertarako jakin nahi dugu zer egun den?*

Haurrak astean kokatzen eta denborazko erreferentziak lantzen lagunduko digu jarduera honek. Egunero (edo maiztasun handiz), gelan sartu orduko, eguneroko ekintzen barruan kokatzen dugu hau ere; astearen egun bakoitzaren izenaren azpian, haurrentzat esanguratsua den ekintza baten izena eta marrazkia jarriko dugu.

Astearen egun bakoitzaren azpian belkro zati bat jarriko dugu, eta, egunero, kartulinaz egindako *Txirritx* kilkerra itsatsiko dugu dagokion egunean.

Tarteka, beste gauza bat egiten hasiko gara: data idatziko dugu arbelean eta egiten ditugun hainbat lanetan. Gurasoei bidaltzen dizkiegun gutunetan ere erreferentzia beharrezkoa da, batez ere epe edo egun jakin batean burutu beharreko ekintzetarako (irtenaldiak, elkarrizketak, bisitaldiak, erakusketak...).

Zer egun da? lantzeko, egutegia izango da beste erreferentzia bat. Zenbakiak argi agertzen dituen egutegi bat aukeratu, eta gelako horman itsatsiko dugu. (Euskaldunon Egunkariarena, esate baterako). Hilabete hasieran egun bereziak markatuko ditugu, haurrak denboraren erreferentzia hartzen joan daitezten: *21ean Mikelen urtebetetzea izango da, 12an irtenaldia egingo dugu...*

Hilabetea bukatzean, balantze bat egin ahalko dugu: *Begira hilabete honetan zenbat gauza gertatu diren / egin ditugun...*

41. Nolako eguraldia egiten du gaur?

Helburu didaktikoak: I.12-15, II.13, III.8 (H)-9 (H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOGNITIBOAK, KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH/B
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Jarduera azaldu aurretik, oinarritzko galdera bat egingo dugu: *-Zertarako jakin nahi dugu zer eguraldi egiten duen?*

Galdera horri erantzuteko, hurrei hitza emango diegu. Ondoren, eta, ahal dela, beraiekin batera, eguraldiaren behaketa egitea proposatzen dugu.

Aukera bat baino gehiago dago. Eguraldiari behatuko diogu...

...jolas-orduan patiora atera gaitezkeen edo barruan gelditu behar dugun jakiteko.

...jolas-orduan zer arropa jantzi behar dugun jakiteko.

...kanpoan egingo dugun jarduera bat prestatzen hasteko.

...

Eguraldiaren behaketa eguneko arduradunak bidera dezake. Behaketa egin ondoren, modu bat baino gehiago dago eguraldiaren berri emateko: erabiltzen den egutegia, eguraldi-mapa, edo hurrekin adostu duzuen bestelako adierazpen modu batean.

42. Abestia: *Gure gelan*

Helburu didaktikoak: II.2-3-16 (MAT), III.13-8 (H)-9 (H)-32 (MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOGNITIBOAK, KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH/B
Materiala: 4. CDa, 8. ABESTIA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Abesti honetan, hezitzaileak abestuko du lehendabiziko esaldia, eta, hurrek, ondoren, esaldi bera errepikatuko dute.

GURE GELAN

Gure gelan arbela dago.

Gure gelan arbela dago.

Arbela berdea, luze-luzea.

Arbela berdea luze-luzea.

Gure gelan panpina dago.
Gure gelan panpina dago.
Panpina laranja, polit-polita.
Panpina laranja, polit-polita.

CDko abestia entzun ondoren, hezitzaileak bere gelan landu diren hitzekin egokitu dezake abestia. Hona hemen adibide bat:

Gure gelan **telebista** dago,
Gure gelan **telebista** dago.
Telebista **karratua, beltz-beltza**,
Telebista **karratua, beltz-beltza**.

43. Gelako objektuak izendatu

Helburu didaktikoak: II.2-3-16 (MAT), III.13-32 (MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOGNITIBOAK, KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: -----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Gelan dauden elementuei, jostailuei eta dena delako objektuei behatuko diegu, eta horien izenak idatziko ditugu arbelean. Ondoren, horietako batzuk aukeratuko ditugu, eta horien **kolorea** eta **beste ezaugarriren** bat azpimarratuko ditugu :

- arbela: berdea eta luzea
- leihoa: karratua eta zuria
- aulkiak: laranja eta txikiak
- mahaiak: biribilak eta baxuak...

Gelako objektu bakoitza non gordetzen den hitz egingo dugu, dena txukuntzen ikas dezaten. Gauza bakoitza bere tokian gordetzeak zertarako balio duen galdetuko diegu. Egoki baderitze, armairuetan, apaletan edo kaxetan, bertan gordetzen diren objektuen izenak (guztiak ez badira ere, generikoak erabili) idatziko ditugu (marrazki baten laguntzaz, aukeran).

3. ZEHAZTAPEN MAILA

44. Zer aurkituko ote dugu

Helburu didaktikoak: I.11, II.23 (MAT)-24 (MAT), III.18 (PLAS)-39 (PLAS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOGNITIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH/B
Materiala: 7. FITXA
Jarduera egiteko espazioa: ADIERAZPEN TXOKOA

PROZEDURA

Era honetako jarduerak denbora-pasatan ikusiak izango dituzte hainbat haurrek. Beraz, fitxa horretan zer egin behar ote den galde diezaiekegu. Horren ondoren, Txirritxen agindua irakurriko dugu eta lanari ekingo diote, bakarka.

- *Margo ezazu zenbaki bakoitza dagokion kolorearekin eta... ea zer aurkitzen duzun!*

45. Hitzak txaloka

Helburu didaktikoak: III.7 (H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA
Gaitasun motak: KOGNITIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: TH/B
Materiala: -----
Jarduera egiteko espazioa: ADIERAZPEN TXOKOA

PROZEDURA

Gelan ikusten ditugun objektuen edo jostailuen izenak esango dituzte, *txaloka* silabak markatuz. Betiere, hasieran batzuei zail samar suertatuko zaie.

ar – be – la
pan – pi - na
mar – go - a
aul – ki – a

46. Jolas-kanta: *Aulkien jolasa*

Helburu didaktikoak: I.5-8-9-10-12-13-14-15, II.4-5, III.1 (H)-15(H)-17(MUS)-32(MUS)
Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: MOTORRAK, AFEKTIBOAK, GIZARTERATZEKOAK, KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH/B
Materiala: 4. CDa, 9. ABESTIA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

AULKIEN JOLASA

Saltoka eta brinkoka
korro-korroan,
den-denak gabiltza
aulkien ondoan.

Lalalala, lalala...

Musika pozgarri hau
isiltzen bada,
eseri behar duzu
aulkitxo batean.

Lalalala, lalala...

Guztiok aulkietan
esertzean,
nor geldituko da
jokotik kanpora?

Lalalala, lalala...

47. Ikastolan lan egiten duten pertsonak

Helburu didaktikoak: I.6, II.6-8, III.14 (H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: MOTORRAK, KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH/B
Materiala: FITXAK (MATERIAL OSAGARRIA)
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Haurrekin aztertuko dugu zer egiten duten eta norekin erlazionatzen diren ikastola-egun batean zehar, etxetik irten eta autobusa hartzen duten unetik (autobusez joaten direnen kasuan), arratsaldean etxera itzultzen diren arte. Elkarrizketaren eta antzerkiaren bidez egingo dugu.

–Aitarekin/amarekin/zaintzailearekin... autobusaren geltokian gaude zain. Autobusa iritsi da, atea ireki ditu eta, (autobuseko zaintzailea eta txoferraren izenak) “egunon Maddi, egunon Joxean, egunon...” esaten digute. Ondoren, gure eserleketan esertzen gara.

Hezitzaileak txoferraren papera hartuko du eta, haurrak bere atzean jarrita, gelatik ibiliko dira, autobusean doazela antzetzuz.

– Ikastolara iritsi gara! Zer egiten dugu ondoren? Norekin egoten zarete? Nora joaten gara? (Kontuan hartu haurren erantzunak).

Haurrak gelan sartzen direla antzetzuko dute, eta hezitzaileak ongietorria emango die:

– Egunon Manex, ondo lo egin al duzu? Mua! Kaixo, Leire, uuuui zein po-lita e-to-rrri za-ren gaur! Mua!

Ongietorria era komiko batean egingo dugu, haurrek gustuz bizi dezaten egoera.

– Gelan gaude. Zer egiten dugu gelan goizero? Norekin egoten gara gelan?

Egoera aldatuko da eskola bakoitzeko ohituren arabera, zer hezitzailearekin egoten diren (psikomotrizitate gela, ingelesa...)...

3. ZEHAZTAPEN MAILA

- *Gelako zerbait puskatu da! (egoera antzeztu). Nori deituko diogu konpontzera etor dadin?...*

Ikastolako mantenimenduko langilearen izena eta funtzioa landuko ditugu (baldin eta eskolan badago).

- *Denon artean zerbait konponduko dugu!*
- *Bazkaltzera! Nor dira jangelako zaintzaileak eta sukaldariak? Zer egiten dute?... (Jangelako egoera antzeztu).*
- *Bazkaldu ondoren, gelara! Eta, azkenik, etxera joateko... autobusera berriro!*

Elkarrizketa/antzezpena bukatzean, ikastolan lan egiten duen beste norbait ezagutzen al duten galdetuko zaie: idazkaria, zuzendaria, atezaina... Eta, azkenik, aipatu diren pertsona guztien izenak eta haien funtzioak izendatuko ditugu.

Jarduera amaitzeko, gidaliburuko material osagarrietako fitxak erabiliko ditugu: ikastolako langileen irudiak. Irudi bakoitzaren azpian idatziko dugu ezagutzen ditugun pertsona horien izenak. Eta paretan itsatsiko ditugu, **Ikastolan lan egiten duten pertsonak** dioen txartel baten azpian.

48. Txokoen inbentarioa

HD: II.23 (MAT)-25 (MAT), III.9 (H)-10 (H)-III (11)-12 (H)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA

Gaitasun motak: KOGNITIBOAK, KOMUNIKATIBOAK, GIZARTERATZKEOAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA, MOTIBAZIOA

Taldekatzea: Tt

Materiala: PAPERA ETA ARKATZA

Jarduera egiteko espazioa: GELAKO TXOKOAK

PROZEDURA

Gela berria daukagu, txokoak antolatu ditugu, baina gerta daiteke materiala soberan edo faltan izatea (aurreko taldea handiagoa edo txikiagoa zelako). Gelan antolatu ditugun txokoen inbentarioa egitea proposatzen dizuegu.

Inbentarioa egiteko, haurrak talde txikietan jarriko ditugu, eta talde bakoitzak txoko baten inbentarioa egingo du. Taldearen barnean bi ardura egon daitezke: idazteko ardura eta zenbatzeko ardura; biak ongi bereiztea interesgarria da. Banan-banan arkatza pasako diote elkarri, denek idatz dezaten. Idazten ez dutenek zenbatzeko ardura izango dute.

Taldean zenbaketa egin ondoren, kopurua idatziko dute. Bi aukera daude, hurrek dena idaztea, edo hezitzaileak materialaren izena idaztea eta hurrek, ondoren, zenbakia. Bigarren aukerarekin lana erraztuko genuke, baina lehen aukerak, dena idaztearenak, behatzeko aukera gehiago ematen digu: nola erabiltzen duten espazioa idazteko unean, idazketaren garapena... Zuen esku dago zein aukeratu.

Eredu posiblea:

TXOKOA: sukaldea	TALDEKOEN IZENAK:.....
MATERIALA:	
Lapikoak: 8	
Platerak: 28	
Koilarak: 27	
...	

49. Gelako materiala zenbatzen

Helburu didaktikoak: II.23 (MAT)-25 (MAT), III.9 (H)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA,

Gaitasun motak: KOGNITIBOAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA

Taldekatzeta: TH/B

Materiala: 8. FITXA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Lan-koadernora jo aurretik, haurrekin batera gogoratuko dugu inbentarioaren lana. Horrekin lotutako jolas bat ere proposa diezaiekegu: gelako lurrean uztai batzuk jarriko ditugu, eta hurrei bakoitzaren barruan nahi adina jostailu jartzeko esango diegu, baina baldintza bat jarrita: beraiek, banaka edo binaka, esan behar dute zenbat jostailu jarri dituzten, eta, bakarrik edo laguntzarekin, kopuru horri dagokion zenbaki-txartela erakutsi behar digute. Hezitzailearen karpetan zenbaki mugikorrak ditugu eta haur-bikote bakoitzari 0tik 5era arteko zenbaki guztiak emango dizkiogu; jostailuak jarri ondoren, zenbaki-fitxa bat hartu eta erakutsiko dute.

Bost jostailu baino gehiago jartzen badituzte, eskuan dituzten txartelekin konpon daitezkeen galdetuko diegu, eta zer egin behar duten proposatzen utzi. Jarritako kopurua bi uztaien artean bana dezakete, jostailu batzuk kendu... eta orduan txartelak jarri, edota 5etik goragoko zenbakiak adierazten dituzten txartelak eskaini.

Lan-koadernoko 8. fitxan, haurrek 0, 1, 2 eta 3 zenbakiak dagokien jostailu kopuruarekin erlazionatu behar dituzte.

Txirritzek dioena irakurriko dugu: *Zer uste duzue egin behar dela fitxa honetan?*

Objektuen izenak idatzita daudenez, zer jartzen duen ere galdetuko diegu. Lehenengoan, kotxerik ez dagoenez, guri dagokigu txartel hori irakurtzea.

50. Igarkizunak

Helburu didaktikoak: II.6-8, III.1 (H)-2 (H)-12 (H)-13 (H)-15 (H)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA

Gaitasun motak: KOGNITIBOAK, KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH/B

Materiala: HIZTEGI TXARTELAK

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

lazko igarkizun batzuk gogoratuko ditugu, eta berriak ikasi.

Galtzagorri adarjotzaileak utzitako eskutitza erabiliko dugu igarkizunak lantzeko. Eskutitz hau orri zuri batean idatziko dugu (lan-koadernoan agertzen ez diren eskutitz guztiekin egiten dugun bezala) eta gutunazal batean sartuko dugu.

Nahi izanez gero, igarkizun bakoitza orri batean idatz daiteke, letra handiz, eta, landu ondoren, horman itsatsi.

Kaixo laguntxoak:

Aurkitu al zenituzten gelan zehar sakabanatuta utzi nizkizuen izenen txartelak? Ja, ja, ja! Bai?

Hum! Zuek oso azkarrak zarete, ein? Aspaldian zuen gelara etorri gabe nengoenez, igarkizun batzuk uztea pentsatu dut, ea asmatzeko gauza zareten. Oso errazak direnez, ziur nago zirt-zart batean asmatuko dituzuela.

Beste bat arte. Ja, ja, ja!

PO-PO-PO autobusean
haurrak datoz jolasean
ikastolarako bidean
nik zaintzen ditut goizean. Nor da?
(Autobuseko zaintzailea)

PO-PO-PO autobusean,
haurrak datoz nire atzean
eskuak ditut bolantean
begiak jarrita bidean. Nor da?
(Autobuseko gidaria)

Ez da gure ama,
eta jana ematen digu.
Jangelan egoten da.
Nor den ba al dakizu?
(Jangelako zaintzailea)

Tan, ton, tin, ton ,
trebea da mailua erabiltzen.
Tan, tin, ton, tin,

beti zarata ateratzen.
Gelan puskatzen diren gauzak,
beti dabil konpontzen.
(Mantenimenduko langilea)

Haur guztiei, edo nahi dutenei, banatuko dizkiegu (besteek ikusi gabe) hiztegi-txartelak eta ikastolako langileen txartelak. Ondoren, txandaka, eskuan duten irudia deskribatuz, igarkizunak sortuko dituzte, eta gainerakoek asmatu beharko dute zein den eskuartean duten irudia. Hori guztia era librean ere egin dezakegu; haurrak igarkizunak asmatzera gonbidatuko ditugu.

51. Ikastolako autobusa

Helburu didaktikoak: I.7-11, II.4-5-7, III.16 (H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA
Gaitasun motak: KOGNITIBOAK, KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: B
Materiala: 9. FITXA
Jarduera egiteko espazioa: ADIERAZPEN TXOKOA

PROZEDURA

Fitxa honetan autobus baten irudia azaltzen da. Bertan, ez-ohiko egoera batzuk ikusten dira: haur bat gidari, bi andereño borrokan, beste haur bat zapia lepotik jantzita bazkaltzen, mantenimenduko langilea giltza ingeles batez haur bati sudurretik heltzen.

Oraingo honetan, hasteko, binaka edo hirunaka jarriko ditugu haurrak fitxa aztertzen.

– Marrazki honi ondo-ondo begiratu eta hitz egin ezazue biren/hiruren artean ikusten duzuenaz. Baina ez iezaiezue gainerako bikoteei/hirukoteei ezer kontatu. Zuen artean hitz egin bakarrik. Ados?

Ondoren, talde handian, behatutakoaz hitz egingo dugu: gure autobusean horrelakorik gertatzen ote den, barregarria ote den...

Istripu-arriskuez ere hitz egiteko aukera ematen digu irudi horrek. Autobusean eta autoan behar bezala joateak duen garrantzia azpimarratuko dugu.

Azkenik, Txirritxen agindua irakurriko dugu, eta fitxa egiteari ekingo diote, hasierako talde txikian edota bakarka.

– Ikastolako autobusean oso gauza arraroak daude. Aurkitu eta biribilduko al dituzu dauden bitxikeria guztiak?

52. Erritmoa

Helburu didaktikoak: III.32 (MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOGNITIBOAK, MOTORRAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzeta: B
Materiala: -----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Doinu erraz bati jarraituko diogu musika-tresnak erabiliz. Tresnak erabili aurretik, arauak ondo finkatu beharko ditugu, eta tresnen erabilera egokia zehaztu.

O-po-rre-tan Jai-Jai I-kas-to-lan a-lai

Udako oporrak gogoan

53. Horma-irudia elkarrizketa

Helburu didaktikoak: I.5-9, II.5-10, III.2 (H)-5 (H)-13 (H)-16 (H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, ARAKETA
Taldekatzeta: TH/B
Materiala: HORMA-IRUDIA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

JARDUERAREN PLANIFIKAZIOA

Elkarrizketa planifikatzerakoan, honako oinarrizko elementu hauek izango ditugu kontuan:

1. Haur guztien parte-hartzea lortu.
2. Elkarrizketa egiteko espazioa eroso eta komunikazio bultzatzen duena izan behar da. HARRERA TXOKOA
3. Jarduera egiteko denbora aurreikusi.
4. Galderen tipologia ondo pentsatu.
 - Galdera irekiak, baina haurren hizkuntza-konpetentzietara egokituak.
 - Pentsarazten duten galderak.

HEZITZAILEAK BERE ESKU-HARTZEA BERRAZTERTUKO DU

Haurren interesak

- Haurren esperientzien kontaketa bultzatu duzu jardueraren bitartez?
- Haurren interesak lehenetsi dituzu?

Erronka kognitiboak

- Galderak errebotatzen dituzu edo erantzuna ematen duzu?
- Hipotesiak, arrazoibideak egiteko, iritzia emateko aukera eskaintzen duzu?
- Jardueraren amaieran, azaldutako ideiak laburbiltzen eta biribiltzen dituzu?

Horma-irudian azaltzen diren elementuen inguruan, Tough-en hizkuntza-funtzioen 3., 4., 5., 6. eta 7. atalak aktibatzen saiatuko da hezitzailea. Funtzio asko direnez, hainbat saiotan lantzea aholkatzen dugu, edota horma-irudien elementu egokienak aukeratzea.

Ikusi TOUGH-en hizkuntza-funtzioen sailkapena.

54. Tradiziozko abestia

Helburu didaktikoak: II.4, III.15 (H)-30 (MUS)-32 (MUS)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK

Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA, ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea: TH/B

Materiala: 4. CDa, 3. ABESTIA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

EUSKAL HAURRAK BAGOAZ

Euskal haurrak bagoaz
bizitzan aurrera,
euskaraz ikasiaz,
guztiok batera.

Gora! Gora!
Gora gure euskara!
Gora! Gora!
Euskaldunak gara!

Gora! Esaten dugunean, besoak indarrez altxatuko ditugu.



Oporretako argazki bilduma

HASIERA

55. Gurasoentzako gutuna

Helburu didaktikoak: II.4, III.1 (H)-5 (H)-8 (H)-9 (H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA
Materiala: 10. FITXA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

Haurrak oporretan non egon diren eta zer egin duten jakin nahi dugu, beraz, ikasturtea hasi bezain pronto, gutun bat bidaliko diegu gurasoei, argazki bat eta lau lerrotako gutun bat eskatuz.

Hezitzaileak gutunak zer dioen irakurriko dio taldeari. Ondoren, puntuen gainean bakoitzak bere izena idatzi beharko duela azalduko du, adibide pare bat jarritz. Haurrek izena idazteko, bi aukera proposatzen ditugu:

1. Haurrari bere izena non idatzi behar duen adierazi eta bere kabuz idazten uztea.
2. Haurrari bere izenaren txartela eskuratzea, bertatik kopia dezan.

GURASO MAITEAK:

NI TXIRRITX KILKERRA NAIZ, ZUEN SEME-ALABEN LAGUN BERRIA.

ZER MODUZ PASA DITUZUE OPORRAK? PRIMERAN, EZTA?

DAGOENEKO GELAN JO ETA KE LANEAN HASI GARA.
"OPORRETAKO ARGAZKI BILDUMA" EGIN NAHI DUGU ETA,
HORRETARAKO, (R)EN
OPORRETAKO ARGAZKI BAT BEHAR DUGU. BIDALIKO AL DIGUZUE
LEHEN BAIT LEHEN? BAI, EZTA?

A! ETA ARGAZKIAREKIN BATERA, ANIMATUKO AL ZARETE LAU
LERROTAKO ESKUTITZ BAT IDAZTEN OPORRAK NON ETA NOLA
PASA DITUZUEN KONTATUZ?

BIDALTZEN DUZUEN ARGAZKIAREKIN ETA INFORMAZIOAREKIN,
BILDUMA POLITA ETA INTERESGARRIA EGINGO DUGU. IKUSIKO
DUZUE ZEIN TXUKUNA GELDITZEN ZAIGUN!

DAGOENEKO ZUEN ERANTZUNAREN ZAIN GAUDE!

TXIRRITX KILKERRA

OHARRA:

ARGAZKIA ETZANA IZATEA ESKERTUKO GENIZUEKE, LAN-KOADERNORA HOBETO EGOKITU DADIN.

56. “Txoko Txuria”

Helburu didaktikoak: I.12-15, II.2-3-4, III.16 (MAT)-17 (MAT)-20 (MAT)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK

Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA, ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea: LIBREA

Materiala: ETXETIK EKARRITAKOA

Jarduera egiteko espazioa: TXOKO TXURIA

Txoko txuriaren helburua, gaiarekin lotura daukaten hainbat elementu, objektu, ekarpen... jasotzea izango da. Gai berria aurkeztean, txokoa hustu eta berriz ere eraikitzeko prozedura hasiko da. Txoko txuria, beraz, dinamikoa eta aldakorra dela esan dezakegu.

Bildutako material horrekin, sekuentzia didaktikoan proposatzen den OPORRETAKO ARGAZKI BILDUMA egiteko materiala lortuko dugu.

Oporretako argazki-bilduma egiteko, gurasoen gutun labur bat eskatu dugunez, horientzat leku bat prestatuko dugu denak batera gordetzeko. Gehienetan, argazkia soilik izango da etxeko ekarpena, baina bakar batzuek gutuna idatziko dute, eta orduan hasiko gara gelako gutun txokoa prestatzen.

Gutunaz aparte, beste hainbat ekarpen bil daitezke; horiek denak modu txukun eta argian antolatzen laguntzea izango da hezitzailearen lana.

GARAPENA

57. Etxeko ekarpenak aztertzen

HELBURU DIDAKTIKOAK: II.4, III.1 (H)-5 (H)-8 (H)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK

Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA, ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea: TH/ Binaka

Materiala: ETXETIK EKARRITAKOA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

Etxeko ekarpenak jasotzen ditugun neurrian, horien azterketa egitea proposatzen dizuegu.

Hasieran, boluntarioak eska ditzakegu azterketa nola bideratu behar dugun aurkezteko. Ondoren, haurrak bikoteka jarriko dira, eta elkarri kontatuko diote zer ikusten den argazkian. Bukatzeko, argazki batzuk aukeratu (batzuk begiak itxita hartu) eta horien inguruan elkarrizketa bideratu.

– *Zer toki da argazkian agertzen dena?*

3. ZEHAZTAPEN MAILA

- *Hor pasa al zenituen opor guztiak?*
- *Argazkian ... (triste, pozik, haserre) zaudela ematen du. Zer gertatzen zitzaizun?*
- *Zein dira zurekin daudenak?*

58. Oporretara joateko garraioak

Helburu didaktikoak: II.3-16 (MAT)-17 (MAT)-23 (MAT)-25 (MAT)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK

Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala:---

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

– *Nola egin zenuten oporretako joan-etorria? Autoz? Hegazkinez? Trenez?...*

Erabili duten garraio motaren arabera multzokatuko ditugu haurrak:

- *Autoz egin duzuenok, jarri arbelaren ondoan.*
- *Trenez egin duzuenok, liburutegiaren ondoan.*
- *Hegazkinez egin duzuenok...*

Eta zenbaketa egingo dugu.

– *Ea zeinek asmatzen duen: zenbat joan zarete autoz? Eta zenbat trenez?...*

Haurrek asmatzen ez badute, galderen bitartez beraiek asma dezaten bultzatuko ditugu, erantzuna eman beharrean.

Talde bakoitzeko zenbakia asmatu ondoren, galdetuko dugu ea nork dakien nola zenbaki hori idazten. Inork ez badaki, zeuek idatzi.

Horrelako jardueretan, hezitzailearen karpetan dituzuen zenbaki-txartelak erabili daitezke.

(Oso posible da hainbat garraio inork ez erabili izatea; orduan, taldea irudimenezko era batean banatuko dugu).

59. Zein da zein?

Helburu didaktikoak: I.7, II.3, III.16 (MAT)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH//B

Materiala: 11. FITXA

Jarduera egiteko espazioa: ADIERAZPEN TXOKOA

PROZEDURA

Fitxa honetan banakako erlazioa, kopurua eta behaketa landuko ditugu.

Egiten hasi aurretik, haurrei aukera emango diegu haien ustez garraio mota bakoitzaren ezaugarri nagusiak zein diren azaltzeko:

– *Zuentzat zein da hegazkinaren ezaugarri garrantzitsuena? Zer egiten du hegazkinak beste garraioek egiten ez dutena? Eta itsasontziak? Eta autoak?...*

– *Zer egin dezakegu fitxa honetan?*

Utzi haurrei erantzuten eta nola egin adierazten: marraz lotu, gauza bera adierazten dutenak diagraman sartu, kolore beraz inguratu...

– *Irakurriko al dugu Txirritxek esaten diguna? Asmatu al dugu berak nahi zuena? Lortu al dugu nahi genuena?*

Lorpenak ebaluatzen ohitu behar ditugu haurrak.

60. Olerkia

Helburu didaktikoak: I.15, III.1 (H)-15 (H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH//B
Materiala:---
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Olerkia talde handian lantzea proposatzen dugu; ondoren, sarrera gisa jar daiteke gure bilduman. Horretarako, olerkia paper batean idatzi eta inprimatuko dugu.

*Hegazkinetik begira
autoak inurri
eta trenak
txitxare dira.*

*Lurretik begira
hegazkinak
bihotzik gabeko
txoriak dira.*

Joxantonio Ormazabal

61. Gelan zehar jolasten

Helburu didaktikoak: I.6-8-9-10-12-13, II.3, III.14 (H)-15 (H)-30 (MUS)-32 (MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: MOTORRAK, KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: 4. CDa, 4. ABESTIA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

3. ZEHAZTAPEN MAILA

Talde bakoitzeko haurrak, beren garraioaren paragrafoa entzutean, gelatik mugitzen hasiko dira, gorputzarekin keinu berezia egiten (autoak, bolantea mugituz; hegazkinak, besoak zabalduz...). Bukatzean, beren txokora itzuliko dira berriro.

BILBOTIK NATOR

Oporretara joan gara,
nolako abentura!
Autoa gidatuz bron-bron!
Po-po-po! Bron-bron!
Po-po-po! Bron-bron!
Autoa gidatuz bron-bron!
Bron-bron-bron! Bron-bron! Po-po!

Oporretara joan gara,
nolako abentura!
Hegazkinez hegan run-run!
Airean run-run, airean run-run!
Hegazkinez hegan run-run!
Airean run-run-run-run!

Oporretara joan gara...
Autobusean pu-pu, pu!
Itsasontzian plis-plis, plas!

62. Artelana: “Neskatilak itsasoan”

Helburu didaktikoak: III.16(H)-23(PLAS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA, ESPERIMENTAZIOA
Materiala: 12. FITXA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Jarduera honetan beste garai batera bidaiaria bat egitea proposatuko diegu haurrei. XX. mendearen hasierako koadroa da, eta horrek bide emango digu opor garaiari buruzko hausnarketa txiki bat egiteko. Beha diezaigun marrazkiari, eta egin dezagun konparaketa bat garai hartako eta gaur egungo oporren artean.

– *Gustatzen al zaizue koadro hau? Zer ikusten duzue? Nola daude neskatilak? Ondo pasatzen ari al dira? Nolakoa da eguraldia? Nola adierazten du margolariak eguraldi hori? Zer kolore erabiltzen ditu? Eta nolako marrazkiak? Zergatik pentsatzen duzue neskatilak jantzita doazela uretara? Nola gustatzen zaizue bainatzea, jantzita, biluzik, bainujantzian?*

– *Artistak ondo adierazi al du nahi zuena?*

- *Ba al dakizue noiz margotu zen koadro hau? Duela ... urte (1909. urtean). Zuek ordurako jaio al zineten? Ba al dakizue zer urtetan jaio zineten? Nik esango dizuet! Eta zuen gurasoak?*
- *Koadroa margotu zen garaian, nolako oporrak egingo zituzten? Zuen Aitona-amonen gurasoen oporrak nolakoak izango ziren?*

Joaquin Sorollaren biografia fotokopiagailuan handitu, eta koadroaren atzealdean itsatsiko dugu, ahal dela, egilearen argazkiarekin. Fitxa plastifikatuko dugu, eta gure artelanen fitxategia hornitzen jarraituko dugu.

Sorolla y Bastida, Joaquin. Pintore espainola (Valentzia, 1863 - Cercedilla, 1923). Postinpresionismoa eta arte akademikoa lotu zituen. Argi eta kolore indartsuz osatutako erretratu eta itsas paisaietan nabarmendu zen (*Eta gainera arraina garestia dela esaten dute* –1894–, *Zaldiaren bainua* –1909–, *Zarauzko hondartza* –1910–).

63. Entzunaldia: “Uda urdina”, Karmelo Bernaola

Helburu didaktikoak: I.7, III.26 (MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, ESPERIMENTAZIOA
Materiala: 4. CDa, 10. ABESTIA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

- *Gaur entzungo dugun musikaren izenburua “Uda urdina” da eta musikari euskaldun batek konposatu zuen: Karmelo Bernaolak.*
- *Ba al dakizue zer egin behar dugun entzuten dugun bitartean? Begira, musikak irauten duen bitartean, isil-isilik etzango gara lurtean eta udan egin ditugun gauzak gogoratzen saiatuko gara: hondartza, igerilekua, mendia, auzoa... nola joaten ginen, bazkalondoren zer egiten genuen...*
- *Prest al zaudete?*

Urtxintxa 3 urteko materialetan, artelanen eta entzunaldien egileen datu biografiko batzuk ematen hasi ginen. Komenigarria da haurrak horiei ohituz joatea, eta irakurtzea izan daiteke pauso bat. Egoki deritzogunean, testu mota horren osagaiak eta ezaugarriak aztertzen has gaitezke.

Bestalde, zenbait egileren argazkiak eskura ditzakegu; argazki bakoitzaren azpian biografia-testua jarri, eta plastifikatuko dugu. Horrela, egileen fitxategia osatuko dugu. Artelanen kasuan, artelanaren fitxaren atzealdean argazkia eta biografia-testua itsatsiko ditugu, eta plastifikatuko dugu. Horrela, informazio osoa biltzen duten fitxak izango ditugu.

Bernaola Alonso, Karmelo. Musikari bizkaitarra (Otxandio, 1929). Musika-ikasketak egin zituen Madrilan eta Erroman. Espainiako Arte Ederretako Akademiako kide eta Madrilgo San Fernando Akademiako kide (1993) da. Bere lana nazioartean goretsia eta saritua izan da: Goya saria (1988) eta Espainiako Musikako Sari

3. ZEHAZTAPEN MAILA

Nazionala (1992) jaso ditu. Gasteizko musika-eskolako zuzendaria izan da. Zinemarako lan asko egin ditu, eta musika jarri die espainiar literaturaren hainbat idazleren obrei. Obra nagusiak: *Piccolo concerto*; *Constantes*; *Morfología*; *Traza*; *Superficie nº1, nº2, nº3, nº4*.

64. Entzunaldiari buruz: bisualizazioa

Helburu didaktikoak: I.7-11-12
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, ESPERIMENTAZIOA
Materiala: 4. CDa, 10. ABESTIA
Jarduera egiteko espazioa: ADIERAZPEN TXOKOA

PROZEDURA

Musika entzuten duten bitartean, marrazki bat egitea proposatuko diegu haurrei.

Nahi izanez gero, autorearen argazkia izan dezakegu fotokopiatuta, izen-abizenekin eta obraren izenburuarekin, eta haurren marrazkiari itsatsi.

- *Musika entzuten ari zinetenean, zenbait pentsamendu eta egoera etorriko zitzaizkizuen burura; bada, pentsamendu horien marrazkia egingo duzue orain.*
- *Nahi duzuenok marrazkian kopiatuko duzue arbelean idatzita dagoen musikaren izenburua eta autorearen izena; horrela, etxekoek jakingo dute zer musika entzun duzuen.*

65. Lan-koadernoko fitxa osatu

Helburu didaktikoak: I.1-2, II.4-5-26, III.8 (H)-10 (H)-30 (PLAS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOGNITIBOAK, KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK,
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Materiala: 12 . FITXA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA, ADIERAZPEN TXOKOA

Lehenik, fitxan agertzen den euskarriari buruzko azterketa egingo dugu.

Fitxa horretan, batetik, argazkia jartzeko tokia dago eta, bestetik, argazkiari buruzko testua kokatzeko espazioa. Haurrei galdetuko diegu **zer** ikusten duten fitxa-orrian, eta **zertarako** izan daitekeen bertan ageri den hutsune bakoitza.

Haurrek ekartzen dituzten argazkiekin, guztion artean oporretako argazki-bilduma osatuko dugu, gelako liburutegian jartzeko. Bildumaren kopiak egingo ditugu, eta haur bakoitzak bat eramango etxera.

Bilduma osatzeko, haur bakoitzak bere fitxa osatu beharko du. Erdian, etxetik ekarritako argazkia itsatsiko du eta, azpian, nahi duena idatziko du bere oporrei buruz. Lanketa hori eta ondorengoa banatzea proposatzen dugu.

Argazkia itsatsi ondoren, honako prozedura honi jarraituko diogu:

1. Idazteko tokia aztertu, nondik hasi..., orrialdearen zenbakia non idatzi...
2. Haurrak binaka jartzea gomendatzen dugu, horrela, idazteko prozedura arinagoa egingo zaie. Bestalde, elkarrekin lan egiten ohituz joango dira.
3. Tarte bakoitzean zer idatziko duten pentsatu behar dute. Horretarako, denbora bat markatuko dugu (haur guztiek ez daukate planifikatzeko estrategia nahikorik, hortaz, hezitzailearen behaketa eta, behar denean, interbentzioa garrantzitsua izango da).
4. Lehenengo esaldi bat idatziko dute eta, ondoren, bestea; biak bukatu arte ez da idazketa-prozesua bukatutzat emango. Hezitzailearen esku gelditzen da transkripzioa egitea.
5. Bukatzeko, talde handian elkartuko gara eta bildumaren orrialde guztiak berrikusiko ditugu

OHARRA: Ikasturte hasieran gaudenez, eta prozedura konplexua eta nahiko berria dela kontuan hartua, taldeka lan egitea proposatzen dugu. Lau bikoteko taldeak egitea izan daiteke aproposa gela osoa kudeatzeko.

BUKAERA

Talde handian elkartuko gara eta erabakiko dugu nola antolatu bildumaren azala. Gidaliburuan bildumaren lehen orriaren eredu bat duzue. Zuri-beltzean egina dago fotokopiatu ahal izateko.

Azala beren kasa ere egin dezakete hurrek. Ekarpen hori ere aberasgarria izan daiteke, paperean antolatzea, edukia planifikatzea, marraztea, idaztea... suposatzen baitu

Ahaztu gabe, egile guztien izenen zerrenda jarri behar da bilduman.

Gela berriko liburutegian gordeko dugu bilduma, guztien eskura egon dadin.

66. Ipuina gogoratzen

Helburu didaktikoak: I.13, II.14, III.1 (H)-12 (H)

Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOGNITIBOAK, MOTORRAK, GIZARTERATZEKOAK

Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: banaka

Materiala: TXOTXONGILOAK (MATERIAL OSAGARRIA)

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Txotxongiloak erabiliz, ipuina ekarriko dugu gogora. Horretarako, unitatearen hasieran ikasitako elkarrizketak erabil ditzakegu, eta beste batzuk sortu, ipuina osatzeko.

Fitxa moztu eta txotxongiloak prestatuko ditugu etxera eramateko.

67. Ikasnorabidea: zatiak erlazionatuz osotasuna antzeman

SINTESIA

PROZEDURA

- *Beno, beno! Oporrak bukatu berri dira, eta, uff! Zenbat lan egin dugun honezkero!*
- *Baina, zein polita geratu zaizuen oporretako aldizkaria! Diantre! Artista batzuk zarete! Eta nolako gezurrak asmatzen zituen Koxmek ezta?*
- *Ea, errepasso txiki bat emango diogu ikasi dugun guztiari. Non dago lehenengo fitxa? Atera ezazue, bada!*

Ikasnorabidea atera, eta birpasa txiki bat emango diegu atal guztiei. Ikasi ditugun jolasak, abestiak, igarkizunak, olerkiak... gogoratu eta egin ditzakegu. Bestetik, ikasnorabideak aurkeztu genituenean proposatzen genuen bezala, fitxan agertzen ez den eta egin den jardueraren bat ager daiteke (zinemara joan badira, sarrera jar daiteke oroigarri modura; irteera egin badute, handik ekarritako zerbaitekin...).

Hiztegia

Gaiko hiztegia	Ipuineko hiztegia
Kilkerra	Kosme
Harrera txokoa	Ama
oporak	Gezurra esan
Eraiketa txokoa	Anbulantzia
Liburutegia	Hagina
Jolas sinbolikorako txokoa	Ospitalea
Adierazpen plastikorako txokoa	
Arkatza	
Apala	
Arbela	
Aldizkaria	

Ipuin gomendatuak

Jarraian, unitatean zehar lan daitezkeen zenbait ipuinen zerrenda aurkezten dugu. Ez dira derrigorrez kontatu beharrekoak, proposamen bat baino ez dira, gure eguneroko baliabideen osagarri.

Antton eta neskak, Alberdania
Hondartzako gazteluaren ipuina, Alberdania
Hamar oilo gara, Ibaizabal
Tomasitaren etxe koxkorra, Ibaizabal
Munduko etxerik handiena, Kalandraka”

2. HOSTOAK FIRIN-FARAN

Gaia: udazkena

Iraupena: urriko 4 asteak

Sarrera



Unitateko PROIEKTUA: gelako inurritegia egin



Proiekturako proposatutako sekuentzia didaktikoak:

1. Udazkeneko janariak
2. Mendia udazkenean

Amaieran, ERAKUSKETA bat antolatuko dugu, unitatean zehar landutako guztia besteekin partekatzeko.

Sekuentzia didaktikoaren ebaluazioa:

- Abiapuntua (nondik hasi garen eta zergatik).
- Sekuentziaren garapenean erabilitako baliabide materialek, jarduerak, lan-taldeek eta abarrek ondo funtzionatu duten, ala aldaketaren bat egin behar den hurrengo saio baterako.
- Sekuentziaren garapenean izan diren harremanei (haurren artean, hezitzailearekin...) eta jarrerari behatu.

Landu ditugun sekuentzia didaktikoei buruzko informazioarekin aldizkari bat osatuko dugu.



Ikasturteko proiektua: GELAKO ALDIZKARIA

Gurasoekin gelan egiten ditugun sekuentzia didaktikoak eta gelako hainbat gertaera partekatzeko, gelako aldizkaria sortzea proposatzen dugu. Horren bitartez, gelan burutu diren proiektuen berri emango dugu, gelako eguneroko bizitzan gertatzen diren berriak kontatuko ditugu eta bururatzen zaizkigun ideia guztiak partekatuko ditugu.

3. ZEHAZTAPEN MAILA

Era berean, gurasoen parte-hartzea bultzatu nahi dugu. Gurasoentzako atal bat utziko dugu aldizkarian, etxeko gertaerak, auzoko berriak eta abar kontatzeko.

Aldizkariak hiru hilabeteko maiztasuna izan dezake.

Gure erronka nagusia haurren inplikazioa lortzea izango da. Denek batera lan egitea zaila denez, berri bakoitza sortzeko talde bat osa daiteke. Dena dela, praktikak esango digu zein den lan-prozedura egokiena.

Hona hemen aldizkaria osatzeko proposamen bat:

Aldizkariaren atalak finkatzen eta mantentzen baditugu, lana erraztuko dugu.

Aldizkariaren atalak (proposamena)

- **Hiruhilabetean zehar landutako proiektuak.** Atal honetan proiektuen argazkiak jar ditzakegu, azalpen labur batekin.
- **Gelan jazotako gertaera nagusiak.** Antzerkiak, irteerak, Olentzeroren gelako oparia...
- **Gurasoen txokoa.** Haur baten amaren haurdunaldia, kanpoko senide baten bisita...
- **Denbora pasa.** Hiruhilabetean zehar landutako esaera zahar bat, asmakizuna, olerki labur bat, jolas bat ...

Hezitzailearen lana aldizkarian

Aldizkaria egitea ez da hezitzailearentzako lan gehigarria izan behar; lanik gehiena haurrek pentsatu eta egin behar dute. Hezitzailearen zeregina izango da idatzizko testuak transkribatzea, argazkiak inprimatzea, olerkiak gogoratzea, etxekoek ekarpenak kudeatzea...

Animo! oso ekimen interesgarria sor daiteke.

HASIERAKOAK

1. Horma-irudia: Udazkeneko paisaia (ingurugiroa)

Helburu didaktikoak: I.9, II.1-10-11-12-15, III.2(H)-5(H)-13(H)-16(H)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK

Jarduera mota: MOTIBAZIOA, ARAKETA

Taldekatzea: TH

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

Materiala: HORMA-IRUDIA

Horma-irudiaren aurrean jartzean, IKUSI MAKUSI jolasa egingo dugu. Jolas horren bitartez, jardueraren hasiera eta kokapena lortuko dugu

JARDUERAREN PLANIFIKAZIOA

Elkarrizketa planifikatzerakoan, honako oinarritzko elementu hauek izango ditugu kontuan:

1. Haur guztien parte-hartzea lortu.
2. Elkarrizketa egiteko espazioa eroso eta komunikazio bultzatzen duena izan behar da: HARRERA TXOKOA
3. Jarduera egiteko denbora aurreikusi.
4. Galderen tipologia ondo pentsatu.
 - Galdera irekiak, baina haurren hizkuntza-kompetentzietara egokituak.
 - Pentsarazten duten galderak.

HEZITZAILEAK BERE ESKU-HARTZEA BERRAZTERTUKO DU

Haurren interesak

- Denbora eman diezu haurrei pentsatzeko?
- Haurren esperientzien kontaketa bultzatu duzu jardueraren bitartez?
- Haurren interesak lehenetsi dituzu?

Erronka kognitiboak

- Galderak errebotatzen dituzu edo erantzuna ematen duzu?
- Hipotesiak, arrazoibideak egiteko, iritzia emateko aukera eskaintzen duzu?
- Jardueraren amaieran, azaldutako ideiak laburbiltzen eta biribiltzen dituzu?

Horma-irudian azaltzen diren elementuen inguruan, Tough-en hizkuntza-funtzioen 3., 4., 5., 6. eta 7. atalak aktibatzen saiatuko da hezitzailea. Funtzio asko direnez, hainbat saiotan lantzea aholkatzen dugu, edota horma-irudien elementu egokienak aukeratzea.

Ikusi TOUGH-en hizkuntza-funtzioen sailkapena.

2. Tradiziozko kantua

Helburu didaktikoak: I.6, II.9, III.14(H)-15(H)-30(H)-32(H)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH/Tt/B

Materiala: 4. CDa, 12. ABESTIA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

ANTTONI ETA ANTTON

-Anttoni, Anttoni!

Zure atean nago ni.

-Ai, Antton! Ai, Antton!

Ate ondoan, hor konpon!

Hormatxoriak negu gorrian
ez du atsegin elurra,
zerua goibel, habia hotza,
(e)ta janari gabe lurra.
Ai, maite, nire bihotzak duen

3. ZEHAZTAPEN MAILA

zure hotzaren beldurra!
Biontzat habia berotzeko
bilduko nuke egurra.

-Anttoni!...

Enarak ez du behin egindako
habi(a)rik inoiz altxatzen.
Urtero beti kabi hartan
umeak ditu bazkatzen.
Baina zu, Antton, enara txarra
zaitut niretzat bilatzen:
jai bakoitzean neska berria
ikusten zaitut maitatzen.

-Anttoni!...

Enarak ere, bere habia
galduta badu ikusten,
biderik gabe, harantz eta honantz
habiatik du alde egiten.
Egarri dagoen nire bihotza,
zuk eman ezik edaten.
Berriro ere ibiliko da
Gogorik gabe nonbaiten.

-Anttoni!...

Zure bihotza egarri dela
esan didazu bertsotan:
neronek ere ikasia dut
arrazoi duzula horretan.
Zu beti zabiltza edari bila,
ikusi zaitut askotan;
baina neurriz gain, egarri hori
itotzen duzu ardotan.

*-Anttoni, Anttoni!
Kalabazale ez naiz ni!
-Ai Antton! Ai Antton!
Haize freskoari gabon!*

3. Olerkia

Helburu didaktikoak: I.15, III.15(H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: TH/Tt/B
Materiala:-----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Unitatez unitate hainbat olerki proposatzen ditugu. Horiek guztiak bildu, eta txartel txikietan inprima ditzakegu, igarkizunekin egingo dugun bezala. Horrela, olerkia lantzea

proposatzen dugunean, jolasaren bitartez egin daiteke jarduera. Hezitzailea: *Irakurriko al dugu olerkia?*

Txartelak olerkien txokoan gordeko ditugu.

Hostoak agur
udazkenean zuhaitzari.
Elurak ere bai
udaberriko eguzkiari.
Etorri eta joan
jaio eta hil.
Gure mundua
biribil borobil
biraka dabil.

Joxean Ormazabal

4. Igarkizuna

Helburu didaktikoak: II.13, III.1(H)-2(H)-13(H)-15(H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOGNITIBOAK, KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala:-----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Hezitzaileak asmakizun bat aurkeztuko du. Aurretik, komeni da asmakizunean agertzen den hiztegia ezagutzen dutela ziurtatzea (*orruka* zer den, adibidez). Horretarako, laguntza eskatuko diegu haurrei: *Ba al dakizue zer den orruka?*

Ni hasten naizenean kantari
zuhaitz guztiak dantzari.
Ni hasten naizenean txistuka
ate eta leihoak orruka.
Ez dakizu polita naizen
ala naizen itsusi,
ezin bainauzu ikusi.
(haizea)

Joxean Ormazabal

Unitatez unitate, hainbat asmakizun proposatzen ditugu. Horiek guztiak bildu, eta txartel txikietan inprima ditzakegu. Horrela, igarkizuna lantzea proposatzen dugunean, jolasaren bitartez egin daiteke jarduera. Hezitzailea: *Jolastuko al dugu asmakizunekin?*

Txartelak atera eta, nahasten dituen bitartean, kanta edo esaeraren bat errepikatuko du. Hona adibide bat:

Haurrek: –*Nahastu, nahastu, nahastu....*
Haurrek: – *Nahikoa!*
Hezitzailea: – *Zer da, zer da...?*

5. Ikasnorabideak

Helburu didaktikoak: AURKEZPENA

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOGNITIBOAK, MOTORRAK

Jarduera mota: MOTIBAZIOA, ARAKETA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA, ADIERAZPEN TXOKOA

Materiala: 1. FITXA

Txirritx kilkerraren azalpenak:

Kaixo lagunok:

Udazkena iritsi da, eta dagoeneko hasi da haizea firin-faran zuhaitzetako hostoak botatzen. Nahi al duzue jakin zer ikusi eta ikasi behar dugun datozen egun hauetan? Bai? Entzun ondo, fitxaren marrazkiak ikusten dituzuen bitartean.

- 1. Hasieran, horma-irudia ikusi eta udazkenari buruz dakizkizuen gauza guztiak kontatuko dizkiezue hezitzaileari eta zuen lagunei kontatzeko. Bitartean, olerki eta asmakizun batzuk entzun eta ikasiko dituzue.*

***Inurria eta txirrita** IPUINA entzungo duzue. Ipuin horrek inurri langile baten eta txirrita alfer baten istorioa kontatzen digu. Inurriek buruz hainbat gauza ikasiko ditugu. Ipuinaren inguruan, olerkiak, asmakizunak, abestiak, fitxak, ea. egin eta ikasi egingo ditugu.*

Inurriez gehiago ikasiko dugu: zer jaten duten non eta nola bizi diren....

- 2. Ondoren, udazkenean jaten ditugun fruituak ezagutuko ditugu, eta askaria eta guzti egingo dugu. Uaaaumm! Eta, inurriek, zer jango ote dute?*
- 3. Ezagutzen al duzue basoa udazkenean? Bai? Bada, guk zuhaitzetatik erortzen diren hostoak ikusiko ditugu, eta zenbait gauza egingo ditugu beraiekin. Bilatuko al ditugu inurriak? Horretarako basora, mendira atera beharko dugu, ezta?*
- 4. Gelako inurritegia egingo dugu. Ikasi dugun guztiaz baliatuko gara gure gelako inurritegia osatzeko, eta gurasoei erakutsiko diegu egindako lana.*
- 5. Eta, bukatzeko, badakizue! Zuek beste zerbait ikasi nahi baduzue, hezitzaileari proposatu eta, listo!*

6. Antzeppen kolektiboa: **Inurria eta txirrita**

Helburu didaktikoak: I.6, III.1(H)-12(H)-13(H)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK, AFEKTIBOAK

Jarduera mota: MOTIBAZIOA, ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: -----

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Ipuinaren antzezpen kolektiboan sartu aurretik, komeni da ipuinaren sarrera bat egitea. Hau da, ipuinean azalduko diren pertsonaiak izendatu, antzezpen kolektiboan dauden arauak gogoratu...

Jarduera hau hiru egunetan jarraian egitea proposatzen dugu.

Ikusi jarduera konstanteak: antzezpen kolektiboa (ipuin dramatizatua)

INURRIA ETA TXIRRITA

	Bazen behin inurri bat oso-oso langilea, udan janaria pilatzen zuena negurako.
Inurria	Begira! Ogi-papur goxoak! Eta sagar-azala! Uf! Hau beroa! Baina lanean jarraituko beharko dut.
	Inurriaren aldamenean, txirrita alai bat bizi zen. Baina oso alferra zen.
Txirrita	Uff!! Hau beroa! Gaur ez dut lanik egingo. Abestu egingo dut. Din-don, din-don, dagoenean bon-bon! Din-don, din-don! Ez dagoenean egon! Eta hor konpon Mari Anton!
	Egun haietako batean, inurriak txirrita ikusi zuen. Etzanda kantari zegoen.
Inurria	Kaixo. Ez al duzu lanik egin behar, Txirrita jauna?
Txirrita	Ez, bero handiegia egiten du.
	Baina orain jaso behar da negurako janaria.
	Bost axola niri negurako janaria.
	Orain janaririk biltzen ez baduzu, zer jango duzu neguan?
	Negua! Tokitan dago negua! Zuk egin lan nire partez. Kar-kar-kar!
	Egunak pasa ziren, eta udazkena etorri zen. Zuhaitzetatik hostoak eta haziak erori ziren.
Inurria	Hau hazi pila! Etxera eramango ditut! Begira! Hor dago Txirrita! Kaixo. Ez al duzu lanik egin behar, Txirrita jauna?

3. ZEHAZTAPEN MAILA

Txirrita	Ez, haize zakarra dabil gaur.
	Baina orain jaso behar da negurako janaria.
	Negua! Tokitan dago negua! Zuk egin lan nire partez. Kar-kar-kar!
	Egunak pasa ziren eta negua etorri zen. Giro hotza zegoen, eta dena elurtuta, baina inurria goxo-goxo zegoen etxean.
Inurria	Hau eguraldi petrala! Zein goxo nagoen etxean!
	Egun horietako batean, Txirritak inurriaren atea jo zuen.
Txirrita	Kax-kax-kax! Inurri, mesedez eta faborez, zabaldu atea.
Inurria	Zer nahi duzu?
	Janari pixka bat. Gose naiz. Elurra ari du eta kanpoan ez dago janaririk.
	Noski! Negua da eta. Esan nizun nik janaria pilatzen hasteko.
	Bai, baina... Nik nahiago nuen kantuan aritu. Eta gerorako uzten nuen lana.
	Gerorako, gerorako! Geroa alferraren leloa!
	Lagundu, lagundu, faborez eta mesedez! Goseak hilko naiz!
	Ummm! Ez dakit ba... Nik lan asko egin dut.
	Nik ere egingo dut. Datorren urtean. Hitz ematen dizut!
	Txirrita negarrez hasi zen eta inurria errukitu egin zen.
Inurria	Sar zaitetz barrura. Hemen nahikoa janari dut biontzat.
Txirrita	Eskerrik asko, Inurri.

	Bai, baina alferra izateari utzi eta datorren urtean lanean garaiz hasi.
	Bai, datorren urtean lan eta lan ibiliko naiz. Ikusiko duzu! Eta aurtengo neguan kantuan erakutsiko dizut!
	Elkarrekin igaro zuten negu hura txirritak eta inurriak.
	<i>Hala bazan, ez bazan, sar dadila kalabazan...</i>

IPUINA AITZAKIA

7. Ipuinaren abestia

Helburu didaktikoak: III.15(H)-30(MUS)-32(MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA
Materiala: 4. CDa, 11. ABESTIA

INURRIA ETA TXIRRITA

Txirrita jauna,
 uda osoan,
 txirrin-txin-txirrin!
 Ez duzu lanik egin.
 Gero neguan,
 elur artean,
 ez duzu janik
 aurkituko parkean.

*Aizu, inurri,
 jakin ezazu
 kantua dela
 janari samurrena.*

Txirrita jauna,
 udazkenean,
 txirrin-txin-txirrin!
 Ez duzu lanik egin.
 Gero neguan,
 elur artean,
 ez duzu janik
 aurkituko parkean.

Aizu, inurri...

Neguan gaude,

3. ZEHAZTAPEN MAILA

dardaraz zaude.
Ez duzu janik,
ez duzu aterperik.
Zerbait jateko
izango duzu
etxea kantuz
alaitzen badidazu.

Din-dan, din-don!
Dagonean bonbon!
Din-dan, din-don!
Ez dagoenean egon!
Eta hor konpon,
Marianton!

8. Ipuinaren elkarrizketa-jolasa atzamarrekin

Helburu didaktikoak: III.1(H)-12(H)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK, GIZARTERATZEKOAK

Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: binaka

Materiala: TXOTXONGILOAK (MATERIAL OSAGARRIA)

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Lehen unitatean landutako prozedura bera proposatzen dugu elkarrizketa-jolasa guztietarako. Behin lan-dinamikan trebatuta gaudenean, zuzenean ipuinaren elkarrizketa egin dezakegu.

Ipuin honetarako bi aukera eskaintzen ditugu, baina zuen aldetik beste batzuk topatzera gonbidatzen zaituztegu:

1

<i>Haur guztiak hezitzailearen laguntzarekin</i>	Egun haietako batean, inurriak txirrita ikusi zuen. Etzanda kantari zegoen.
	Kaixo. Ez al duzu lanik egin behar, Txirrita jauna?
	Ez, bero handiegia egiten du.
	Baina orain jaso behar da negurako janaria.
	Bost axola niri negurako janaria!
	Orain janaririk biltzen ez baduzu, zer jango duzu neguan?
	Negua! Tokitan dago negua! Zuk egin lan nire partez. Kar-kar-kar!

2

Haur guztiak hezitzailearen laguntzarekin	Egun horietako batean, Txirritak inurriaren atea jo zuen.
	Kax-kax-kax! Inurri, mesedez eta faborez, zabaldu atea!
	Zer nahi duzu?
	Janari pixka bat. Gose naiz. Elurra ari du eta kanpoan ez dago janaririk.
	Noski! Negua da eta. Esan nizun nik janaria pilatzen hasteko.
	Bai baina.... Nik nahiago nuen kantuan aritu. Eta gerorako uzten nuen lana.
	Gerorako, gerorako! Geroa alferraren leloa!
	Lagundu, lagundu, mesedez eta faborez! Goseak hilko naiz!
	Sar zaitetz barrura. Hemen nahikoa janari dut biontzat.
	Eskerrik asko!

9. Ipuinak asmatzen

Helburu didaktikoak: III.11(H)-12(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: TH/Tt
Materiala: -----
Jarduera egiteko espazioa: LIBURUTEGIA TXOKOA

PROZEDURA

Inurria eta Txirritaren ipuinari buruzko bertsio bat eskaini dugu. Orain, hurrekin batera, beste aukera batzuk asmatzea proposatzen dizuegu. Jolastu bukaerarekin eta proposatu hurrei aukera desberdinak: zer gertatuko litzateke txirritarekin negua iristean...

10. Olerkia

Helburu didaktikoak: I.15(H), III.15(H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: -----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

3. ZEHAZTAPEN MAILA

PROZEDURA

Olerkia erabil dezakegu antzezpen kolektiboko bukaera egiteko. Behin ezaguna dugunean, sarrerako errituala egiteko baliagarria izango da. Oso olerki laburra denez, ez da memorizatzeko arazorik egongo.

Udan txir-txir
eta neguan eskean,
zuretzako ez dago ezer
gure etxean.

J.M. Etxebarria

11. Haurren ipuin-kontaketa

Helburu didaktikoak: III.1(H)-12(H)-13(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: IPUINAREN LAMINAK
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

Haurren ipuin-kontaketa egiteko, antzezpen kolektiboan erabiltzen den testua eta espazioa erabili behar dira (ipuin dramatizatua hiru aldiz egin ondoren).

PROZEDURA

- Haurrak hezitzailearen aurrean kokatu.
- Isiltasuna lortu (haurrek egindako txartelez balia gaitzke isiltasuna lortzeko).
- Haurren arreta erakarri.
- Ipuineko pertsonaiak eta nondik norakoak gogoratu.

Ipuinaren laminak lehenengo aldiz erakusten zaizkienean, jakin-min handia sortzen dute haurrengan; hori dela eta, haiekin adostu beharko dira jardueraren "arauak".

Lehenengo lamina erakustean, tarte labur bat utzi, haurrek begira dezaten. Hezitzaileak esango die ipuina kontatzeko laguntza behar duela: *Gogoratzen al duzue ipuina?, Lagunduko didazue ipuina kontatzen?*

Hezitzaileak narratzailearen zeregina zein den azalduko du, eta haurrek parte hartzen badute, narratzailearena beraiek egiten badute, hobe.

Pertsonaien arteko elkarrizketak agertzen direnean, aurrea hartzen utziko diegu haurrei; gogoratu haur guztiek parte hartzea lortu nahi dugula. Ez da nahikoa bakar batzuek parte hartzea, denei eman behar diegu parte hartzeko denbora. Euren erara kontatzera bultzatu behar ditugu.

Haurrek esaten dituzten esaldiak hitzez hitzekoak ez badira ere, onartuko ditugu, osatu, eta ipuinean txertatu.

HEZITZAILEAREN EGINKIZUNA

Laminekin haurren ipuin-kontaketa egitean, komeni da eskuarekin adieraztea zein pertsonaia ari den hizketan. Horrek lagunduko die kontaketa hariari jarraitzen.

- Giro goxoa sortu.
- Denen parte-hartzea bultzatu.
- Moderatzaile-lana egin (arauak betetzeko).
- Ipuina kontatzean atzean gelditzen direnei denbora utzi.
- Ipuina kontatzeko, antzeppen kolektiboan ikasitako esaldiak eta ipuinen laminak erabil ditzatela eskatu.
- Arreta mantentzeko estrategiak erabili: tonu-aldaketak, haur bati zuzentzaile-lana egin dezala eskatu...

12. Elkarrizketa. Zehar-lerroa: lanaren balioa eta laguntasuna

Helburu didaktikoak: II.4-5, III.4(H)-5(H)-6(H)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, GIZARTERATZEKOAK, AFEKTIBOAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: IPUINAREN LAMINAK

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

- *Zer iruditu zaizue ipuina? Polita, ezta? Norbaitek ezagutzen al zuen?*
- *Zuek nolakoak zarete? Langileak, inurriak bezala, ala alfer samarrak, txirrita bezala?*
- *Zuen ustez zer gauza on ditu langile izateak?*
- *Eta alferra izateak?*
- *Zer janari mota jasotzen zuen inurriak basoan neguan jateko? Saltxitxak? Pizza?... Zer, orduan?*
- *Gustatzen al zaizkizue fruitu lehorrak?*
- *Txirritak inurriari burla egiten zion, baina gero bere etxera joan behar izan zuen janari eske. Zuek emango al zenioke txirritari janaria, hark burla egin ondoren?*
- *Inurria, azkenean, errukitu zen eta janaria eman egin zion. Zer iruditzen zaizue?*
- *Hurrengo udan txirritak lan egingo duela uste al duzue? Zergatik?*
- *Zuei nork ematen dizue janaria eta hotzetik babesteko arropa? Nor arduratzen da zuetaz?*
- *Aurreko jardueran ikasi dugun olerki txikia bat al dator ipuinaren bukaerarekin? Inurriak Txirritari etxean sartzea ukatu izan balio, nola bukatuko zen ipuina? Zein bukaera gustatzen zaizue gehiago? Asmatuko al dugu gure bukaerarentzako olerkitxo bat?*

Adibidez:

3. ZEHAZTAPEN MAILA

Udan txir-txir
Eta neguan eskean,
**merezi ez baduzu ere,
sar zaitez nire etxean.**

...

**lana orain egizu,
niretzat kantuan.**

13. Komikia

Helburu didaktikoak: I.11-12, II.8, III.9-12(H)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, GIZARTERATZEKOAK, AFEKTIBOAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: ipuineko 2. FITXA, TXOTXONGILOAK (MATERIAL OSAGARRIA)

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Fitxaren kopia bat egingo dugu, tamaina handian, eta arbelean jarriko dugu denen aurrean aurkezpena eta planifikazioa bideratzeko.

Talde handian gaudela, fitxaren aurkezpena egingo dugu.

- Zer ikusten duzue hemen?
- Zer iruditzen zaizue egin behar dugula?
- Zergatik agertzen dira globoak?
- Zer idatzi behar da globoetan?

...

Testu motaren aurkezpena egingo dugu, alegia, komikia dela, pertsonaien elkarrizketa idatzi behar dugula horretarako dauden tarte zurietan...

Ondoren, ipuinaren txotxongiloekin, aurretik landuta daukagun elkarrizketa-jolasa ekarriko dugu gogora eta antzeztu egingo dugu. Horretarako, gela erdiari txirritaren txotxongiloak emango dizkiegu, eta beste erdiari inurriarena.,

Bikoteak egingo ditugu, eta horietako bik elkarrizketa antzeztuko dute besteen aurrean; haur batek txirritarena egingo du eta besteak inurriarena. Taldea handia bada, lau taldeak egin daitezke, jarduera dinamizatzeko. Kasu horretan, bik egingo dute txirritarena, eta beste biek inurriarena.

Elkarrizketa-jolasa landu ondoren, lanaren planifikazioa egingo dugu: bikoteei denbora emango diegu fitxan zer idatzi behar den pentsatzeko. Proposamenak talde handian jasoko ditugu, eta egoerari ondo dagozkion ala ez erabakiko dugu. Komeni da mezua esaldi pare bat batean laburtzea, bestela, ahazteko arriskua dago.

Behin esaldi horiek garbi dauzkatenean, testualizatzeko momentua iritsi da. Beren modura idazten utziko diegu hurrei.

Esaldiak idatzitakoan, berriro bilduko gara biribilean eta errebisioa egingo dugu; eredu batzuk ikusiko ditugu eta idatzitako mezua gogoratuko dugu.

14. Igarkizuna

Helburu didaktikoak: II.12, III.1(H)-2(H)-13(H)-15(H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA, ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: TH
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Igarkizun guztiekin bezala, aurkeztu aurretik komeni da asmakizunean agertzen den hiztegia ezagutzen dutela ziurtatzea. Bestetik, asmakizunen ulermena indartzeko, mimikaren erabilpena lagungarri izan daiteke.

Bakarrik doa mendira
eta itzultzean
zerbait dakar aldean.
(Inurria)

Igoko luke zuhaitz handiena
eta ezin pasa errekarik txikiena.
(Inurria)

15. Txoko txuria

Helburu didaktikoak: I.12-15, II.2-3-4, III.16(MAT)-17(MAT)-20(MAT)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA, ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: LIBREA
Materiala: ETXETIK EKARRITAKOA

Txoko txuriaren helburua gaiarekin lotura daukaten hainbat elementu, objektu eta ekarpen biltzea da, etxekoen laguntzarekin. Aurreko unitatean oporren inguruko informazioa bildu dugun bezala, oraingoan, udazkenari buruzko materialaren bilketa egitea proposatzen dugu.

16. Entzunaldia

Helburu didaktikoak: I.7(I), III.14(H)-26(MUS)-27(MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: 4. CDa, 21. ABESTIA

PROZEDURA

Musika entzuten dugun bitartean, ipuin bat kontatzea proposatzen dizuegu. Horretarako, aukera ezazue unitatearen bukaeran proposatzen ditugun ipuinetako bat, ahal dela, ilustrazioekin.

3. ZEHAZTAPEN MAILA

Erakusketa baterako koadroak Mussorgskyk sortu zuen, eta Ravel musikari euskaldunak orkestratu zuen.

Musika hau entzutean, imajina ezazu inurri txiki-txiki eta langile batek hosto handi-handia aurkitu duela basoan eta etxera eraman nahi duela. Entzun ondo, eta pentsatu nola joango den inurri gizajoa.

RAVEL, Maurice

Konpositore lapurtarra (Ziburu, 1875 - Paris, 1937); aita suitzarra eta ama euskalduna zituen. Hiru urterekin Parisera joan zen eta geroztik han bizi izan zen. Bere obrarik ezagunena *Bolero* da (1928). Euskal Herriko musikaria zen, baina ez zuen euskal musika eta tradizioan oinarritutako musika egin.

17. Elkarrizketa

Helburu didaktikoak: III.16(H)-26(MUS)-27(MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: TH/Tt
Materiala: 4. CDa, 21. ABESTIA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

- *Norbaitek imajinatu al du, musika entzun bitartean, nola zihoan inurri gizajoa?*
- *Nola uste duzue zihoala, alai-alai, ala neka-neka eginda?*
- *Azkar edo mantso?*
- *Zergatik uste duzue mantso zihoala?*
- *Eta musikaren erritmoa horrela izango balitz (errepikatu musikaren doinua baina erritmoa zeharo azkartuta), zer adieraziko luke?*

18. Musika antzeztu

Helburu didaktikoak: I.6-7-10, III.14(H)-26(MUS)-27(MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: 4. CDa, 21. ABESTIA
Jarduera egiteko espazioa: LIBURUTEGIKO TXOKOA

PROZEDURA

Berriro musika bera jarriko dugu, baina, oraingo honetan, musikak irauten duen bitartean, antzezpena egingo dugu gelan zehar.

- *Orain gu izango gara inurriak. Oso txikiak gara eta, pisu handia duen hostoa bizkar gainean hartuta, gelan zehar mugituko gara musika entzunez.*

Gogoratu hostoak pisu handia duela eta oso nekatuta goazela. Musikak markatzen duen erritmoari jarraituko diogu hankekin lurra kolpatuz.

19. Musika plastikoki adierazi

Helburu didaktikoak: III.25 (MUS-PLAS)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK

Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA

Materiala: 4. CDa, 21. ABESTIA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA/ ADIERAZPEN TXOKOA

PROZEDURA

- *Orain entzun dugun pasarte horren diskoa jarriko dizuet eta, bitartean, entzun dugun musikaren marrazkia) egingo duzue, lasai-lasai.*

Marrazkia izan beharrea, plastilina edo buztinez eraiki dezakete errepresentazioa, plano baten gainean.

- *Marrazki bidez adieraziko al dugu gure nekea (musikaren erritmoa)? Zer erabil dezakegu horretarako, marra finak eta arinak, ala zetaka (mantxa) lodiak eta astunak?*

Bolumenean eraikitzen badute, paralelismoa egin.

20. Hezitzailearen ipuin kontaketa: *Inurria eta txirrita*

Helburu didaktikoak: III.1(H)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, GIZARTERATZEKOAK, AFEKTIBOAK

Jarduera mota: MOTIBAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: IPUINAREN LAMINAK

Jarduera egiteko espazioa: LIBURUTEGI TXOKOA

PROZEDURA

Jarduera honetan, beste edozein ipuin-kontaketa narratibotan bezalaxe (haurrek ekartzen dituzten ipuinak edo kontatzeko erabiltzen ditugunak), ezinbestekoa da alde aurretik testua irakurtzea eta kontaketa egiteko erabiliko ditugun estrategiak erabakitzea.

Lagungarria izan daiteke hezitzailearen ipuin-kontaketarako elementu bereizgarriak erabiltzea (hauts magikoak, hitz magikoak, txano berezia, alfonbra...). Elementu horiek sarrera moduan lagunduko diote beti hezitzailearen ipuin-kontaketari. Espazio fisiko bera izateak ere funtzio bera beteko du.

Hezitzailea taldearen aurrean kokatuko da, taldeak ondo ikusteko moduan (aulki batean eserita...), eta ahalik eta giro goxoen sortzen saiatuko da.

3. ZEHAZTAPEN MAILA

HEZITZAILEAREN EGINKIZUNA

Ipuina kontatu aurretik:

- Giro afektiboa eta goxoa sortu.
- Hasierako esaldia prestatu (hiruhilabeterako proposatutakoa).
- Bukaerarako esaldia prestatu (hiruhilabeterako proposatutakoa).
- Ahots-aldaketak nola egin pentsatu.
- Suspensea nola sortu pentsatu.
- Dramatizatu.

Ipuina kontatzen dugun bitartean:

- Ipuina aurrez ondo ikasita eduki.
- Begiradarekin haur guztien arreta bereganatu (denek sentitu behar dute haiei bakarrik kontatzen diogula).
- Kontaketa eman ipuinaren protagonismoa.
- Keinuak areagotu.
- Haurren konplizitatea lortu.

21. Pertsonaiekin jolasten: memoria-jolasa

Helburu didaktikoak: I.12, II.4-5-33(MAT), III.7(H)-8(H)-9(H)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, NORTASUNA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK, GIZARTERATZKEOAK

Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: PERTSONAIEN TXARTELAK (MATERIAL OSAGARRIA)

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Unitate honetako pertsonaien txartelean inurria eta txirrita izango ditugu. Iazko eta aurtengo pertsonaia guztiekin jolastuko dute, eta erlazionatuko dituzte irudiak eta horien izen idatziak.

Bi izenak bertikalki idatz ditzakegu, eta gelako haurren izenekin erlaziona ditzakegu. Izenen arteko konparaketak ere egin ditzakegu: hasierako letra, bukaerakoa, bi izenek komunean dituztenak, letra kopurua...

I (Iñaki, Idoia...)
N (Nekane, Naroa...)
U (Unai, Urki...)
R (Ramon, Raul, Rebeka...)

R
I

A (Ander, Ane...)

T (Txomin, Tasio...)

X (Xabier, Xeber...)

I
R
R

I
T
A

Karpetako letrak erabil ditzakegu izenak idazteko, letra kopurua zenbatzeko, gelakoen izenak eraikitzeko...
Beti bezala, txartel berriekin memoria-jolasera jolastuko dugu. Jolaserako arauak gogorarazi beharko zaizkie hurrei (txandak gorde behar dituztela...).

22. Alferraren astea

Helburu didaktikoak: III.1(H)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, GIZARTERATZEKOAK, AFEKTIBOAK, AFEKTIBOAK

Jarduera mota: MOTIBAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: IPUINAREN LAMINAK

Jarduera egiteko espazioa: LIBURUTEGI TXOKOA

PROZEDURA

- *Txirritak, negurako janaria bildu beharrean, egun guztia kantatzen pasatzen zuen kolperik jo gabe. Eta kolperik jo gabe bizi direnei alferrak direla esaten diegu.*
- *Orain, abesti bat ikasiko dugu. Bertan kontatzen zaigu zer nolako aitzakiak asmatzen dituen haur batek lanik ez egiteko.*
- *Zuek ez zarete horrelakoak, ezta?*

Gogoratu Urtxintxa 3 urteko 1. unitatean *Ostirala iritsi da* errutina abestia genuela. Kantua gogora diezaiekegu eta, bide batez, ostiralean zer egiten dugun galdetzeko aitzakia badugu.

Astelehena, jai ondoren alferra,
ezer ez egiteko, ez goaz lanera.
*Ez goaz lanera, ez goaz lanera,
ez goaz lanera, ez goaz lanera.*

Asteartea, euria goitik behera,
busti egingo gara eta ez goaz lanera.
Ez goaz lanera...

Asteazkena, osaba ezkontzen da
eta jai hartzen badu ez goaz lanera.
Ez goaz lanera...

Osteguna, amonaren eguna,
hori ospa(tu)tzeko ez goaz lanera.
Ez goaz lanera...

Ostirala, hagineta mina,
aspirina hartuta bagoaz ohera
Ez goaz lanera...

3. ZEHAZTAPEN MAILA

Larunbata, egun erdiko lana,
egun erdiagatik ez goaz lanera.
Ez goaz lanera...

Igandea, ikastola itxita,
lana egin nahi baina ezin joan lanera.
Ez goaz lanera...

23. Esaera zaharra

Helburu didaktikoak: II.9, III.15(H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: -----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

- *Zer uste duzue esan nahi dutela esaera zahar hauek?*

*Alferrarentzat lana
eta langilearentzat jana
ez da inoiz faltako.*

*Alferkeria
arazo askoren ama.*

Geroa, alferraren leloa.

Lehenago aipatu izan dugun bezala, ez dugu espero esaera zahar horien erabateko ulermenik. Testuinguru egokian entzuten badituzte, tankera emango diete pixkanaka.

24. Berdinak margotu

Helburu didaktikoak: I.7-11, III.33(MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOGNITIBOAK, MOTORRAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: TH/ B
Materiala: 3. FITXA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA, ADIERAZPEN TXOKOA

PROZEDURA

Inurria eta txirrita ipuinean txirrita kantatzen eta alferkerian ikusi dugu; inurria, berriz, lan eta lan, negurako prestatzen.

- *Txirrita bezala kantuan eta jolasean ibiltzea oso ongi dago. Baina, zer iruditzen zaizue negurako lan egitea ere?*

- *Gure ipuineko txirritari gitarra jotzea gustatzen zaio. Zuei zer gustatzen zaizue?*
- *Lagunduko al diogu txirritari bere berdinak topatzen?*

Fitxa talde handian aztertuko dugu lehenik, eta, ondoren, talde txikietan elkartuko dira, elkarren artean parteka ditzaten behaketa-estrategiak. Bukatzeko, nork bere fitxa egingo du, bakarka.

Txirritaren irudiak txikiegiak badira barrualdetik margotzeko, nahikoa izango da kolore batez inguratzea. Ondoren, osorik ez bada ere, saia daitezela zati bat margotzen.

25. Sekuentziekin jolasean

Helburu didaktikoak: II.25(MAT), III.2(H)-3(H)-5(H)-12(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH/BINAKA
Materiala: IPUINAREN LAMINAK
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Sekuentzia bat aurkezten dugun bakoitzean, talde-antzerkian errepikatu dituzten esaldiak gogora ditzatela eskatuko diegu. Hezitzaileak narratzaileari dagokiona esango du, eta gainerako esaldiak haurrek (haurren ipuin-kontaktetan egin dugun bezala).

Bakoitzak gustuko duen sekuentzia aukeratuko du, eta aukeraketa horren zergatia azalduko du.

Sekuentziak desordenaturik eman, eta ipuina desordenan kontatu.

Sekuentziak desordenaturik eman eta haurrek ordenatuko dituzte.

Edozein lamina atera, eta sekuentzia horretan zer gertatzen den kontatu.

Jolasean hasteko, talde handian egingo ditugu probak. Jolasaren dinamika ezaguna dutenean, bi taldetan jarriko gara: talde batek jolasa egiten duenean bestea ikusle izango da.

Hasiera, korapiloa eta bukaerako sekuentziak bereizi.

26. Iparraldeko olerki bat. Euskalkia

Helburu didaktikoak: I.15, III.1(H)-15(H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: -----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

3. ZEHAZTAPEN MAILA

Aurretik egin dugun bezala, olerkia txartel batean inprimatuko dugu eta olerkien txokoan gordeko dugu. Olerkiak lantzea proposatzen dugunean, jolasaren bidez irakurriko dugu.

Agorrilan ardura*
bero gogorak ari
hostopean gostura,
ttrirritta xirikari.

Lerro-lerro xendrari**
bero gogorrean
tzirri, tzirri, kitzirri,
gor dago xinaurria.

Hegaldunak jostetan
xinaurria lanetan!

Oxobi

* Askotan, sarritan, maiz

** bidexkari

27. Aho-korapiloa

Helburu didaktikoak: II.15, III.7(H)-15(H)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea: TH/Et/B

Materiala: ----

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Aho-korapiloekin eta esaera zaharrekin ez dugu nagusiki memoria lantzeko helburua izango. Hainbat esaera zahar eta aho-korapilo, erabilpenaren ondorioz, haurren hizkuntzan txertatuko dira modu natural eta ludiko batean.

Hiru ziri zoro ziren,
zereren zuloan.
Zure hiru ziri zoro
zelaiko zuloan.

28. Horma-irudia: udazkena

Helburu didaktikoak: I.9, II.1-10-1-12-15, III.2(H)-5(H)-13(H)-16(H)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK

Jarduera mota: MOTIBAZIOA, ARAKETA

Taldekatzea: TH

Materiala: HORMA-IRUDIA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

Oraingo honetan jakin nahi dugu zein diren udazkeneko fruituak eta zein ezagutzen dituzten. Horma-irudiak aukera ona eskaintzen digu horretarako.

- *Norbaitek ikusi al du gaztainak egoten diren eskola? Nolakoa da? Zergatik ibili behar dugu kontuz gaztainak ateratzeko? Nola atera ditzakegu minik hartu gabe? Zenbat gaztaina egoten dira eskol bakoitzean?...*
- *Eta intxaurrek? Intxaurrek ere ba al dute eskolirik kanpotik? Hau ere arantzaduna al da? Norbaitek ikusi al du? Nolakoa da?*
- *Eta hurrek...?*

JARDUERAREN PLANIFIKAZIOA

Elkarrizketa planifikatzerakoan, honako oinarriko elementu hauek izango ditugu kontuan:

1. Haur guztien parte-hartzea lortu.
2. Elkarrizketa egiteko espazioa eroso eta komunikazio bultzatzen duena izan behar da: HARRERA TXOKOA.
3. Jarduera egiteko denbora aurreikusi.
4. Galderen tipologia ondo pentsatu.
 - Galdera irekiak, baina haurren hizkuntza-kompetentzietara egokituak.
 - Pentsarazten duten galderak.

HEZITZAILEAK BERE ESKU-HARTZEA BERRAZTERTUKO DU

Haurren interesak

- Pentsatzeko denbora eman al diezu haurrei?
- Haurren esperientzien kontaketa bultzatu duzu jardueraren bitartez?
- Haurren interesak lehenetsi dituzu?

Erronka kognitiboak

- Galderak errebotatzen dituzu edo erantzuna ematen duzu?
- Hipotesiak, arrazoibideak egiteko, iritziak emateko aukera eskaintzen duzu?
- Jardueraren amaieran, azaldutako ideiak laburbiltzen eta biribiltzen dituzu?

- *Norbaitek ikusi al du gaztainak biltzen dituen eskola (morkotsa)? Nolakoa da? Zergatik ibili behar dugu kontuz gaztainak ateratzeko? Nola atera ditzakegu minik hartu gabe? Zenbat gaztaina egoten dira eskol bakoitzean?...*
- *Eta intxaurrek? Intxaurrek ere ba al dute eskolirik? Horiek ere arantzadunak al dira? Norbaitek ikusi al ditu? Nolakoak dira?*
- *Eta hurrek...?*

Jarduera bukatzean, haurrei eskatuko diegu galde dezatela etxean udazkeneko beste fruituren bat ezagutzen al duten. Hala bada, orri batean idazteko eta ikastolara ekartzeko esango diegu. TXOKO TXURIAN jasoko ditugu etxeko ekarpenak.

3. ZEHAZTAPEN MAILA

Nahi izanez gero, hezitzaileak ohartxo bat idatziko du, fotokopiatu, eta hurrei banatu, etxera eraman dezaten. Hona adibide bat:

Kaixo:

Udazkeneko fruituak zein diren ikasten hasi gara, baina guk oso gutxi ezagutzen ditugu (elkarrizketan hurrek aipatu dituztenak jarri). Zuek ezagutzen al duzue gehiagorik? Ez dute nahitaez jatekoak izan behar.

Horrela bada, idatzi orri batean ezagutzen dituzuen udazkeneko fruitu horien izenak, eta ekarri bihar.

Mila esker zuen laguntza paregabea eskaintzeagatik! Besarkada bat.

Txirritx

29. Igarkizunak

Helburu didaktikoak: II.12, III.1(H)-2(H)-12(H)-13(H)-15(H)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK

Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: librea

Materiala: HIZTEGI TXARTELAK

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

*Txokolate kolorekoak,
beroarekin bigunduak,
labe beroan badaude
dirudite etxaferoak.
(gaztainak)*

Hiztegi-txarteletan azaltzen diren fruituak (eta aurreko jarduera garatzeko egin ditugunak) banatuko diogu, ezkutuan, haur bakoitzari, edo bikote bakoitzari. Egokitu zaien fruitua deskribatuz, igarkizun bat asmatu beharko dute.

30. Abestia: *Urtxintxak oihanean* (euskalkia)

Helburu didaktikoak: III.15(H)-32(MUS)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: librea

Materiala: 4. CDa, 16. ABESTIA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

- *Inurriak ez dira negurako janaria biltzen duten animalia bakarrak. Zuek ezagutzen dituzuen urtxintxek edo katagorriek ere intxaurrek eta bestelako fruituak biltzen dituzte udazkenean.*

- *Ezagutzen al duzue urtxintxa? Non duzue haren irudia? Zergatik azaltzen da irudi hori karpetetan?*
- *Begira, Iparraldeko kantu polit honetan, haur batek urtxintxak nola ibiltzen diren kontatzen dio bere amari; berak ere urtxintxak bezala ibili nahi luke.*

URTXINTXAK OIHANEAN

Urtxintxak oihanean jauzika,
aldaxkatik aldaxkarat.
Zuk erradazu, ama, zendako
ez diren erortzen lurrerat?

Nik ere nahi nuke
izan urtxintxa bezala!
Hain gora, hain trebe,
izaiteko libre.

Urtxintxak oihanean zintzilik,
buruz behera buztanetik.
Zuk erradazu, ama, zendako
ez duten buruko minik?

Nik ere nahi nuke...

Urtxintxak oihanean karruxkaz
neguko bildu eltzaurrekin.
Zuk erradazu, ama, zendako
ez dezaketan egin berdin?

Nik ere nahi nuke...

31. Esaera zaharra

Helburu didaktikoak: II.9, III.15(H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, MOTIBAZIOA
Taldekatzea: librea
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Urrutiko intxaurreak hamalau, gerturatu eta lau

- *Ba al daki norbaitek zer esan nahi duen esaera zahar horrek?*
- *Zuen ustez, zer esan nahiko du?*



Zer jaten dugu udazkenean? Udazkeneko fruituen merienda

HASIERA

32. Zer jaten dute gure inurriek?

Helburu didaktikoak: I.12, II.18(MAT)-21(MAT)-23(MAT)-25(MAT)-27(MAT), III.16(H)

Etengabeko ebaluazioa: PROBLEMEN EBAZPENA

Gaitasun motak: KOGNITIBOAK, AFEKTIBOAK, KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH/Tt/B

Materiala: 4. FITXA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA, ADIERAZPEN TXOKOA

PROZEDURA

- *Inurriak harizti batean daude, eta lurrean ezkurak eta beste hainbat elikagai aurkitu dituzte. Elikagaiak etxera (inurritegira) eramán nahi dituzte, baina oso handiak direnez, bakoitzak bat baino ezingo du eramán bidaia batean.*
- *Elikagai guztiak bidaia batean eramaterik izango al dute?*
- *Inurri guztiak izango al dute elikagairik eramateko?*
- *Zer ezin izango dute eramán, zuen ustez? Zergatik?*
- *Elikagai guztiak ezin badituzte bidaia batean eramán, zenbat geratuko dira soberan?*
- *Zuei gustatzen al zaizkizue elikagai horiek? Zein da gehien gustatzen zaizuen?*

Mota honetako jardueretan, dakizuen bezala, inportanteena ez da emaitza baizik eta emaitza lortzeko egiten den prozesua (estrategien aukeraketa eta erabilpena).

33. Gu ere inurri: *Aurretik doanak egiten duena jolas-abestia*

Helburu didaktikoak: I.12-I.13, III.15(H)-30(MUS)-32(MUS)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: 4. CDa, 15. ABESTIA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

- *Inurriak lerroan ibiltzen dira eta lehenengoak zer egin, nondik joan... besteek atzetik jarraitzen diote.*

Guk ere, inurriak bagina bezala jolastuko dugu. Denok lerroan jarri eta, lehenengoak egiten duena errepikatuz, gelan zehar jolastuko dugu abestia kantatuz.

AURRETIK DOANAK EGITEN DUENA

Aurretik doanak egiten duena,
aurretik doanak egiten duena,
zirkin eta oihuak eginez,
zirkin eta oihuak eginez,
neska-mutilak aurrera goaz,
neska-mutilak aurrera goaz.

Aurretik doanak egiten duena,
aurretik doanak egiten duena,
zirkin eta oihuak eginez,
zirkin eta oihuak eginez,
aurrean dagoena atzera,
bigarren dagoena aurrera.

(Martin Irizar, Josi Oiarbide, *Hik hasi*)

34. Inurritegiko bidea

Helburu didaktikoak: I.11, II.34

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOGNITIBOAK, MOTORRAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH/B

Materiala: 5. FITXA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA, ADIERAZPEN TXOKOA

PROZEDURA

- *Marrazkian dagoen inurria despistatu egin da. Ilaran zihoala, ez zion begiratu aurrekoak egiten zuenari. Nonbait, guk abestu dugun jolas-kantua ez du ezagutzen! Ai, ai... ikastolara ekarri beharko dugu. Eta noski! Galdu egin da eta, orain, ez daki inurritegira itzultzen bildu duen janariarekin.*

- *Lagunduko al diozu inurriari bere etxerako bidea aurkitzen?*

Arkatzez edo margoz egin aurretik, hatzarekin seinala dezatela, bide egokia zein den ikusteko.

- *Zenbat bide aukera ditzakegu oraingo honetan? Gogoratzen al duzue noiz aurkitu genituen bi bide?*

35. Udazkeneko merienda antolatzen. Elkarrizketa

Helburu didaktikoak: II.4-5, III.16(H)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK, GIZARTERATZEKOAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: ----

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

3. ZEHAZTAPEN MAILA

Udazkeneko fruituekin merienda bat egitea proposatuko diegu haurrei. Merienda egiteko, fruituak erosi egin behar dira. Galdera-erantzunen bidez, hezitzailea saiatuko da erosketen zerrenda egiteko beharra sortzen, haurren erantzunak bideratuz:

- *Nola antolatuko gara merienda egiteko? (Utzi haurrei beren ideiak azaltzen.)*
- *Bakoitzak zerbait ekarriko al dugu etxetik? Zer fruitu?*
- *Eta denek fruitu bera ekartzen dugula gertatzen bada? Zer egingo dugu hori ez gertatzeko?*
- *Aukera bat da bakoitzak bi fruitu mota ekartzea. Aukeratuko al dugu zer ekarriko duen bakoitzak?*
- *Eta etxean aitek eta amak ez badituzte guk aukeratutako fruituak?*
- *Erosteke esango al diegu?*
- *Dendara joaterakoan, nola gogoratuko dugu zer erosi behar dugun?*
- *Zer egiten dute amak eta aitek dendan zer erosi behar duten gogoratzeko?*
- *Eta erosketen zerrenda idatziko bagenu?...*

GARAPENA

Merienda egingo dugula erabaki dugu, eta elkarrizketaren bitartez zerrenda bat idatzi beharra dagoela ikusi da. Orain, horren garapena egitea dagokigu. Egin dugun fruituen zerrendaz baliatuz, fruituen oharrak egingo ditugu.

36. Intxaur-azalak

Helburu didaktikoak: III.17(PLAS)-18(PLAS)-19(PLAS)-21(PLAS)-24(PLAS)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK

Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: librea

Materiala:

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Intxaurren azalak oso material egokiak dira plastikako txokoan, era librean, haurren sormena lantzeko. Utz ditzagun haurren eskura sokak, plastilina, kartoia, kartulinak... eta ikus dezagun, bakarka edo taldeka, zer asmatzen duten. Hainbat gauza egin litezke: intxaur-azalak zintzilikatu, mugikorak egin, plano baten gainean eraikin bat egin, irudi figuratiboak osatu... Guk ideiak eman eta haurrek ekitea baino garrantzizkoagoa da eurek aukera desberdinak asmatzea. Horrela, sormena garatuko dugu.

Hona hemen ideia batzuk:

- zintzilikarioak
- plastilina erabiliz, dortokak egin
- itsasontziak
- ibilbideak
- intxaur eskultura
- intxaurrondoa...

OHARRA: Adin honetako hurrekin kontuz ibili behar da fruitu lehorrekin, eztarrian trabatu baitaitezke.

37. Erosketa-zerrenda

Helburu didaktikoak: III.8(H)-9(H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: Tt
Materiala: 6. FITXA, FRUITUEN IRUDIAK (MATERIAL OSAGARRIA)
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Haur bakoitzak gehienez ere bi edo hiru fruitu mota ekarriko du. Horien izenak erosketa-zerrendan idatziko ditu, ez ahanzteko.

Horretarako, merienda antolatzerakoan zer fruitu mota ekarri behar ditugun zehaztu dugunez, arbelean jarriko ditugu fruituen marrazkiak.

Marrazkiak fotokopiatuta, haurren eskura jarriko ditugu, aukera dezaten, libreki, zer fruitu nahi duten. Ziurtatu behar da fruitu guztiak ekarriko dituztela. (Haur kopurua kontuan hartuta, kalkulatu dugu zenbat fruitu-ale ekarri behar den, eta horren arabera irudi kopurua prestatu.)

Haur bakoitzak aukeratutako fruituen marrazkiak fitxan itsatsiko ditu eta ondoan izena idatzi. Nahiz eta bere erara idatzi, gurasoek egoki interpreta dezakete ondoan marrazkia dutelako.

Hurrek ekartzen dituzten fruituak Txoko txurien antolatuko ditugu txukun-txukun.

38. Fruituak zenbatzen

Helburu didaktikoak: II.21(MAT)-23(MAT), III.25(MAT)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOGNITIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH/Tt
Materiala: 7. FITXA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA, ADIERAZPEN TXOKOA

PROZEDURA

- *Udazkeneko fruituak zein diren ikusi dugu. Gure meriendarako zerrenda prestatu aurretik, fruituak ondo sailkatuko ditugu, sagarrak sagarrekin laranja laranjaekin... fruitu mota bakoitza zaku batean bilduko ditugu.*
- *Zaku batean sagarrak daude, bestean laranja eta bestean gaztainak. Zer da gehien dagoena? Sagarrak? Gaztainak? Laranja?*
- *Zenbatu fruituak eta dagokion zenbakiarekin elkartu.*

3. ZEHAZTAPEN MAILA

39. Jaten ditugunak / jaten ez ditugunak

Helburu didaktikoak: I.12, II.12(I)-17(MAT)-9(MAT), III.9(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOGNITIBOAK, KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH/Tt
Materiala: PAPER HANDIA EDO ARBELA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Gurasoen laguntzaz osatu dugun udazkeneko fruituen zerrenda hartuko dugu, eta hainbat sailkapen egin ditzaten eskatuko diegu haurrei. Hasiera batean, beraiek zer irizpide erabiliko luketen galdetuko dugu (gustukoak izan ala ez, kolorea, forma, neurria...). Azkenik, talde handian horma-irudi bat egin dezakegu irizpide bat kontuan hartuta. Adibidez: *guk jaten ditugunak* eta *guk jaten ez ditugunak*.

Udazkeneko fruituak

Jaten ditugunak	Jaten ez ditugunak
Gaztainak	Ezkurak
Hurak	Pago-ezkurak
Intxaurak	...
...	...

40. Gaztaina-saltzailearen dantza

Helburu didaktikoak: III.15(H)-30(MUS)-31(MUS)-32(MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: MOTORRAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: TH/Tt
Materiala: 4. CDa, 17. ABESTIA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

GAZTAINA SALTZAILEA

Erre, errekin, errekin,
nork nahi ditu sei gaztaina?
Erre, errekin, errekin,
merke-merke alajaina!
Gordinak, lirainak, laster San Martinak,
pinpan, pinpan, danbolinak.
Gordinak, lirainak, laster San Martinak,
pinpan, pinpan, danbolinak.

Dantza hau *Valcarlos* dantza ezaguna markatzen dugun eran egin dezakegu.

41. Tripabero

Helburu didaktikoak: III.15(H)-32(MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: 4. CDa, 18. ABESTIA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

TRIPERO

*Tripero, tripero, tripa bero-bero.
Goserik hiltzerik ez dugu espero.*

Basotik ibili naiz perretxiko bila,
sukalde lan hauetan ez naiz oso abila.
Hurrak eta intxaurrak, alditan gaztainak,
sutan erretzen jarriko dugu danbolina.

*Tripero, tripero, tripa bero-bero.
Goserik hiltzerik ez dugu espero.*

BUKAERA

42. Merienda

Helburu didaktikoak: II.3-4-5
Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA
Gaitasun motak: AFEKTIBOA, GIZARTERATZEKOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Hurrek ekarritako fruituekin merienda antolatuko dugu: pikuak, mahatsa, laranja, sagarrak, mizpirak...

Errazena *mazedonia* antzeko zerbait egitea da. Horretarako, hezitzaileak prest eduki behar ditu ontziak, fruituak mozteko eta zuritzeko tresnak...

Hurrak merienda prestatzen, jaten eta gauzak jasotzen ari diren bitartean, hezitzaileak argazkiak aterako ditu; aurrerago egingo dugun erreportajearen erabiliko ditugu.

On egin!

43. Egindakoa gogoratzeko

Helburu didaktikoak: II.5-26(MAT), III.8(H)-9(H)-13(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: GIZARTERATZEAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH/B
Materiala: 7. eta 8. FITXAK

3. ZEHAZTAPEN MAILA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Gure merienda egin dugu, eta badakigu zer pauso jarraitu behar diren gauzak behar bezala egiteko. Orain, paperean adieraziko dugu egin dugun guztia.

7. fitxan binetak desordenaturik daude; guraitez moztu eta hurrengo fitxan itsatsiko dituzte.

8. fitxan binetak itsasteko lau lauki daude, zenbaki ordinalak markatuta. Biren azpian irudiaren azalpena dator; beste biak osatu behar dituzte: **erosketak egin**, *merienda prestatu*, **merienda jan**, *ontziak jaso*.

44. ERREPORTAJEA: udazkeneko askaria



Helburu didaktikoak: III.6(H)-11(H)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK

Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: ----

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Udazkeneko askariaren erreportajea egingo dugu. Bertan azalduko diegu gurasoei nola antolatu dugun, zer lan egin dugun, eta abar. Argazkiak aukeratuko ditugu, eta zeinek idatzi nahi duen galdetuko dugu.

Unitatearen hasieran azaldu dugun bezala, gelako aldizkariak atal bat baino gehiago izango du. Udazkeneko askaria gelako zereginen atalaren barruan koka daiteke. Hona hemen adibide bat:

Proiektuaren atalaren barruan, izenburua jarriko dugu: *Udazkeneko merienda mundiala!* Azpian, argazki batean hurrak meriendatzen agertuko dira. Argazkiaren azpian, testu labur bat: *Merienda oso goxoa atera zitzaigun.*

Tokia baldin badugu, informazioa zabalduko dugu: *Merienda prestatzen.* Merienda prestatzen ari zireneko argazki pare bat jarriko ditugu, eta, argazki-oinean, argazkiari ondo egokitzen zaion testu labur bat.

Esate baterako, udazkeneko mazedoniaren errezeta jar dezakegu. Horretarako bi aukera daukagu: ikastolan egin dugun mazedoniaren errezeta eman, ala, ohar baten bidez, gurasoei laguntza eskatu eta beren errezeta-proposamen bat bidaltzeko esan.

Denbora-pasen atalean, gaian landu dugun aho-korapilo edo igarkizun bat jarriko dugu.

Aldizkarian nork idatziko duen erabakitzerakoan, ahaleginduko gara aurreko jardueretan parte hartu ez zutenek egitea, lana banatzeko. *Beren erara* idazten

utziko diegu, egin ohi dugun bezala. Guk, azpialdean, “itzuliko” ditugu haien testuak.

Zer idatziko zenuke meriendatzen agertzen garen argazki honen azpian? galdera egingo diegu, eta bi aukera dauzkagu: (1) haien erantzuna idatziko dugu eta, ondoren, beraiek kopiatuko dute; (2) beren erara idazten utziko diegu.

Haurrek idazteko, komeni da orri guztia erabiltzea, hezitzaileak, ondoren, beti izango duelako fotokopiagailuan muntaia egokia egiteko aukera.

Egiten dituzuen aldizkari guztietan, bukaera aldean galdera bat egin diezaiekezue gurasoei, aldizkariari buruzko gutunak bidaltzera anima daitezten. Adibidez: *Polita da gure aldizkaria, ezta? Zer iruditzen zaizue nola hasi diren idazten zuen seme-alabak? Mesedez, bidal ezazue ikastolara zuen iritzia!*

Aurrerago, hurrekin batera planifikatutako inkesta moduko galdekizun bat ere txerta dezakezue.



MENDIA UDAZKENEAN. HOSTOEN ERAKUSKETA

45. Olerkia

Helburu didaktikoak: I.15, III.1(H)-15(H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA
Gaitasun motak: KOGNITIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzeta: LIBREA
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Olerkiekin egin ohi dugun bezala, hau ere txartel batean inprimatuko dugu eta olerkien txokoan gorde.

Berdea, gaztaina kolorea,
 gorria,
 urre kolorea, okrea,
 horia,
 hostoak lurrera,
 udazken zoragarria!

Ulises Wensell (moldatuta)

HASIERA

46. Hostoen aldaketak

Helburu didaktikoak: II.12
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA
Gaitasun motak: KOGNITIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: LIBREA
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: TXOKO TXURIA

PROZEDURA

Ikerketa txiki bat egingo dugu gelan. Hurrei eskatuko diegu, parkean, kalean... lurrean aurkitzen dituzten zuhaitzen hostoak hartzeko eta ekartzeko. Oraindik berde dauden hostoak soka batean zintzilikatuko ditugu, eta, egunero-egunero, zerbait aldatu den behatuko dugu. Denbora pasa ahala, hostoak zimurtuz eta kolorea aldatuz joango dira, eta hori lotuko dugu basoan udazkena iristean gertatzen denarekin.

Egingo dugun esperimentazioa osatzeko, hostoak ondo sailkatuta eta txukunduta, gure inurritegiaren ingurua apainduz ipiniko ditugu.

GARAPENA

47. Hosto guztiak berdinak al dira?

Helburu didaktikoak: I.7, II.16(MAT)-17(MAT)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA
Gaitasun motak: KOGNITIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: LIBREA
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: TXOKO TXURIA

PROZEDURA

Ekarritako hostoen artean, hezitzaileak mota bakoitzetik bat aukeratu eta nolakoak diren aztertuko dugu. Ezagutzeko errazenak direnen artean, batzuk aukeratu eta zein zuhaitzetakoak diren ikasiko dugu.

- Platanondoaren hostoa oso ezaguna zaie hurrei, parke askotan daudelako eta nahiko handiak direlako.
- Gaztainondoaren hostoa, *zerra* bat bezalakoa denez, hurrek erraz bereiztuko dute. Hau ere parke askotan aurki daiteke.
- Haritzarena da, seguruenik, historik ezagunenetakoa. Ertz biribilduak dituzenez, hurrek erraz ezagutzen dute.

Hezitzaileak landutako hosto bakoitza orri batean itsatsiko du, eta azpian haren izena idatziko du. Ondoren, hainbat gauza egin litezke hosto horiekin:

- Egingo dugun inurritegia apaintzeko erabili daitezke.

- Hosto guztiak horman itsats daitezke, konbidatuek ikus ditzaten.
- *Hostoen liburua* egin daiteke, liburutegian uzteko.
- Hosto mota bakoitzerako kaxa bat jar daiteke. Kaxaren tapan hostoa itsatsiko dugu, eta hurrek etxetik, parketik, irtenalditik... hosto gehiago ekartzean, kaxetan sailkatuko dituzte, eta izena ikasiko dute.

Aukera hauek hurrei azal diezaiekegu eta haiekin erabakiko dugu zer egin hostoekin.

48. Abestia: basoko aizkolariak

Helburu didaktikoak: I.12-13, III.15(H)-30(MUS)-32(MUS)-33(MUS)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK

Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, INFORMAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: LIBREA

Materiala: 4. CDa, 19. ABESTIA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

- *Hostoak ez dira denak berdinak. Zuhaitz mota asko daude eta bakoitzak bere hostoa dauka. Zuek batzuk ikasten hasi zarete, baina, ba al dakizue nork ezagutzen dituen oso ongi zuhaitzak eta hosto mota guztiak? Basoan lan egiten duen aizkolariak!*
- *Aizkolariak zuhaitzak moztu egiten ditu, egurra saltzeko eta bizitzeko behar duen dirua irabazteko. Baina, ba al dakizue sekretu bat? Aizkolariak zuhaitz bat moztu behar dutenean, aurretik, barkamena eskatzen diote! Bai, bai! Begira, honela esaten diote: “Guk botako zaitugu eta barka iezaguzu”.*
- *Zuek ere aizkolariak izango bazinaten bezala jolastu nahi al duzue? Horrela bada, hurrengo abestia ondo entzun, eta denak jolastera!*

AIZKOLARIA

Atzo goizean ikusi nuen
gizon bat mendian.
Hantxe zebilen indarrez indar
aizkolaria.
Tik, tiki-tak, tik, tiki-tak,
ari zen mendian.
Tik, tiki-tak, tik, tiki-tak,
aizkolaria.
Tik, tiki-tak.
Tik, tiki-tak.
Tik, tiki-tak.
Tik, tiki-tak.

Aizkorarekin egiten dugun mugimendua erritmo eskema honen inguruan errepika dezakegu: TIK-TAK ti-ki- TAK. Edo beste batzuk asmatu: Ti-ki ti-ki ti-ki TAK

49. Artelana: “Naielen ostadarra”, Ibarrola

Helburu didaktikoak: III.43 (PLAS)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: TH/B
Materiala: 10. FITXA
Jarduera egiteko espazioa:HARRERA TXOKOA, ADIERAZPEN TXOKOA

IBARROLA, Agustin

Artista bizkaitarra (Bilbo, 1930). Bilbon eta Madrilen ikasi ondoren, Oteiza ezagutu zuen, eta frankismoaren aurkako “Atxuri” taldean hasi ziren lanean. Parisen “Equipo 57” taldea sortu eta abstrakzio geometrikoaren mundua esperimentatu zuen (1956). Pixkanaka, garaiko egoera sozial eta politikoaren salaketan oinarritutako pintura bortitz eta epikorako joera erakutsi zuen. Ildo horretatik erabat aldentu gabe, era askotako materiekin esperimentatzen segitu du, eskultura eta pinturazko muralismo artean kokatzen diren lan bereziak eginez. Pinturari dagokionez, Euskal Herrian sustraitutako lanak egin ditu; horietan lantegiak eta langileriaren gaiak nagusitzen dira.

Lan-koaderno honetarako artelan hau aukeratu genuenean, izenburua gaztelaniaz irakurri genuen: *Arco iris de Naiel*. Eta *Naiel* zer ote zen galdetu genion geure buruari: toki-izena izatekotan *Naielgo ostadarra* izan behar zuen euskaraz, baina, pertsona izena balitz *Naielen ostadarra* idatzi behar genuen. Zalantza argitzen ez genuenez, Agustin Ibarrolari deitzea izango zela egokiena erabaki genuen. Erabaki eta egin; horrela jakin genuen Ibarrolak bere biloba baten izena jarri ziola artelanari.

- *Ikusten al duzue nolako basoa dugun argazki honetan? Zuek ezagutzen dituzuen basoak horrelakoak al dira? Zer iruditzen zaizue? Zer gogorarazten dizuete kolore horiek? Ba al dakizue izenburua?*
- *Gustatuko al litzaizueke baso bat horrela margotzea? Posible dela iruditzen al zaizue? Basoa ezin bada, zer erabil dezakegu gure artelana egiteko?*

50. Ikastolako zuhaitzak apaindu

Helburu didaktikoak: I.11, III.17(PLAS)-18(PLAS)-19(PLAS)-20(PLAS)-21(PLAS)-23(PLAS)-24(PLAS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: MOTORRAK, KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: librea
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Urtero lau urteko haurrek ikastola inguruko zuhaitzak (baleude) margotzea zail samarra ikusten dugunez (zeuek baloratu), hainbat adar, ohol, bloke... eta tenperak erabil ditzakezue kolorezko eskultura bat egiteko. Handia eta polita

egiten baduzue, ikastolako atarian koka dezakezue. Txikiagoak badira, erakusketan erakutsi ondoren, hurrek etxera eraman ditzakete, edota ikastolako pasabideak apaintzeko erabil daitezke.

51. Hostoak bereizten

Helburu didaktikoak: I.7, II.16(MAT)-17(MAT)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: MOTORRAK, KOGNITIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: TH/B
Materiala: 11. FITXA
Jarduera egiteko espazioa: ADIERAZPEN TXOKOA

PROZEDURA

Fitxaren goialdean platanondoaren, gaztainondoaren eta haritzaren hostoak agertzen dira eredu gisa, eta azpian izena idatzita dute. Hosto eta izen bakoitza kolore batez inguratua dago. Bat berdez, bestea horiz eta hirugarrena gorritz. Irakurri hosto bakoitzaren izena eta, ondoren, zer egin behar ote duten galdetu beraiei.

Hurrek hostoak inguratu behar dituzte erudian inguratuta dauden koloreaz, Txirritxen agindua jarraitzen badugu, behintzat. Dena dela, beste estrategiaren bat adierazten badute, baloratu beharko da, eta, egoki iruditzen bazaizue, hura ere aplikatzen utziko zaie. Adibidez: berdinak direnak marra batez goiko zirkulura eraman, berdinak direnak multzo batean sartzen saiatu...

Lan hori egiterakoan, ez nahasteko zer estrategia erabiliko luketen galdetuko diegu, eta utziko diogu bakoitzari aukeratutakoa martxan jartzen. Hasieran, margoa indar gutxirekin pasa behar dute, nahasten badira ezabatu ahal izateko. Aplikatutako estrategia ez bada egokia suertatzen, beste batekin saia daitezen animatuko ditugu. Emaizta bera bezain inportantea da bakoitzak aplikatu duen estrategia eta prozesua adieraztea.

52. Hostoekin artelanak egiten

Helburu didaktikoak: I.11, III.17(PLAS)-18(PLAS)-19(PLAS),20(PLAS)-21(PLAS)-23(PLAS)-24(PLAS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: MOTORRAK, KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: librea
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Hurrek erakusketarako sailkapena egin ondoren, soberan gelditu diren hostoekin plastikako lan bat egin dezakete, gela apaintzeko. Plastikako lanak sortzeko, taldeak osa daitezke; gai desberdinak erabiliz, eta, nahi bada, konbinatuz (egurra, hostoak, pinturak...), artelan berriak eta bariatuak sor ditzakete.

3. ZEHAZTAPEN MAILA

Plastikako txokorako eredu gehiago nahi badituzue, Sabine Lohf-en *Nire eskulanak* (*Hostoak*, Elkar) liburuan aurkituko dituzue.

53. Udazkeneko marrazkia: zuk nola ikusten duzu udazkena?

Helburu didaktikoak: III.17(PLAS)-18(PLAS)
Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: LIBREA- BANAKA
Materiala: 12. FITXA, MARGOAK, TENPERAK, PINTZELAK...
Jarduera egiteko espazioa: ADIERAZPEN TXOKOA

PROZEDURA

Jarduera honekin hurrei udazkenaren koloreei buruz gelditu zaien irudia jaso nahi dugu modu grafikoan.

Hostoen azterketa eta sailkapena egin genuen bitartean, kolorearen aldaketaz hitz egin genuen. *Zer kolore hartzen dute hostoek udazkenean? Gustatuko al litzaizueke udazkeneko koloreak margotzea?*

Jarduera hau egiteko oinarrizko hiru koloreak bakarrik erabiltzea proposatzen dugu: horia, gorria eta urdina.

Kolore desberdinak lortzeko konbinazioak egitera bultzatuko ditugu, baina ez dira konbinazio bideratuak izan behar; hurrei bururatzen zaienari emango diogu garrantzia. Era horretan ikusiko dute nola sortzen diren beste kolore batzuk oinarrizko koloreen nahasketatik (urdina + gorria = marroia, horia + urdina = berdea...)



INURRIAK ETA INURRITEGIAK

54. Txirritxen gutuna: inurriak ezagutzen

Helburu didaktikoak: II.12, III.1(H)-8(H)-9(H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK, AFEKTIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: TXIRRITXEN GUTUNA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Txirritxek gutun bat idatzi digu inurriak nolakoak diren azalduz. Halakoetan egiten dugun bezala, hezitzaileak orri batean gutuna idatziko du, eta gutunazal batean sartuko du (zigilu eta guzti), hurrek benetakoa dela pentsa dezaten.

Gutuna irakurri ondoren, Txirritxek planteatzen digun *gelako inurritegiaren* ideia hartu eta haurrak motibatzen hasiko gara.

KAIXO LAGUNOK:

GUSTATU AL ZAIZUE INURRIA ETA TXIRRITAREN IPUINA? NI INURRIEN LAGUNA NAIZ ETA, ASKO EZAGUTZEN DITUDANEZ, ZENBAIT GAUZA KONTATUKO DIZUET. NAHI AL DUZUE?

DAGOENEKO JAKINGO DUZUE INURRIAK INURRITEGIETAN BIZI DIRELA. ZER JATEN DUTEN ERE BADAUZUE. BADA, INURRITEGI GUZTIETAN HIRU INURRI MOTA DAUDE:

BATETIK, MENDIAN EDO PARKEAN IKUSTEN DITUGUN INURRIAK “LANGILEAK” DIRA; HORIEK EZ DUTE ARRAUTZARIK ERRUTEN.

BIGARRENAK “ERREGINAK” DIRA. ARRAUTZAK ERRUTEN DITUZTE ETA ASKOZ HANDIAGOAK DIRA. BAINA NORMALEAN EZ DITUGU IKUSTEN INURRITEGI BAKOITZEAN OSO GUTXI DAUDELAKO ETA, GAINERA, SAKON-SAKONEAN BIZI DIRELAKO.

ETA HIRUGARRENAK “GUDARIAK” DIRA. HORIEK INURRITEGIA DEFENDATZEN DUTE.

IKUSI AL DUZUE NOIZBAIT INURRITEGI BAT? BAI? ETA IKUSI AL DUZUE NOLA SARTZEN DIREN INURRIAK INURRITEGIKO ZULOTXO BATETIK? BA, HEZITZAILEAREKIN MENDIRA/PARKERA JOATEN ZARETENEAN, ESAIOZUE PALA BAT ERAMATEKO, ETA SAIATU ZAITEZTE ERREGINA BAT HARTZEN “GELAKO INURRITEGIA” ANTOLATZEKO.

IKUSIKO DUZUE ZEIN POLITAK DIREN INURRIAK! A, ETA EZ IEZAIEZUE MINIK EGIN, EIN?

AGUR POTTOKIAK. ONDO PASA MAHASPASA! MUA!

TXIRRITX

55. Inurritegia. Txoko txuria

Helburu didaktikoak: I.12-15, II.2-3-.4, III.16(MAT)-17(MAT)-20(MAT)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK

Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA, ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea: LIBREA

Materiala: ETXETIK EKARRITAKOA

Jarduera egiteko espazioa: TXOKO TXURIA

PROZEDURA

Gelan inurritegi bat antolatzen hasiko gara. Horrela, inurriak lur azpian nola bizi diren ikasiko dute haurrek. Horretarako propio saltzen den inurritegi bat erostea proposatzen dugu. Gelako Txoko txurian muntatuko dugu, haurren aurrean.

3. ZEHAZTAPEN MAILA

Zenbat eta bizitoki eta pasabide gehiago izan, orduan eta aukera gehiago emango dizue inurriak nola bizi eta ibiltzen diren ikusteko. (Besteak beste, *Imaginarium* dendetan, edota Kutxa Espazioan aurki daitezke horrelako inurritegiak. Argibideak dakartzate, beraz, ez duzue zailtasunik izango.)

56. Inurritegia. Irtenaldia

Helburu didaktikoak: II.12

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK

Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA, ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala:

Jarduera egiteko espazioa: MENDIA, PARKEA...

PROZEDURA

Irtenaldi bat egingo dugu mendira edo parke batera. Bertan, benetako inurritegi bat aurkitu beharko dugu, eta ahalik eta inurri gehien hartuko ditugu gelara eramateko. Gutxienez 30-50 inurri hartu behar dira, bertako lurra eta guzti; eta Txirritzek azaldu digun bezala, **erregina** bat ere hartu beharko genuke arrautzetatik nola jaiotzen diren ikusi nahi badugu. Horretarako, paper zuri handi bat eramango dugu; pala batez inurritegia zulatzen hasiko gara, lurra paper zuriaren gainean bota, eta inurri guztien artean erregina bat harrapatzen ahaleginduko gara. Zorte on!

57. Inurritegiaren murala

Helburu didaktikoak: I.11, III.18(PLAS)-19(PLAS)-20(PLAS)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA

Gaitasun motak: MOTORRAK, KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH/Tt/B

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

Materiala: MATERIAL OSAGARRIA

PROZEDURA

Hezitzailearen gidaliburuan hiru inurri moten irudiak ditugu. Nahi den neurriera fotokopiatu, eta haur bakoitzari inurri bat emango diegu margotu eta moztu dezan.

Bestalde, orri zuri handi batean inurritegi bat margotuko dugu, bere pasabide eta gelatxoekin, eta horman itsatsiko dugu.

Hurrek inurriak margotzen dituztenean, horman jarritako horma-irudian itsatsiko dituzte.

- *Zenbat erregina jar dezakegu inurritegi bakoitzean? Eta zenbat langile? Eta zenbat gudari?*

58. Gelako inurritegia

Unitatean zehar ikasitako guztia aktibatu egingo dugu gure inurritegia egitean. Alde batetik, badaukagu inurrien izaera langilearen berri, *Inurria eta txirrita* ipuinari esker. Bestetik, inurriak zer jaten duten ikasi dugu (eta askari bat antolatu genuen udazkeneko fruituekin). Amaitzeko, udazkenean hostoak erortzen zirela ikusi dugu; hosto horiekin egindako sailkapena erabili dezakegu gure gelako inurritegia apaintzeko. Animo, eta zorte on!

59. Gelako inurritegiko argazkia

Helburu didaktikoak: II.4-II.5, III.8(H)-10(H)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, GIZARTERATZETZKOAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH/ B

Materiala: 13. FITXA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA, ADIERAZPEN TXOKOA

PROZEDURA

Gure inurritegiari argazkiak aterako dizkiogu (muraleko inurritegiari, nahiz erositakoari), fotokopiak egin eta Adierazpen txokoan utziko ditugu, haur bakoitzak bere fitxan itsatsi dezan.

Argazkiaren azpian idazteko tokia utzi diegu, eta bertan idatziko dute, nork bere erara: GURE INURRITEGIA.



60. Erreportajea: inurritegia

Helburu didaktikoak: III.6(H)-11(H)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA

Gaitasun motak: MOTORRAK, KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA, ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: ALDIZKARIAK, ARGAZKI KAMARA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

Inurritegiari buruzko erreportajea egin dezakegu gure aldizkarirako. Horretarako, gurasoei zer kontatuko diegun erabaki behar dugu. Argazkiak aukeratuko ditugu, eta zeinek idatzi nahi duen galdetuko dugu.

Inurritegiaren erreportajea, udazkeneko askariarena bezala, gelako zereginen atalean koka dezakegu. Adibidez:

Proiektuaren atalaren barruan *Gure gelako inurritegia* jarriko dugu. Azpian, argazki batean gelako haurrak ikusiko dira inurritegiko lanak egiten. Argazkiaren azpian testu labur bat, esate baterako: *Inurrien bizitokia pasabidez beteta dago*.

3. ZEHAZTAPEN MAILA

Inurritegia nola antolatu dugun konta dezakegu erreportajea

Inurritegia antolatzen. Inurritegia egin aurreko prozesuaren sekuentzia azal dezakegu argazkien bidez.

1. Biribilean, Txirritxen gutuna irakurtzen,
2. Mendiko/parkeko irtenaldia (baldin eta erositako inurritegiaren muntaketa egin badugu).
3. Inurritegia muntatzen.

Gelako murala osatzen

Erabilitakoa jasotzen. Jasotzen ari gareneko argazkia, bere testuarekin. Jarraian, ikasitako aho-korapiloa jar dezakegu:

Hiru ziri zoro ziren,
zereren zuloan.
Zure hiru ziri zoro
zelaiko zuloan.

Olerki txiki hori *Denbora-pasak* atalean sar dezakegu, errezetarekin eta abarrekin batera.

61. Erakusketarako gonbidapena (gurasoentzat)

Helburu didaktikoak: III.6-11-12

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA

Gaitasun motak: MOTORRAK, KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: **Tt/librea**

Materiala: 14. FITXA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

Behin materialen sailkapena eginda daukagunean, eta gela apainduta, erakusketarako gonbidapenak prestatzeko mementoa iritsi zaigu. Ohar bat bidaliko diegu gurasoei. Oharra egiteko, fitxa egin behar dugu: bertan adieraziko dugu zeri buruzkoa den erakusketa, noiz den, zer ordutan, non... (Fitxa honen kopia bat gorde dezakezue, urtean zehar egingo dituzuen antzeko jardueretan berrerabiltzeko).

PROZEDURA

- *Gonbidapen bat egingo dugu, gure erakusketa gurasoekin partekatzeko.*
- *Beharrezkoa iruditzen al zaizue etxera oharra eramatea? Zergatik? Nori eman behar diozue? Eta noiz? (Lehenbailehen!)*
- *Berandu eramaten badugu zer gerta daiteke?*
- *Zer idatziko dugu oharrean?*
Oso ondo, txapeldunak!

Denen artean erabakiko dugu zer datuarekin osatu behar dugun fitxa, noizko konbidatuko ditugun gurasoak (hoberena litzateke ostiral arratsalde batean egitea) ordutegia, tokia, eta behar diren oharrak.

Hezitzaileak fitxa handituta izan dezake datuak apuntatzen joateko. Behin denen aretan fitxa bete dugunean, bakoitzak berea beteko du.

Haurrek erabaki dezakete noiz bete fitxa. Gure lana denek bete dezatela kontrolatzea izango da.

62. Erakusketarako gonbidapena (beste gelako lagunentzat)

Helburu didaktikoak: III.6(H)-8(H)-9(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: MOTORRAK, KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: Tt
Materiala: -----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Ikastolako lagun talde bat ere gonbida dezakegu gure erakusketa ikustera. Horretarako, gelako taldetxo bat aukeratuko dugu lagunengana joateko eta gonbidapena ahoz egiteko.

Aurreko konbidapenean bezala, pentsatuko dugu ordutegia (ez da komeni gurasoekin batera egitea) eta eguna, eta taldeak entseatuko du nola eman erakusketaren berri beste gelakoen aurrean.

BUKAERA

Erakusketan ere talde bakoitzak rol bat bete lezake. Talde batek gonbidapena pasa du; beste talde batek azalpenak emango ditu; eta azken talde batek ikasitako olerkia edo kanta antzez/kanta dezake gonbidatuen aurrean.

Denen artean arduratuko dira gelako gauzak zeuden bezala uztera.

63. Ikasnorabideak: zatiak erlazionatuz, osotasuna antzeman

Helburu didaktikoak: SINTESIA
Etengabeko ebaluazioa: GUZTIAK
Gaitasun motak: GUZTIAK
Jarduera mota: SINTESIA
Taldekatzea: Tt/TH
Materiala: -----
Jarduera egiteko espazioa: Harrera txokoa

PROZEDURA

- *Zer moduz, haurrak? Ederra askaria egin zenutena! Eta inurria eta txirritaren ipuina... txatxipirulikoa!*
- *Zer moduz pasa duzue gai hau lantzen? Zer da gehien gustatu zaizuen?*
- *Zer moduz atera zitzaizuen gaztaina-saltzailearen dantza? Ez zen erraza, ezta? Baina lasai, laster ikasiko duzue eta!*

3. ZEHAZTAPEN MAILA

- *Orain, elkar zaitetze talde txikietan lan-koadernoko 1. fitxa aurrean duzuela (gero lan-koaderno osoa berrikus dezakete), eta builarik atera gabe. Bestela, beste taldekoek entzungo baitute esaten ari zaretena eta, momentuz, sekretua da!*
- *Pentsatu eta hitz egin ezazue gai honetan gertatu denaz eta ikasi duzuenaz, geroxeago guztioi kontatuko diguzue eta.*

Haurrak talde handian sintesi-lana egiten ohituta daudenez, oraingo honetan ikasnorabideari talde txikietan berriro beha diezaioten proposatzen dugu. Taldean hitz egin ondoren, besteen aurrean adieraziko dute ikasitakoaren balorazioa.

Balorazio hori egiteko, gidoi txiki bat antola dezakezue beraiekin, taldean zer erabaki behar duten pixka bat orientatzeko. Adibidez:

- *Zer ez genuen ezagutzen?*
- *Zer izan da gustukoena?*
- *Zer izan da gutxien gustatu zaiguna?*
- *Guztiok ikasi dugun abesti bat, olerki bat, igarkizun bat... Zer gehiago jakin nahi genuke honen guztiaren inguruan?*
- *Ondo portatu al ziren gurasoak gure gelan? Parte hartu dute al gaien?*

Hiztegia

Gaiko hiztegia	Ipuineko hiztegia
Gaztaina	Inurria
Hurra	Txirrita
Intxaurra	Alferra
Udarea	Langilea
Mahatsa	Gosea
Pikua	Lagundu
Granada	
Mizpira	
Inurritegia	
Hostoa	
Basoa	

Ipuin gomendatuak

Jarraian, unitatean zehar lan daitezkeen zenbait ipuinen zerrenda aurkezten dugu. Ez dira derrigorrez kontatu beharrekoak, proposamen bat baino ez dira, gure eguneroko baliabideen osagarri.

Ipurditxo bihurritxo, SM
BUBU eta Noaba lehoia, Ibaizabal
Borobiltxo ilargiaren bila, Aizkorri
Beldar gosetia, Ikas

3. ETXE POXPOLA

Gaia: Etxea

Iraupena: azaroko 4 asteak

Sarrera



Unitateko PROIEKTUA: etxe bateko maketa



Proiekturako proposatutako sekuentziak didaktikoak:

1. Munduko etxeak ezagutu.
2. Gure etxea eta etxeak aztertu (sekuentziaren garapenean proposatzen diren jardueren artean, gustukoak edo taldeari hobeto doazkienak aukera daitezke).

Sekuentzia didaktikoaren ebaluazioa :

- Abiapuntua (nondik hasi garen eta zergatik).
- Sekuentziaren garapenean erabilitako baliabide materialek, jarduerak, lan taldeak eta abarrek ondo funtzionatu duten, ala aldaketaren bat egin behar den hurrengo saio baterako
- Sekuentziaren garapenean izan diren harremanei (haurren artean, hezitzailearekin...) eta jarrerari behatu.



Ikasturteko proiektua: GELAKO ALDIZKARIA

Landu ditugun sekuentzia didaktikoei buruzko informazioarekin, aldizkaria osatuko dugu.

Ikusi 2. unitatean ematen ditugun azalpenak.

HASIERAKOAK

1. Horma-irudia: gure etxea

Helburu didaktikoak: I.9, II.1-2-4-5-15, III.2(H)-5(H)-13(H)-16(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK, AFEKTIBOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, ARAKETA
Taldekatzea: TH/Tt/B
Materiala: HORMA-IRUDIA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

Horma-irudiaren aurrean jartzean, IKUSI MAKUSI jolasa proposatzen dugu. Jolas horren bitartez, jardueraren hasiera eta kokapena lortu nahi dugu

JARDUERAREN PLANIFIKAZIOA

Elkarrizketa planifikatzerakoan, honako oinarrizko elementu hauek izango ditugu kontuan:

1. Haur guztien parte-hartzea lortu.
2. Elkarrizketa egiteko espazioa eroso eta komunikazio bultzatzen duena izan behar da: HARRERA TXOKOA
3. Jarduera egiteko denbora aurreikusi.
4. Galderen tipologia ondo pentsatu.
 - Galdera irekiak, baina haurren hizkuntza-konpetentzietara egokituak.
 - Pentsarazten duten galderak.

HEZITZAILEAK BERE ESKU-HARTZEA BERRAZTERTUKO DU

Haurren interesak

- Denbora eman diezu hurrei pentsatzeko?
- Haurren esperientzien kontaketa bultzatu duzu jardueraren bitartez?
- Haurren interesak lehenetsi dituzu?

Erronka kognitiboak

- Galderak errebotatzen dituzu edo erantzuna ematen duzu?
- Hipotesiak, arrazoibideak egiteko, iritziak emateko aukera eskaintzen duzu?
- Jardueraren amaieran, azaldutako ideiak laburbiltzen eta biribiltzen dituzu?

Horma-irudian azaltzen diren elementuen inguruan, Tough-en hizkuntza-funtzioen 3., 4., 5., 6. eta 7. atalak aktibatzen saiatuko da hezitzailea. Funtzio asko direnez, hainbat saiotan lantzea aholkatzen dugu, edota horma-irudien elementu egokienak aukeratzea.

Ikusi TOUGH-en hizkuntza-funtzioen sailkapena.

2. Igarkizuna

Helburu didaktikoak: II.1-2, III.1(H)-2(H)-5(H)-13(H)-15(H)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK

Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: -----

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Horma-irudiko etxeko gelen izenak ikasiko ditugu, eta, ondoren, prest izango ditugu haurrak igarkizun hau asmatzeko. Egin ohi dugun bezala, etxea aitzakiatzat hartuta, igarkizunak asmatzen hasiko dira, hiztegiaren laguntzaz edo gabe. Hiztegiaren laguntza egokia iruditzen bazaigu, hezitzailearen karpetan dauden hiztegi-txartelak banatuko dizkiegu, eta haur bakoitzak, egokitu zaion irudia deskribatuz, igarkizun sinple bat osatuko du.

Egongela, sukalde,
logela ta komun;
barruan bizi gara,
igande ta astegun.

(Etxea)

3. Tradiziozko abestia: *Nire aitak amari*

Helburu didaktikoak: II.4-9, III.15(H)-30(MUS)-32(MUS)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK

Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA, ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: 4. CDa, 23. ABESTIA

Jarduera egiteko espazioa: harrera txokoa

NIRE AITAK AMARI

Nire aitak amari
gona gorria ekarri.
Berriz ere maiteko dio
nire amak aitari.
Nire aitak amari
gona gorria ekarri.

Gona gorri-gorria
zazpi jostunek josia.
Berriz ere maiteko dio
nire amak aitari.
Nire aitak amari
gona gorria ekarri.

3. ZEHAZTAPEN MAILA

4. Ikasnorabideak: osotasunean zatiak bereizi

Helburu didaktikoak: AURKEZPENA
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: GUZTIAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, ARAKETA
Taldekatzeta: TH
Materia: 1. FITXA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

OHARRA: Aurreko unitateetan bezala, lan-koadernoko fitxetan zehar hainbat kokapenetan aurki dezakegu Txirritx. Hori aprobetxatuz, hurrei tarteka fitxa aurkezten diegunean, Txirritx non dagoen galdetuko diegu (*goian, behean, teilotu gainean, erdian, goian ezkerrean, behean eskuinean...*).

PROZEDURA

Txirritx kilkerraren azalpenak:

Kaixo laguntxoak:

Nik badakit ikastolan oso ondo pasatzen duzuela, baina etxean ere oso-oso gustura bizi zarete zuen familiarekin, ezta? Horixe baietz!

Begira, datozen egunetan aztertuko dugu zer nolako etxeak dauden munduan, zer dagoen zuen etxeetan, nor bizi den zuekin... uf! Gauza pila bat ikusi eta ikasiko dugu.

- 1. Hasteko, asko gustatuko zaizuen IPUINA entzungo dugu eta, beti bezala, abestiak, jolasak, olerkiak... ikasiko ditugu.*
- 2. Ondoren, munduko etxe motak ikusiko ditugu. Horiek munduko mapan kokatzen saiatuko gara. Etxe guztiak ez dira berdinak eta! Ala bai? Nork esan du guztiak berdinak direla?*
- 3. Horren ostean, gure etxea eta etxe koen inguruan arituko gara. Zuen etxea nola dagoen antolatuta, zeintzuk bizi zareten eta abar.*
- 4. Zuei bururatzen zaizuen guztia ere ikusi eta ikasi dezakegu*

Bukatzeko, denen artean etxe bateko maketa egiteko unea iritsiko zaigu. Ikasitako guztia erabiliko dugu gure maketa egiteko...

Beno, ondo pasa, mahaspasa! Eta laster arte, Bonaparte!

Txirritx

5. Antzeppen kolektiboa

Helburu didaktikoak: I.6, III.1(H)-12(H)-13(H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK, AFEKTIBOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzeta: TH
Materia: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Ipuinaren antzezpen kolektiboan sartu aurretik, komeni da ipuinaren sarrera bat egitea. Hau da, ipuinean azalduko diren pertsonaiak izendatzea, antzezpen kolektiboan dauden arauak gogoratzea... (Jarduera hau hiru egunetan jarraian egitea proposatzen dugu).

Ikusi jarduera konstanteak: antzezpen kolektiboa (ipuin dramatizatua)

ZAZPI ANTUXUMEAK

	Behin batean, ama ahuntza bere zazpi antxumeekin bizi zen. Goiz batean, amak esan zien:
Ama ahuntza	Umeak, ni lanera noa . Ez ireki atea inori.
	Baina otsoa han zebilen. Eta antxumeen etxeko atea jo zuen.
Otsoa	Kax-kax-kax!
Antxumeak	Nor da?
	Ama naiz. Zabaldu atea.
	Gezurra! Zu ez zara ama! Gure amak ahots leuna dauka. Alde hemendik!
	Grrr! Mmmm... Badakit! Arrautzak jango ditut ahotsa leuntzeko.
	Otsoa oilategi batera joan zen, eta arrautzak jan zituen ahotsa fintzeko. Laster antxumeen etxera bueltatu zen.
Otsoa	Kax-kax-kax!
Antxumeak	Nor da?
	Ama naiz, zabaldu atea.
	Amaren ahotsa da, baina... Erakutsi hanka ate azpitik. Gezurra! Zu ez zara ama! Gure amak hankak zuri-zuriak ditu. Alde hemendik!
	Otsoa oso haserre zegoen. Errotara joan zen irina eroatera hankak zuritzeko. Laster antxumeen etxera bueltatu zen.
Otsoa	Kax-kax-kax!

3. ZEHAZTAPEN MAILA

Antxumeak	Nor da?
	Ama naiz. Zabaldu atea.
	Erakutsi hanka bat. Bai, hanka zuria du amatxok bezala. Atea irekiko diogu.
	Eta antxumeek atea ireki zioten.
Antxumeak	Lagundu! Lagundu! Otsoa da! Jan egingo gaitu!
Otsoa	Hau antxume goxoa. Kris-kraus! Beste antxume bat! Kris-kraus! Seigarrena! Kris-kraus! Mmm...! Bete egin naiz. Lotara noa!
	Ama etxera itzuli zenean, antxumeak ez zeudela ikusi zuen.
Ama ahuntza	Umeak, non zaudete? Umeak! Umeak! Ai ene! Nire umetxoak! Otsoak jan dizkit!
Antxume txikia	Amatxo, amatxo! Ni hemen nago! Ezkutatuta nago! Otsoak nire anai-arrebak jan ditu. Eta lotara joan da.
	Goazen otso gaizto horren bila! Azkar! Guraizeak, haria eta jostorratza behar ditugu.
	Antxumea eta ama otsoaren bila abiatu ziren. Otsoa erreka ertzean zegoen lo.
Otsoa	Zzz! Zurrun! Zzz! Zurruuun!
Ama ahuntza	Otsoaren sabela irekiko dut! Ekarri guraizeak!! Ri-rau!! Antxume bat, bi, hiru... sei!!!!
Antxumeak	Amatxo! Amatxo! Zer poza!!! Paaa, paaa....!
	Orain sabelean harriak sartuko dizkiogu . Harri bat, bi, hiru... sei!! Orain, ezkuta gaitezen!
	Zuhaitz baten atzean ezkutatu ziren. Otsoa esnatu zenean, ondoezik sentitu zen, sabeleko minez.
Otsoa	Hau egarria! Antxume gehiegi jan dut! Ur pixka bat edango dut!

	Otsoa erre kara erori eta ito egin zen.
Otsoa	Ai eneeeee! Itotzen ari naiz! Glu-glu-glu!
	Ahuntz ama eta antxumeak pozik joan ziren etxera.
Abestia abestuz itzultzen dira etxera.	Aa! Aa! Antxumeak aaa! Mendiko txabolan zazpi bizi dira.
	Hala bazan ez bazan, sar dadila kalabazan...

IPUINA AITZAKIA

6. Ipuinaren abestia

Helburu didaktikoak: III.15(H)-30(MUS)-32(MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENEA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: 4. CDa, 22. ABESTIA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Kanta nahiko erreza da memorizatzeko; atalka aurkez dezakegu, kanta ikasteko prozedurari jarraituz (ikus jarduera konstanteak: abestiak).

Behin letra ikasita daukagula, jolas txiki bat egin dezakegu kantatzen dugun bitartean. Haurrek lehenengo bi estrofa abestuko dituzte hezitzaileari begira (antxumeak balira bezala); hezitzaileak otsoaren papera egingo du, eta hirugarren estrofa abesterakoan, haurren atzetik hasiko da korrika harrapatu nahian.

Jolasa egiteko, espazio zabala eta arriskurik gabea izatea komeni da, haurrak oso urduri jartzen baitira mota honetako rol-jolasekin.

ZAZPI ANTUXUMEAK

Aa! Aa!
 Antxumeak aa!
 Mendiko txabolan
 zazpi bizi dira.

Etzetik herrira
 ama joan zaigu.
 Basoan jolastu
 nahi dugu.

Otsoa dator!

3. ZEHAZTAPEN MAILA

Jesus, adio!
Goserik datorrela
antzematen zaio.

7. Olerkia

Helburu didaktikoak: I.15, III.15(H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: JOLASTOKIA

Nire antxume txikiak,
gorri, beltz eta txuriak,
guri-guri nik haziak!
Zoritxarrean hemen etxean
gaur nik bakarrik utziak:
Non zarete, non
nire antxume txikiak?
Nire antxume mutur txikiak,
txuri-gorri, txuri-gorriak,
berdin zazpiak.

(Manuel Lekuona)

8. Ipuinaren elkarrizketa-jolasa atzamarrekin

Helburu didaktikoak: III.1(H)-12(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK, GIZARTERATZEKOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: binaka
Materiala: TXOTXONGILOAK (MATERIAL OSAGARRIA)
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Aurreko unitateetan landutako prozedura bera proposatzen dugu elkarrizketa-jolasa guztietarako. Behin lan-dinamikan trebatuta gaudenean, zuzenean ipuinaren elkarrizketa egin dezakegu.

Ipuin honetarako bi aukera eskaintzen dizkizuegu, baina zuen aldetik beste batzuk topatzera gonbidatzen zaituztegu:

1

<i>Haur guztiak batera hezitzailearen laguntzarekin</i>	Baina otsoa han zebilen. Eta antxumeen etxeko atea jo zuen.
	Kax-kax-kax!

	Nor da?
	Amatxo naiz. Zabaldu atea.
	Gezurra! Zu ez zara ama! Gure amak ahots leuna dauka. Alde hemendik!
	Grrr! Mmmm... Badakit! Arrautzak jango ditut ahotsa leuntzeko.

2

Haur guztiak batera hezitzailearen laguntzarekin	Ama etxera itzuli zenean, antxumeak ez zeudela ikusi zuen.
	Umeak, non zaudete? Umeak! Umeak! Ai! Nire umetxoak! Otsoak jan dizkit!
	Amatxo, amatxo! Ni hemen nago! Ezkutatuta nago! Otsoak nire anai-arrebak jan ditu. Eta lotara joan da.
	Goazen otso gaizto horren bila! Azkar! Guraizeak, haria eta jostorratza behar ditugu.
Haur guztiak batera	Eta antxumea eta ama otsoaren bila abiatu ziren.

9. Antxumeen izenak

Helburu didaktikoak: III.9(H)- II.12(H)-26(MAT)
 Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
 Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK
 Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA
 Taldekatzea: TH
 Materiala: ----
 Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

- Zenbat antxume dira? Bost? Zazpi? Bai horixe, zazpi dira!
- Ba al dakizue zer egin behar dugun? Bakoitzari zenbaki bat egokituko diogu. Zaharrena, 1. (lehenengoa) izango da; hurrengoa, 2. (bigarrena); 3., 4., 5., 6. ... eta txikiena, 7. (zazpigarrena).

Zazpi zenbakiak arbelean goitik behera idatzi ondoren, haurrei lehenengoari zer izen jarriko diogun galdetuko diegu. Botatzen dituzten izenak arbelaren ertz batean idatziko ditugu, eta ondoren, esandako izen guztien artean bozkatu egingo dugu zein izen jarriko diogun erabakitzeko. Aukeratutako izena idatziko dugu 1. zenbakiaren jarraian. Prozedura berari jarraituko diogu gainerako antxumeen izenak erabakitzeko.

3. ZEHAZTAPEN MAILA

Amaitzeko, arbelean dauzkagun zazpi izenak kartulina batean kopiatuko ditugu eta gelako horma batean itsatsiko ditugu, betiere, izenaren aurretik zenbakia jarritz.

Antxumeen izenak			
1. Gorritxo			
2. Burubeltz			
3. Isats-motz			
4. ...			

10. Bost zenbatzen

Helburu didaktikoak: II.24(MAT), III.12(H)-13(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Esaldi bakoitzarekin atzamar bat ukitu, eta, hatz lodira iristean, kilimak edo koxka egin.

Honek txotxak bildu.
Honek sua egin.
Honek arraultza prejitu
Honek pixka-pixka bat probatu.
Eta handi pikaro honek
Den-dena xurruptatu.

(Bularretik mintzora Kantak, poemak, ipuinak)

11. Haurren ipuin-kontaketa

Helburu didaktikoak: III.1(H)-12(H)-13(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: IPUINAREN LAMINAK
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

Haurren ipuin-kontaketa egiteko, antzezpen kolektiboan erabiltzen den testua eta espazioa erabili behar dira (Ipuin dramatizatua hiru aldiz egin ondoren).

PROZEDURA

– Haurrak hezitzailearen aurrean kokatu.

- Isiltasuna lortu (haurrek egindako txartelez balia gaitzke isiltasuna lortzeko)
- Isiltasuna lortu (jarduera martxan jartzeko).
- Haurren arreta erakarri.
- Ipuinaren pertsonaiak eta nondik norakoak gogoratu.

Ipuinaren laminak lehenengo aldiz erakusten zaizkienean, jakin-min handia sortzen dute haurrengan; hori dela eta, haiekin adostu beharko dira jardueraren “arauak”.

Lehenengo lamina erakustean, tarte labur bat utzi, haurrek begira dezaten. Hezitzaileak esango die ipuina kontatzeko laguntza behar duela: *Gogoratzen al duzue ipuina?, Lagunduko didazue ipuina kontatzen?*

Hezitzaileak narratzailearen zeregina zein den azalduko du, eta haurrek parte hartzen badute, narratzailearena beraiek egiten badute, hobe.

Pertsonaien arteko elkarrizketak agertzen direnean, aurrea hartzen utziko diegu haurrei; gogoratu haur guztiek parte hartzea lortu nahi dugula. Ez da nahikoa bakar batzuek parte hartzea, denei eman behar diegu parte hartzeko denbora. Haurrek esaten dituzten esaldiak hitzez hitzekoak ez badira ere, onartuko ditugu, osatu, eta ipuinean txertatu.

HEZITZAILEAREN EGINKIZUNA

Laminekin haurren ipuin-kontakteta egitean, komeni da eskuarekin adieraztea zein pertsonaia ari den hizketan. Horrek kontaktetaren hariari jarraitzen lagunduko die.

- Giro goxoa sortu.
- Denen parte-hartzea bultzatu.
- Moderatzaile-lana egin (arauak betetzeko).
- Ipuina kontatzean, atzean gelditzen direnei denbora utzi.
- Ipuina kontatzeko, antzezpen kolektiboan ikasitako esaldiak eta ipuinen laminak erabil ditzatela eskatu.
- Arreta mantentzeko estrategiak erabili: tonu-aldaketak, haur bati zuzentzaile-lana egin dezala eskatu...

12. Elkarrizketa. Zehar-lerroa: pertsonen arteko harremanak

Helburu didaktikoak: II.5, III.4(H)-5(H)-16(H)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, GIZARTERATZEKOAK, AFEKTIBOAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: IPUINAREN LAMINAK

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

- *Ezagutzen al zenuten ipuin hau? Nork kontatu zizuen? Eta, gustatu al zaizue?*
- *Zuen ustez, zer erakutsi nahi digu ipuin honek?*

3. ZEHAZTAPEN MAILA

- *Amaren esana bete al zuten antxumeek? Eta zuek, amak eta aitak esandakoa betetzen al duzue? Gurasoek esandakoa betetzea garrantzizkoa al da? Zergatik?*
- *Ipuinean agertzen diren pertsonaietatik, zein izan nahiko zenukete?*
- *Nork izan nahiko luke otsoa? Eta ama? Eta antxume txikia?*
- *Zuen ama etxetik kanpora joaten al da lan egitera? Eta zuek norekin geratzen zarete?*
- *Zein da gehien gustatu zaizuen zatia? Zergatik?*

13. Otsoa dator!

Helburu didaktikoak: I.6-7-8-9-10-12-13-14-15, II.23, III.30(MUS)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA

Gaitasun motak: MOTORRAK, KOGNITIBOAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: 4. CDa, 22. ABESTIA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Antxumeen izenak ondo ikas ditzaten, jolas bat antola dezakegu gelan. Abestia lantzean egin dugun moduan, baina, oraingoan, aldagai batekin: gelako haur batek otsoarena egingo du eta gelako izkina batean geldituko da.

Ipuinaren abestia jartzen dugunean, beste haur guztiak gelan zehar saltoka eta brinkoka hasiko dira antxumearena eginez. Musika isiltzean, otsoa etorriko da eta antxume guztiak andereñoak emandako agindua bete beharko dute. Otsoak norbait harrapatzen badu agindua bete gabe, hari egokituko zaio otsoarena egitea. Aginduak era honetakoak izan daitezke:

- *Orain Gorritxo izango gara, eta otsoa etortzen denean, denak mahaiepean ezkutatuko gara.*
- *Orain Burubeltz antxumea izango gara, eta otsoa etortzean, aulkien gainera igoko gara...*

14. Pertsonaiak: zazpi antxumeak. Memoria-jolasa

Helburu didaktikoak: I.12, II.4-5-23(MAT), III.8(H)-9(H)

Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak: MOTORRAK, KOGNITIBOAK, GIZARTERATZEKOAK

Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH/Tt

Materiala: PERTSONAIEN TXARTELAK (MATERIAL OSAGARRIA)

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Oraindik txartel gutxi dauzkagunez, iazko pertsonaien txartelak ere erabil ditzakegu. Zuri-beltzezkoak margotu, edo iazko batzuei (gustukoenak aukera ditzakete haurrek) koloretako fotokopia atera.

Memoria-jolasaren helburua bikoitza da: batetik, hurrek pertsonaien txartelekin jolastea, irudiak eta izen idatziak erlazionatuz; bestetik, txartelen kokapen espazialaren behaketa eta memorizazioa lantzea.

Jolasa bukatzean, utz itzazue bai txartelak eta bai haien izen idatziak hurren eskura: horman itsatsita, kaxa batean fitxategi modura, edota bi modutara.

Ez dugu ahaztu behar ahozko hizkuntza lantzen ari garela, hortaz, behar izanez gero, hizkuntza-eredua emango diegu jolasean aurrera egiteko.

Proposamen bat: hezitzailearen karpetan dauden letra-fitxak kutxa txikitan (pospolo kaxetan, adibidez) gorde daitezke, sailkatuta, eta hurren eskura. Horiekin nahi dituzten hitzak idatz ditzakete: beren izena, lagunenak, hiztegi-txarteletako irudienak... Letra horien erabilera librea nahiz gidatua izan daiteke. Taldekatzeari dagokionez ere, talde txikian, talde handian edo bakarka egin daiteke, egoeraren arabera.

15. Pertsonaien horma-irudia eta izena

Helburu didaktikoak: I.11, III.8(H)-9(H)-27(PLAS)-20(PLAS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: MOTORRA, KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: PERTSONAIEN MARRAZKIAK (MATERIAL OSAGARRIA)
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Ipuinaren pertsonaia nagusiak zazpi antxumeak izanik, horma-irudian zazpien marrazkia egin eta azpialdean “Zazpi antxumeak” idatziko dugu; edota aurretik antxume bakoitzari jarri diogun izena idatziko dugu irudi bakoitzaren azpian. Material osagarrietako irudiak erabiliz, horma-irudia era erraz batean egin dezakezue. Horretarako, marrazkiak handitzeko proiektorea erabiltzea besterik ez duzue behar.

16. Non daude nire antxumetxoak?

Helburu didaktikoak: II.23(MAT)-25(MAT)-27(MAT)-28(MAT)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: MOTORRA, KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: 2. FITXA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Fitxa honetan, ipuinaren bertsiotik aldentzen gara. Ama etxera itzultzean, antxumeak ezkutatuta daude, otsoak ez baititu guztiak jan. Hori dela eta, agian haur batzuk ez dira oso konforme agertuko “ipaina horrela ez delako”. Bestalde, zazpi antxumeren orde, sei marraztu ditugu. Propio egindako bi tranpatxo horien bidez, hurrei buruhauste txiki batzuk sortuko zaizkie; horixe da gure helburua, alegia, halako buruhausteren aurrean nola erantzuten duten aztertzea.

3. ZEHAZTAPEN MAILA

- *Ai, ene! Azokatik itzultzean, amatxok etxe guztia hankaz gora aurkitu du. "Non daude nire antxumetxoak, non daude nire antxumetxoak!" hasi da garrasika.*
- *Ipuinean, otsoak denak jan ditu bat izan ezik, ezta? Baina, fitxa honetan ez! Fitxa honetan artxumeak ezkutatuta daude. Aurkitu, margotu (inguratu, tatxatu...) eta zenbatuko al dituzue? Horrela bada, begira. Antxumeak ezkutatuta dauden leku bakoitzaren ondoan biribil bat ikusiko duzue. Biribil bakoitzean, leku horretan zenbat antxume dauden ezkutatuta idatzi behar duzue. Zuek nahi duzuen eran idatzi. Konforme?*
- *Guztiak al daude? Nola konpon dezakegu arazoa?*

17. San Martin eguna

Helburu didaktikoak: II.9, III.8(H)-9(H)

Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ULERMENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: ----

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

San Martin egunean egitekoa da honako jarduera hau.

Txirritx kilkerak gutun bat eta pakete bat utzi dizkigu gelan, esertzen gareneko korroaren erdian. Hezitzaileak prestatu izango ditu aurretik paketea eta gutuna. Paketearen barnean txerriki batzuk sartuko dugu: urdaiazpikoa, urdai egosia eta txorizoa (denek hamaiketakoa egiteko adina erosi).

Gutunerako, hona hemen eredu bat:

KAIXO, LAGUN MAITEAK:

BA AL DAKIZUE ZER EGUN DEN GAUR? EZ, GAUR EZ DA NIRE URTEBETETZEA! IRAKASLEARENA ERE EZ! EGIA ESAN, OSO ZAILA IZANGO ZAIZUE ASMATZEA.

GAUR SAN MARTIN EGUNA DA. BA AL DAKI NORBAITEK ZER EGITEN DEN EGUN HONETAN BASERRI ASKOTAN? BAI, HORIXE! BASERRIETAN TXERRIA HILTZEN DA, NEGUAN ZEHAR JANARIA EDUKITZEKO. INURRIAK ETA URTXINTXAK BEZALAKOAK DIRA GURE BASERRITARRAK! ETA, BA AL DAKIZUE ZER JANARI EGITEN DIREN TXERRIAREKIN? HORI DA: TXORIZOA, URDAIAZPIKOA...

HORREGATIK, IKASTOLAN EGUN HAU OSPA DEZAZUEN, SORPRESA TXIKI BAT DUZUE PAKETE HONETAN.

ON EGIN!

AGUR

TXIRRITX

18. Abestia: Azaroak 11

Helburu didaktikoak: II.9, III.15(H)-32 (MUS)
Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ULERMENA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA, MOTIBAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: 4. CDa, 30. ABESTIA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Herri askotan izaten da San Martin ermita, edo eliza... eta, normalean, egun horretan ospakizunak izaten dira. Zuen inguruan horrelakorik egiten bada, anima zaitezte eta zoazte hurrekin eguna ospatzera. Horretarako, baligarria izango zaizue tradiziozko abesti hau ikastea, baldin eta zuen herrian ez bada besterik kantatzen.

AZAROAK HAMAIKA

Azaroak hamaika,
 San Martin eguna.
 Hauxe da zoritxarra
 gertatu zaiguna.
 Nonbait guretzat zegoen,
 guretzat fortuna,
 kartzelan pasatzeko
 ez da egun ona.
 Hei!

Txio-txio txoria,
 poztu dadin habia.
 Txio-txio txoria,
 galdu naiz maitea.

19. Olerkia. Erritmo-eskema

Helburu didaktikoak: I.15, III.1(H)-15(H)-33(MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: MOTORRA, KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: TH/Tt
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

- *Otsoak ez du antxume txikia jan aurkitu ez duelako. Besaulki azpian, gortinen atzean, armairu gainean... etxeko toki guztietan begiratu du, baina ez du aurkitu.*
- *Gogoratzen al duzue non zegoen ezkutatuta? Oso ondo, bai jauna! Erlojuan, erloju barruan zegoen ezkutatuta. Horrela bada, begira hezitzaileak zein olerki polita dakien ordulariari buruz. Ikasiko al dugu elkarrekin?*

3. ZEHAZTAPEN MAILA

Tik-tak, tik-tak, ordularia,
tok-tok, tok-tok, amaren deia.
Jaiki naiz eta banao ama.
Tok-tok, tok-tok amaren deia,
tik-tak, tik-tak, ordularia.

(Txalopin txalo, Erein)

Olerkia ikasiko dugu, eta erritmo eskema simple bat landuko dugu. Besoak ordulariaren orratzak balira bezala mugituko ditugu taupada bakoitzean.

Tik - tak tik - tak or- du - la -ri - a,
Tok - tok tok - tok a - ma - ren dei - a.

20. Zazpi antxumeak

Helburu didaktikoak: II.16(MAT)-20(MAT)-21(MAT), III.9(H)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOGNITIBOAK, KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH/Tt/B

Materiala: 3. eta 4. FITXAK

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA, ADIERAZPEN TXOKOA

PROZEDURA

Haurrak biko edo hiruko taldetan banatuko ditugu fitxen behaketa-lana egiteko.

3a fitxa:

- *Zenbat antxume daude fitxa honetan?*
- *Berdinak al dira? (Izena jarri baldin badiezue, izendatu). Zein da handiena? Eta txikiena? Eta ertaina?*
- *Zenbat antxume ziren ipuinean? Guztiak al daude? Asmatuko al dugu guztion artean zenbat falta diren?*
- *Zer esaten du txirritzek? Idatziko al dugu esaten duena?*

Behaketa talde txikian egin eta konpartitu ondoren, txirritzek esaten duena idatzi, irudiak moztu, eta 3b fitxan dagokien lekuan itsatsiko dituzte.

Fitxa egin aurretik, zenbait kontzeptu lan ditzakegu: *handiena* eta *txikiena*, *zein baino zein handiagoa*, *zein baino zein txikiagoa*...

3.b fitxa:

- *Hara! Guk uste genuen aurreko fitxan moztu ditugun antxumeak, bata handiena zela, bestea ertaina eta bestea txikiena. Horrela al zen? Zer iruditzen zaizue?*

- *Aurreko fitxan agertzen ziren antxumeen artean handiena zena orain handiena al da? Ba al daude handiagoak direnak? Zein da orain antxumeen artean handiena?*
- *Eta lehen txikiena zena, orain ere txikiena al da? Ba al daude txikiagoak? Zein da orain txikiena?...*
- *Itsatsi bakoitza bere lekuan, zazpi antxumeak neurriaren arabera ordenatuz. Eta 7 zenbakiaren ondoan, zer idatzi beharko dugu? Ama ezazue... Noski!!*
ANTXUMEAK

21. Zazpi!

Helburu didaktikoak: II.21(MAT)-20(MAT)-21(MAT)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA, PROBLEMEN EBAZPENA
Gaitasun motak: KOGNITIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: TH/Tt/B
Materiala: ZENBAKI MUGIKORRAK
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Haurrak zazpi antxumeekin gora eta behera dabiltzan honetan, zergatik ez landu zazpi kopurua? Gelako objektuak erabiliz, zazpi kopurua landuko dugu eta bere zifra erakutsiko diegu.

Nahi izanez gero, *Hiru txerrikumeak* eta *Zazpi antxumeak* ipuinen pertsonaiak erabiliz, zenbait joko egin ditzakezue.

- Zazpi antxume eta hiru txerrikume aukeratu eta txerrikume bakoitza antxume batekin dantzan jarriko dituzte. *Zer gertatu da? Zenbat antxume gelditu dira bikoterik gabe?...*
- 7 duten zenbakiak asmatzea. Adibidez: *hamazazpi, zazpi ehun, zazpi milioi...* Ea haurrek zein esaten dituzten. Esandako zenbakiak idazten saia gaitzke (zenbaki-fitxak erabil daitezke) eta, horrela, zenbakien idazkerarako irizpideak adieraziko dizkiegu. Idatzi ondoren, txikiena, handiena, ertaina... zein den galdetuko diegu, eta zergatia eskatu.

22. Non da otsoa?

Helburu didaktikoak: I.11, II.29(MAT)-34(MAT)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: MOTORRAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH/Tt/B
Materiala: 4. FITXA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA, ADIERAZPEN PLASTIKORAKO TXOKOA

PROZEDURA

Labirinto honetan bi bide daude otsoarengana iristeko. Antxumeak askatzeko presa dutenez, egokiena zein den galdetuko zaie, eta zergatik. Haur bakoitzak bakarka behatu ondoren, zein den **luzeena** eta zein **motzena** esan behar digute.

3. ZEHAZTAPEN MAILA

Otsoa zurrunga egiten ari dela adierazteko, marrazkilariak zeta batzuk jarri ditu bere ahotik irteten. Galdetu hurrei zer adierazi nahi ote duten.

23. Otsoaren sabela josiko dugu

Helburu didaktikoak: I.11-12, II.26(MAT), III.19(PLAS)-21(PLAS)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA

Gaitasun motak: MOTORRAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH/Tt/B

Materiala: 5. FITXA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA, ADIERAZPEN PLASTIKORAKO TXOKOA

PROZEDURA

Fitxa honen bidez, motrizitate fina eta plastikako zenbait teknika lantzeaz gain (zulatzea, jostea...), zenbakien bidez adierazi dugu zer ordenatan sartu behar den jostorratza zuloetan.

- *Zerekin josi dio ahuntz amak sabela otsoari?* (Jostorratza eta hariarekin).

- *Ba, guk ere frogatuko dugu nola josten den.*

Zuloak puntzoiak egin ondoren, punta biribilduta duen jostorratza eta artilea hartu eta josten hasiko dira (lehenengo zenbakian jostorratza azpitik sartzen badute errazago egingo dute). Dena dela, garrantzizkoena teknika honekin esperimintatzea da, hortaz, ez diogu lehentasuna emango proposatutako ordenari jarraitzeari.

Bestetik, puntzoiak erreka zulatuko dute, eta atzealdetik zelofan papera edo txarol papera itsatsiko dute hatzekin kola emanez. Zulatu nahi ez baduzue, erreka gainean itsatsi daiteke zelofana, horrela uraren erliebearen itxura emanez.

Joste-lana ez dugu zertan fitxa honetara mugatu; plastikako txokoan haurren eskura jar ditzakegu hariak, jostorratzak, oihalak (trama handikoak, zaku-oihala, adibidez), kartoiak (irudidunak edo gabeak)...



Munduko etxeak ezagutu

HASIERA

24. Txirritxen gutuna

Helburu didaktikoak: III.8(H)-9(H)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota: MOTIBAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: GUTUNA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Munduko etxeak ezagutzen hasteko, Txirritxek gutun bat bidaliko digu. Horrelakoetan egin ohi dugun bezala, gutuna txukun idatzi, zigilua duen gutunazal batean sartu, ikastolako helbidea duena, eta gelako sarreran zintzilikatuko digu, haurrak iristen direnean ikus dezaten. Beste aukera bat da ikastolako posta jasotzen duenak ekartzea gelara, haurrak barruan daudela.

- *Hara, eskutitz bat! Norbaitek idatzi egin digu, zer ondo! Baina... norena ote da?*
- *Hori da! Txirritx gure lagunarena da. Zenbat gustatzen zaion Txirritxi eskutitzak idaztea! Ea zer jartzen digun oraingo honetan!*

Hona hemen gutunerako proposamena:

KAIXO LAGUNTXOAK:

ZEIN ONDO ARI ZARETEN PASATZEN IPUIN BERRIAREKIN, E? UI, ZER BELDUR EMATEN DIDAN OTSOAK!

ESKERRAK NIRE ETXEAN EZIN DELA SARTU! LUR AZPIAN DAGO ETA, SARTZEKO, ZULO ESTU-ESTU BAT DAGO. JA, JA, JA! ETA ZUEN ETXEETAN ERE EZ, EZTA? HORIXE, ZUEN ETXEAK ADREILUZ EGINDAKOAK DIRA ETA!

KONTURATU AL ZARETE ETXE GUZTIAK EZ DIRELA BERDINAK? BATZUK ALTUAK DIRA, SOLAIRU ASKOREKIN; BESTE BATZUK BAXUAK, BESTE BATZUEK EZ DAUKATE TEILATURIK... ETA KONTURATZEN BAZARETE, HERRIALDE GUZTIETAKO ETXEAK ERE EZ DIRA IGUALAK...

EZAGUTZEN AL DITUZUE BESTE MOTATAKO ETXEAK? BAI? EZ?

BENO, BENO, BENO.... GOAZEN BADA, DENON ARTEAN, ZENBAT ETXE MOTA EZAGUTZEN DUGUN IKUSTERA. KONFORME? AGUR, LAGUNAK. BESTE BAT ARTE!

TXIRRITX

25. Elkarrizketa

Helburu didaktikoak: II.3-4-9, III.16(H)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK

Jarduera mota: ARAKETA, MOTIBAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: ----

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

3. ZEHAZTAPEN MAILA

Elkarrizketaren bidez, munduko etheen gaia aurkezteaz aparte, gaiari buruz daukaten informazioaz baliatuko gara lanean hasteko.

- *Txirritzek esan digun bezala, etxe mota asko dago munduan. Zein ezagutzen duzue zuek? Nolakoak dira? Bereizgarriren bat ba al dute etxe horiek?*
- *Adibidez, Asiako leku batzuetan ur gainean eraikitzen dituzte etxeak; Amazonas ibai handiaren inguruan belarrez eta egurrez egindako txaboletan bizi dira; Marokon eraikin zuri-zuriak egiten dituzte, teilaturik gabeak...*
- *Ikusi al duzue zuek horrelako eraikinik?*
- *Eta Euskal Herrian, denok bizi al gara eraikin mota berdinean?*
- *Zuetako inor izan al da iglu batean?*
- *Eta lastozko txabola batean?*
- *Nolako etxeak daude gure herrian?... solairu askotako etxe altuak, etxe baxuak, baserriak.*
- *Zu, Ander, nolako etxean bizi zara? Zenbat solairu ditu? Zenbatgarren solairuan bizi zara? Eta zu Maddi?...*
- *Nola deitzen zaie animaliak zaintzen dituzten etxeei?*
- *Zuetako norbait bizi al da baserrian? Ezagutzen al duzue baserriren bat?*
- *Zer desberdintasun ikusten duzue baserri baten eta zeuen etxearen artean?*

HEZITZAILEAK BERE ESKU-HARTZEA BERRAZTERTUKO DU

Haurren interesak

- Denbora eman diezu hurrei pentsatzeko?
- Haurren esperientzien kontaketa bultzatu duzu jardueraren bitartez?
- Haurren interesak lehenetsi dituzu?

Erronka kognitiboak

- Galderak errebotatzen dituzu edo erantzuna ematen duzu?
- Hipotesiak, arrazoibideak egiteko, iritziak emateko aukera eskaintzen duzu?
- Jardueraren amaieran, azaldutako ideiak laburbiltzen eta biribiltzen dituzu?

GARAPENA

26. Munduko etxeak ezagutzen. Txoko txuria

Helburu didaktikoak: I.12-15, II.2-3-II.16-4, III.16(MAT)-17(MAT)-20(MAT)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK

Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA, ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea: LIBREA

Materiala: MUNDUKO MAPA, BIDAIETAKO ARGAZKIAK...

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Munduko etxeak ezagutzea helburu dugun gai honetan, beste hainbat lanketa egin litezke gaiarekin loturik.

Munduko etxeak ezagutzeko, etxe horien herrialdeak identifikatu beharko ditugu. Horretarako, munduko mapa bat eskuratuko dugu. Herrialdea identifikatuko dugu, mapan kokatu, eta hangoen bizimodua ezagutzeko oinarritzko informazioa eskuratuko dugu. Marterial horrekin guztiarekin Txoko txuria hornituz joango gara.

Ekarrizketan atera diren interesen arabera antolatu eta bideratuko dugu gure lana. Esate baterako, gelan etorkin-familia bat baldin badago, gelara gonbida genezake haien herriko etxeak nolakoak diren azal dezaten. Aurrerago azalduko dugun bezala, atzerritarrik baldin badago gure haurren familietan, ikastolako lan-dinamikan parte hartzeko aprobetxatu behar genuke.

Bestetik, gure artean ere era askotako etxeak daude: badaude baserriak, etxebizitza altuak, etxe adosatua, familia bakarreko etxebizitzak... (laz ere etxeen bilduma osatu bazenuten, hura bera erabili daiteke gure artean dauzkagun etxeak gogoratzeko.)

27. Gurasoentzako gutuna

Helburu didaktikoak: I.2, III.8(H)-9(H)
Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: -----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Gaur egun, gure haurren familietan gero eta etorkin gehiago dauzkagu. Interesgarria litzateke senide horien inplikazioa lortzea eta haien herrialdeen irudia ekarri ahal izatea ikastolara. Laguntza paregabea izan litezke haien herriak mapan kokatzeko, hango bizimoduaren berri emateko, gure lanerako interesgarria zaigun informazioa emateko (munduko etxeak)...

Ez da erraza, jakina, familiak inplikatzeko halako jarduerak egiteko, baina, lortuz gero horrelako ekimen bat martxan jartzea gure gelan, emaitzak ezin hobeak izan daitezke.

Munduko etxeen azterketarako, badago beste informazio-iturri baliagarri bat: haurrek edo beren senideek oporretan bisitatu dituzten herrietan egindako argazkiek edo bideoek beste etxe mota batzuen irudiak ekar diezazkigukete.

Hona hemen gurasoei bidaltzeko gutun eredua:

GURASO AGURGARRIAK

HEMEN NAUZUE BERRIRO ERE ZERBAITEN ESKE.

3. ZEHAZTAPEN MAILA

BESTE BATZUETAN EGIN IZAN DUDAN BEZALA, ZUEN LAGUNTZA BEHAR GENUKE GELAN EGIN NAHI DUGUN LAN BAT EGITEKO: **MUNDUKO ETXEAK EZAGUTU.**

EGUN HAUETAN MUNDUAN ZEHAR DAUDEN ERA BATEKO ZEIN BESTEKO ETXEAK AZTERTZEN ARI GARA, ETA HAINBAT JARDUERA ETA ELKARRIZKETA EGIN DITUGU HORREN INGURUAN.

AFRIKAKO TXABOLAK, TRIBUETAKO ETXEBIZITZA XUMEAK, HIRI HANDIETAKO ETXE-ORRATZAK, GURE INGURUETAKO ERAIKINAK... GURE ZERRENDA OSATZEKO OSO BALIAGARRIA IZAN DAITEKE ZUEN EKARPENA.

HORTAZ, HONAKO HAU ESKATU NAHI DIZUEGU: ZUEK EZAGUTZEN DITUZUEN EDOTA BIDALETAN IKUSI DITUZUEN ETXEEI BURUZ DUZUEN INFORMAZIOA GUREKIN PARTEKATZEA: ZUEN **ARGAZKIAK, BIDEOAK EDO ZUEN AZALPENAK ETA ESPERIENTZIAK.**

ANIMA ZAITEZTE! DENON ARTEAN GAUZA ASKO IKAS DITZAKEGU!!

MUXU HANDI BAT.

TXIRRITX

28. Munduko etxeen horma-irudia

Helburu didaktikoak: II.34(MAT)-35(MAT)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, GIZARTERATZKEKOAK, KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA, ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea: Tt

Materiala: MUNDUKO MAPA, PAPER ZURI HANDIA, MARGOAK, KOLA...

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Munduko mapa marraztuko dugu orri handi batean. Horretarako, hemen proposatzen dugun mapa erabil dezakegu, proiektore baten laguntzaz handituz eta paper zuriaren gainean kontinenteen silueta marraztuz. Kontinenteen izena idatziko dugu.

Haurrak taldeka, lortu dugun informazioa mapan kokatu beharko dute, eta zein kontinenteren dagokion esan.

IRUDIA:

Munduko mapa, sei kontinenteak kolorez bereiztuak, eta horien izenekin.

29. Taldeak sortu lana aurrera ateratzeko

Maparen azterketa egin ondoren, mapa bera erabil dezakegu taldeak sortzeko. Lana antolatzeko, hona hemen taldeak sortzeko aukera bat:

(1) Ipar-amerika (2) Hego-amerika (3) Europa (4) Afrika (5) Asia (6) Ozeania

Talde bakoitzak mapako kontinente baten ardura izango du, eta horri buruzko informazioa jasotzen ahaleginduko da. Kontinenteren bati buruzko informazioa falta bazaigu, interneten bila dezakegu, bai eta argazkiak ere.

Bestalde, talde bakoitzari bere mapa zatia eman diezaiokegu, eta, bukaeran, mapa osoaren irudia duen horma-irudiaren gainean itsatsiz joango dira, mapa osatuz.

30. Munduko etxeak ezagutzen

Helburu didaktikoak: I.7, II.13-16(MAT)-24(MAT)-25 (MAT)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, GIZARTERATZEKOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA, ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: TH/Tt
Materiala: 6. FITXA
Jarduera egiteko espazioa: ADIERAZPEN TXOKOA

PROZEDURA

Fitxa honen bitartez, hainbat irudi eskaintzen ditugu gure munduko etheen azterketarako. Txoko txurian materiala nahikorik bilduko ez balitz, irudi horiek erabil litezke, edo, bestela, bildutako materiala osatu.

Aurkezten ditugun zortzi irudi horietan, munduan zehar topa ditzaketan hainbat etxebizitza ikusteko aukera izando dute haurrek.

Lehenengo behaketa talde handian egingo dugu. Hainbeste irudi izanik, zaila gerta lekietan haurrei bakoitzaren irakurketa egitea, hortaz, zenbakien laguntzaz, banan banan joango gara argazki bakoitzaren azalpenak eginez.

Fitxa aztertzeke modurik erakargarriena elkarrizketa bideratzea izango da, haurren interesak eta bizipenak denen artean partekatuz:

- *Zuen etxean biziko ez bazina, hauetako zer etxetan gustatuko litzaizuke bizitzea?*
- *Nor biziko da 7. argazkiko jauregian? Familia antzekoak biziko al dira 7. argazkiko jauregian eta 4garreneko etxetxoan? Zertan izango dira desberdinak?...*

Gai honetarako oso interesgarria izan daiteke *¡Buenos días mundo!* liburua (Beatrice Hollyer, Ed. Intermón Oxfam). Bertako hainbat erreferentzia egin ditzakegu, etxe horietan ematen den bizitza uler dezaten.

31. Entzunaldia

Helburu didaktikoak: I.7, III.26(MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: LIBREA
Materiala: 4. CDa, 31. ABESTIA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

3. ZEHAZTAPEN MAILA

Entzungo dugun musika euskaldun batek konposatutakoa da: Jesús Guridi. *El caserío* obraren preludiotik aukeratutako atal bat da.

Guridi, Jesús. Musikari arabarra (Gasteiz, 1886 – Madril, 1961). Hamar urterekin musika idazten hasi zen, eta hamahirurekin bere obrez osatutako pianorako kontzertu bat eskaini zuen. Urte berean, Lore-Jokoetan saritua izan zen. Piano, harmonia, kontrapuntu, organo, konposizio eta abarreko ikasketak eta praktikak Europan zehar egin ondoren, Bilbora joan zen. Eragin frantsesa eta alemaniarra nabaria da bere lanetan. Hezitzaile eta organojole izateaz gainera, konposatu ere egin zuen; pianorako eta organorako lanak, lan sinfonikoak eta operak, zartzuelak, koralak... konposatu zituen (*Amaya; El caserío; Mirentxu; Diez melodías vascas; Leyenda vasca*).

Munduko etxebizitzak ezagutzen ari garen honetan, ez ditugu ahaztu behar gure inguru hurbilean daudenak ere. Euskal Herrian baserriak badu oraindik garrantziarik landa-eremuetan. Eta entzungo dugun musika piezan, hain zuzen ere, baserriari egiten zaio erreferentzia. Musika entzuten dugun bitartean, baserriari buruz daukagun kontzeptua irudika dezakegu. Bitarte horretan, *Ekilorea* ipuina ere (Euskal mitologia) konta dezakegu.

BUKAERA

32. Horma-irudia maketa apaintzeko

Munduko etheen horma-irudia bukatutakoan non jarriko duzuen erabaki behar duzue. Gelatik kanpo jar daiteke, gainerako haurrek ikus dezaten egin dugun lana. Aurrerago, etxearen maketa eginda daukagunean, hura apaintzeko jar dezakegu, fondo modura (eta herrialde jakin bateko etxebizitza baten maketa egiten badute, hari dagokion herrialdea nabarmenduko dugu mapan).

Ahaztu gabe, prozesuan zehar argazkiak ateratzen joango gara, eta azken emaitzarenak ere bai. Horrek lagunduko digu, batetik, gure lanaren berrikusketa eta balorazioa egiten, eta, bestetik, aldizkarirako erreportaia egiteko balioko digute.

33. Abestia: *Goazen, bai, etxera*

Helburu didaktikoak: III.15(H)-32(MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA, MOTIBAZIOA
Taldekatzea: librea
Materiala: 4. CDa, 25. ABESTIA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Errutinazko kanta da. Egunero, ikastolatik etxera joaterakoan abesti hau abestuko dugu.

GOAZEN, BAI, ETXERA

Goazen, bai, etxera
 ondo jan eta lo egitera.
 Bihar berriz etorriko gara
 gaurko jolasa jarraitzera.
 Goazen, bai, etxera
 ondo jan eta lo egitera.

34. Artelana: Chillida, “Gure aitaren etxea”

Helburu didaktikoak: I.11, II.9, III.1(H)-16(H)-29(PLAS)-21(PLAS)-23(PLAS)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA, ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea: librea

Materiala: 7. FITXA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

- **Eduardo Chillida.** *Eskultore honen biografia ezagutuko dugu.*
- *Ba al dakizue zer den pertsona baten biografia? Ez? Zer uste duzue izan daitekeela?*
- *Ba, pertsona batek, jaiotzen denetik, bere bizitzan zehar egiten dituen gauzen kontakizuna da biografia. Pertsona horren hainbat ezaugarri kontatzen ditu: non eta noiz jaio zen, zenbat urte dituen, zer ikasketa eta zer lan egin dituen...*
- *Beno, bada, honako hau da Chillidaren biografia (hezitzaileak ikusiko du testua moldatzea komeni den ala ez):*

Chillida, Eduardo. Eskultore gipuzkoarra (Donostia, 1924-2002). Arkitektura ikasten hasi zen, baina utzi eta eskulturari heldu zion. Parisen ikasi eta erakusketak egin zituen (1948-1951). Euskal Herriko eta mundu osoko erakusketa garrantzitsuetan parte hartu du: Madril, Milan, Chicago, Venezia, Pittsburgh, New Yorkeko Guggenheim museoa, Bilboko Guggenheim museoa, Donostia, Lizarra, Durango, Sevilla... Bere obra asko Europa eta Ameriketako museotan eta hirietan daude. Oteizarekin batera, euskal artisten belaunaldi berriari hasiera eman zion. Bere obretan sormenak adina garrantzia du erabilitako materialak. Burdina da gehien lantzen duen materiala, egurra, harria eta hormigoia ere erabili dituen arren.

Chillidaren hainbat eskultura eta lan ditugu Euskal Herriko toki askotan. Lan-koadernoan txertatu duguna Gernikan dago, beraz, inoiz bertara gerturatzeko bazarete ikustera hurbil zaitezke.

Zuen herrian, edo oso urrutira joan gabe, Chillidaren lanik baduzue, oso interesgarria litzateke bertaratzea eta zuzeneko behaketa bideratzea. Eskulturaren izenburua (baldin badu), non dagoen kokatuta, noiz jarri zen, zergatik (jakiterik badago)... Artelana ikusi ondoren, eskulturaren marrazkia egin dezakete hurrek; edo, oraindik hobe, bolumenean eraiki dezakete, nahi diren materialak erabiliz: kartoia, egur zatiak, buztina, paper-pasta, plastilina...


3. ZEHAZTAPEN MAILA

Chillidaren lanik ez baduzue ere, herrian edo auzoan dauden eskulturen behaketa egin dezakezue. Lan monografiko interesgarria egin daiteke eskultura horien hainbat alderdi landuz (kokagunea, egilea, haren biografia...) eta txosten batean bilduz.

Jarduera honi bukaera borobila emateko, hona proposamen bat: Txillidalekun bisitaldi bat egitea. Haurrentzako programa bat daukate garatuta (www.museochillidaleku.com/Eskola-museora).

Eskulturekin jolasean (4-7 urte)

Haurrei jakin-mina sortzeko, hainbat jolas egiten dira museora bisita egin aurretik, pertzepzioa eta irudimena kitzikatzeko jolasak, alegia. Gero, ibilbide ludiko bat egiten dute Chillida-Lekun (ordubetekoa, gutxi gorabehera), beren hezitzaile edo laguntzaileekin batera. Ibilbide horretan, hainbat eskultura aurkitu beharko dituzte, lorratzei jarraituz, eta eskulturen hizkuntza beren kabuz esperimendatzeko aukera izango dute...



Gure etxea eta etxeoak

Haur bakoitzak bere etxearen eta etxeoen aurkezpena egingo du. Horretarako, hainbat material eta informazio bilduko dugu: haurraren autoerretrotoa eta azalpena, etxearen marrazkia, etxeoen datuen bilduma eta etxeo baten biografia.

HASIERA

35. Txirritxen gutuna

Helburu didaktikoak: I.1-5-11, II.4, III.1(H)-8(H)-9(H)-27(PLAS)-28(PLAS)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENEA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH/Tt/B

Materiala: 8. FITXA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

Txirritxen azalpenak:

KAIXO LAGUNOK:

CHILLIDAREN BIOGRAFIA ETA "GURE AITAREN ETXEA" ESKULTURA EZAGUTU DUZUE. POLITA, EZTA?

ZUEN ETXEAK NOLAKOAK DIREN ERE IKUSIKO DUGU. BAINA, NOR BIZI ZARETE ETXEAN? EZAGUTZEN AL DUZUE ZUEN AMAREN ETA AITAREN BIOGRAFIA? ETA, ZUEN FAMILIAKO PERTSONEN IZENA ETA ADINA?

UNITATEAREN BUKAERAN EGINGO DUGUN MAKETA DENONA IZANGO DA, BAINA, GUTAKO BAKOITZAREN ETXEA ETA ETXEKOEN

AZTERKETA EGITEA OSO INTERESGARRIA IZANGO DELA IRUDITZEN ZAIT.

HORI GUZTIA LANTXO BATEAN BILDUKO DUGU. LANA BUKATZEN DUGUNEAN, GELAN DENEN AURREAN AURKEZTUKO DUGU BAKOITZAK EGIN DUENA, DENEK DENONA IKUSTEKO. ONDO IKUSITA DAUKAGUNEAN, ZUEN ETXERA ERAMANGO DUZUE SENITARTEKOEI ERAKUSTEKO. IKUSIKO DUZUE NOLA GUSTATZEN ZAIEN!

LAN HORIEK EGINGO DUGUN MAKETAREN INGURUAN JARRIKO DITUGU. DENEK JAKINGO DUTE, HORRELA, NOR GAREN ETA ZER INFORMAZIO BILDU DUGUN GURE ETXEKOEI BURUZ.

HASTEKO, “NI ETA NIRE ETXEKOAK” JARTZEN DUEN FITXA HONETAN ZUEN MARRAZKIA EGIN BEHARKO DUZUE. ONDOKO GLOBOAN IDATZIKO DUZUE ZUEN IZENA, ETA ZUEI BURUZKO ZERBAIT, BESTEEK JAKITEA NAHI DUZUENA. KONFORME? AUPA NESKA-MUTILAK!

TXIRRITX

PROZEDURA

Fitxa honek eskatzen duen lana egiteko, bi une bereiztu behar dira: batetik, marrazkia egitekoa, eta bestetik, testua planifikatzekoa eta idaztekoa.

Beren buruaren marrazkia. Nahi duten modura egingo dute: gorputz osokoa, aurpegia... baina, horretarako, ispiluaren aurrean jartzera eta eskuekin aurpegia ikutzera gonbidatuko ditugu. Marrazkia bukatzean, marrazki guztiekin batera-jartze bat egingo dugu, ea asmatzen duten nor den nor.

Testua. Lehenik eta behin, egingo dugun lana zehaztuko dugu hurrekin batera. Fitxa hau etxekoen aurkezpen-lanerako azala izan daiteke. Horregatik, nork bere buruaren marrazkia egingo du.

Bestetik planifikatzeko unean, bokadiloan zer informazioa emango den zehaztu behar da. *Ni ... naiz* tartean nork bere izena idatziko du. Eta ondoren zer? Zenbat urte duen, non bizi den, zein den bere ikastola... (zabalik uzten dugu zuek aukera dezazuen).

Testualizatzerakoan, *beren erara* idazten utziko diegu, eta gero galdetu ea zuen erara jartzea nahi duten. Edozein kasutan, ez da komeni beti guk eredia ematea. Haurraren berezko ekoizpenari behatu nahi badiogu eta bere bilakaera aztertu, beharrezkoa zaigu *beren erara* idatz dezaten animatzea.

36. Gurasoentzako gutuna

Helburu didaktikoak: I.5, III.8(H)-9(H)
Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA
Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: GUTUNA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

3. ZEHAZTAPEN MAILA

GURASO AGURGARRIAK:

BESTE BEHIN ERE, ZUEN LAGUNTZA ESKATZEKO IDAZTEN DIZUET.

ETXEAREN GAIA ARI GARA LANTZEN UNE HONETAN, ETA BEREN ETXEARI ETA ETXEKOEI BURUZKO LAN BAT EGINGO DUTE ZUEN SEME-ALABEK. HORRETARAKO, ZUEN **FAMILIAKO ARGAZKI BAT** ESKURATU BEHAR GENUKE; AHAL BADA, FAMILIA OSORIK: GURASOAK, SEME-ALABAK, AITONA-AMONAK...

BESTALDE, GAI HORREN INGURUKO ZENBAIT FITXA ERAMANGO DITUZTE ETXERA, ETA ZUEN LAGUNTZA BEHARKO DUTE HORIEK OSATZEKO. ERRAZ EGINGO DITUZUE.

MILA ESKER ZUEN LAGUNTZAGATIK!

Oharra: gaur egun geletan dauzkagun familiak ez zaizkio beti ohiko eredu bakarrari egokitzen. Mota askotako familiak daude. Zuen esku usten dugu gutunaren egokitasuna baloratzea, eta kasuan kasuko moldaketak bideratzea.

37. Aho korapiloa: *tx* fonema

Helburu didaktikoak: I.15, III.7(H)-8(H)-15(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: librea
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Maritxu, Maritxo!
Norena da
Txokoko etxetxo txikitxo
Politxo hori?

- *Zein da aho-korapilo honetan gehien entzuten dugun soinua?*

38. Eta zure etxea nolakoa da?

Helburu didaktikoak: II.2-3, III.16(H)-26(MAT)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

- *Nolako etxeak daude gure herrian?... etxe altuak, etxe baxuak, baserriak.*
- *Zu, Ander, nolako etxean bizi zara? Zenbat solairu ditu?*
- *Zu zenbatgarren solairuan bizi zara?*
- *Eta zu Maddi?...*
- *Zuetako norbait baserrian bizi al da?*

...

39. Hau da nire etxea

Helburu didaktikoak: I.11, III.27(PLAS)-28(PLAS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK, AFEKTIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH/B
Materiala: 9. FITXA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Haur bakoitzak bere etxearen marrazkia egingo du. Hurrekin batera erabakiko dugu etxearen barrualdea ala kanpoaldea marraztuko dugun, bai eta jendearekin edo jenderik gabe egin.

Modu honetan, gure buruaren eta gure etxearen aurkezpena osatuta izango ditugu.

40. Abestia: *Leihotikan begira*

Helburu didaktikoak: I.6, III.14(H)-15(H)-30(MUS)-32(MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: librea
Materiala: 4. CDa, 27. ABESTIA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

LEIHOTIKAN BEGIRA

Leihotikan begira
egon nintzen goizetik,
mila soinu desberdin
zetozkidan kaletik.

Kanpaiak elizetan!
Din-dan-din-din-dan!
Katuak teilatuan!
Miau-miau-miau-miau-miau!

Leihotikan begira...

Txakurrak leihopean!
Uau-uau-uau-uau-uau!
Danborrak desfiletan!
Tan-tan-tarran-tan-tan!

Leihotikan begira...

41. Familietako argazkiei behatzen

Helburu didaktikoak: I.5, II.14, III.13(H)-23(MAT)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: librea
Materiala: 10. FITXA, ETXETIK EKARRITAKO ARGAZKIAK
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Haur bakoitzak etxetik ekarritako argazkia hartu eta bere familiaren aurkezpena egingo du guztion aurrean: nor agertzen den argazkian, zer izen duten, haiekiko zer ahaidetasun duten (ama, aita, lehengusua, neba...)...
Etxean zenbat kide bizi diren ere kontatuko dugu: nork duen anai-arreba kopuru handiena, nork txikiena...

42. Igarkizuna

Helburu didaktikoak: II.4, III.1(H)-3(H)-5(H)-12(H)-15(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOA
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: librea
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Etxeko senideen argazkia eskatu genuenean, aitona-amona agertzea eskatzen genuen. Argazkiei begira gaudenean, igarkizuna planteatzeko une egokia da.

Aita da
baina ez gurea.
Ona da
eta ez gaztea

(aitona)

43. Zaharragoa-gazteagoa. Zehar-lerroa: helduekiko balorazioa eta errespetua

Helburu didaktikoak: I.2-I.5, II.5, III.13(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, GIZARTERATZEKOAK, AFEKTIBOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: librea
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Adin honetako haurrek *handia* eta *txikia* kontzeptuak erabili ohi dituzte. Familiako kideak lantzen ari garenez, aprobetxatuko dugu *zaharra/gaztea*, *zaharragoa/gazteagoa*, *zaharrena/gazteena* eta antzeko kontzeptuak aipatzeko.

- Nor da zaharragoa, aita ala aitona? Zergatik?

- *Eta zein uste duzue dela gazteagoa, ama ala amona?*

- *Etxean bizi zaretenon artean zein dira gazteenak? Eta zein zaharrenak?*

Honetaz ari garela, adineko pertsonetikiko errespetuzko eta balorazio-jarrerak lantzea aproposa litzateke. Aitona-amonak gure gurasoen gurasoak direla ulertzea kostatzen egiten zaie: gazteak izan zirela, garai batean lanera joaten zirela (batzuen aitona-amonak oraindik lanean jarraitzea oso posible da)... Haurrek dakitenetik abiatuz, informazioa bil dezakegu honi guztiari buruz. Zenbait kasutan, aitona-amonak zaintzen dituzte bilobak gurasoak lanera joaten direnean. Haurrak animatuko ditugu aitona-amonari galdetzeraz nolakoak ziren txikiak eta gazteak zirenean, nola bizi ziren...

Zaharren egoitza ezagutzera ere joan gaitzake. Abesti batzuk presta litezke bertakoei abesteko, eta, ipuinak edo pasadizoak kontatzen iaioa den zaharrik ezagutzera gero, alde zuretik eska dakioke kantu edo istorio labur bat kontatzea haurrei.

44. Gure aitona-amonak gelara konbidatu

Helburu didaktikoak: II.9, III.15(H)-16(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: libre
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Familien inplikazioa aipatzen dugu behin eta berriz Urtxintxako hainbat jardueretan. Oraingo honetan, aitona-amonari luzatu nahi diegu gelara etortzeko gonbita.

Aitona-amonak badaukate zer kontatu: ipuinak, gertaerak, esperientziak... Horiek denak gelara hurbiltzeko saiaketa egiteko animatzen zaituztegu.

45. Olerkiak

Helburu didaktikoak: I.15, III.1(H)-15(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: libre
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

Txikitxo politxo
 Norena? Norena?
 Norena izango naiz?
 Aitarena ta amarena.

Aitona eta amona
 asko ditut maite,

3. ZEHAZTAPEN MAILA

beraiekin bizi naiz
kontent orain arte.

(A. Kazabon)

46. Amaren edo aitaren biografia txikia

Helburu didaktikoak: I.15, II.4, III.1(H)-8(H)-9(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA, ULERMENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK, AFEKTIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Materiala: 11. FITXA
Jarduera egiteko espazioa: ETXEA

PROZEDURA

Fitxa hau ez dugu gelan egingo. Gelan zer egin behar duten argitu ondoren, etxera eramango dute, eta aita eta amarekin osatuko dute. Fitxa ostautakoan, gelara ekarriko dute eta taldeari kontatuko diote zer ikasi duten aitari/amari buruz.

47. Olerkia

Helburu didaktikoak: I.5, III.1(H)-15(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: librea
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

Aita ttuntun
ama ttuntuna,
alaba hori ere ttuntuna;
guztiak ttuntuna izatekotan
senarra behar luke ttuntuna

(Xabier Etxaniz)

48. Nire etxeko en datuak

Helburu didaktikoak: I.5, II.4-17(MAT)-25(MAT)-30(MAT), III.1(H)-3(H)-4(H)-5(H)-8(H)-9(H)-11(H)-12(H)-13(H)
Etengabeko ebaluazioa: GUZTIAK
Gaitasun motak: GUZTIAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA, ESPERIMENTAZIOA, MOTIBAZIOA, ARAKETA
Taldekatzea: Tt
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: ETXEA, HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Biografiako fitxa etxetik ekartzen duten heinean, datuen bilketa egiteko fitxa bat emango diegu hurrei, gurasoekin batera bete dezaten.

Etxera eraman aurretik, fitxan zer egin behar duten argituko diegu. Sei senitarteko aukeratu behar dituzte (gurasoak, aitona-amonak, anai-arrebak,

osaba-izebak, lehengusuak...). Taularen lerro bakoitzean familia-kidearen izena, adina eta haurrarekiko duten ahaidetasuna idatziko dute. Adibidez:

IZENA	ADINA	AHAIDETASUNA
ANDONI	74	NIRE AITONA DA
IDOIA	34	NIRE IZEBA DA
...

Fitxa gelara ekartzen dutenean, senitartekoen adinak erabiliz zenbakitze-sistemaren inguruko hipotesiak landuko ditugu.

Adinak ordenatzen

Fitxako datuak aprobetxatzeko, hezitzaileak kartulinazko karratu txikiak izango ditu prest (haurrekin batera ere presta ditzake), eta, norbaiten adina irakurtzean, kartulinan zenbakia idatziko dute (nork berea, taldeka...).

Familiakoen adinaren zenbaki horiek erabiliz, hurrei hipotesiak egiteko proposamena egingo diegu:

- *Ordenatuko al dituzue zenbaki hauek?*
- *Zein uste duzue dela urte gehiena adierazten duena? Eta gutxiena?*
- *Zergatik uste duzu(e) ... zenbakia ... zenbakia baino handiagoa dela?*

Datuen artean zifra berekin zenbaki desberdinak azaltzen bazaizkizue (adibidez, Ane arreba 13 eta Jon osabak 31, Mikel anaiak 12 eta lehengusuak 21), galdetu ea pertsona biek zifra berak izanik adin bera duten. Baiezkoa erantzuten badute, lagunduko diegu kontraesana agerian jartzen. Erantzuna ezezkoa bada, ea ohartzen diren bi zenbakiak zertan bereizten diren (zifren ordenan).

Haurrek adieraz ditzaketen irizpideen arabera sailka ditzakegu datuak: gelako ama guztien adinak, aitenak, anaienak, neskenak, 4 zenbakiarekin hasten direnak, 3 zenbakiarekin hasten direnak, zifra bakarrekoak, bikoak...

Zenbakien diktaketa

Gurasoen adinarekin jolasten ibili ondoren, zenbakien diktaketa egingo dugu, hau da, guk esaten ditugun zenbakiak edo haurrek txandaka esaten dituztenak idatzi.

- *Ba al dakizue zer bururatu zaidan? Begira, nik esango dizkizuet zenbaki batzuk eta zuek zuen erara idatziko dituzue. Konforme? Bakoitzak nahi duen bezala!*

3. ZEHAZTAPEN MAILA

49. Etxe-abereak

Helburu didaktikoak: II12, III.16H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATBOAK
Jarduera mota: Esperimentazioa, Araketa
Taldekatzea: TH
Materiala: ----
Jarduera hau egiteko HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Gerta liteke haur batek etxe-aberea izatea eta hori ere agertzea etxekoen artean. Horrela bada, haur horren kasua baliatuko dugu, edo hezitzaileak berak eredia emango du (*etxean txori bat daukat, edo nire lagun batek txakurra dauka...*) etxe-abereez hitz egiteko. Gelara bisitan ekartzeko eskatuko diogu haurrari, gelakideek ezagut dezaten.

Zer diren etxe-abereak, zein ezagutzen dituzten, nolako zainketa behar duten... aztertuko dugu.

- *Txoria, txakurra, katua... Etxe-abereak zaindu egin behar dira, ezta? Ba al dakizue nola zaindu behar diren?...*

50. Abestia: *Etxean dugu txoria*

Helburu didaktikoak: III.15(H)-32(MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, ARAKETA
Taldekatzea: librea
Materiala: 4. CDa, 29. ABESTIA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

ETXEAN DUGU TXORIA

Etxean dugu txoria
aitak dendan erosia,
goizero digu kantatzen
eta "egun on!" esaten.

Txoria dugu etxean,
sartuta gaixoa kaiolan,
gustatzen zaio alpistea
eta ura edatea.

Etxean dugu txoria...

Zirina du asko egiten,
bazter guztiak zikintzen.
Izena du Kalimero,
neguan hotz, udan bero.

Etxean dugu txoria...

EGUN ON, TXANPIÑON!

EGUN HAUETAN GAUZA ASKO IKASI DITUZUE ETXEARI ETA FAMILIARI BURUZ: NOLAKO ETXEAK DAUDEN MUNDUAN ETA EUSKAL HERRIAN, NOLAKOAK DIREN ZUEN ETXEAK, ZEIN DIREN ZUEN FAMILIAKO KIDEAK...

HORI DENA IKASI ONDOREN, BUKATZEKO, ETXE BAT BARRUTIK NOLAKOA DEN, ETA ZER GELA EGOTEN DIREN IKUSIKO DUGU. DENEN ARTEAN ETXE BATEN MAKETA EGINGO DUGU. HORRETARAKO, ETXEA NONGOA ETA NOLAKOA IZANGO DEN ERABAKI BEHARKO DUGU.

EGITEN DUGUN MAKETATXO HORI GURE LAGUNEI ERAKUTSIKO DIEGU, IKUS DEZATEN ZENBAT LAN EGIN DUGUN!

ZER IRUDITZEN?

ANIMO ETA LANERA!!!

TXIRRITX



ETXE BATEN MAKETA egingo dugu

HASIERA

51. Etxeko gela nagusiak

Lau taldetan banatuko ditugu haurrak, eta talde bakoitza gela bat osatzeaz arduratuko da: sukaldea, logela, egongela eta komuna. Naiz eta talde bakoitzak gela bakar baten inguruan aritu, bukaeran, denen artean osatuko dute etxearen maketa.

Dena dela, komeni da, hori guztia haur taldearekin komentatzea eta, ahal den neurrian, zehaztea.

52. Horma-irudiko gelak

Helburu didaktikoak: I.5-9, II.1-2(I), III.16(H)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATBOAK, KOGNITIBOAK

Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: ----

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

Ezertan hasi aurretik, errepasso txiki bat emango diogu unitate honetako horma-irudiari, bertan agertzen baitira landu nahi ditugun etxeetako gela nagusi horiek: sukaldea, egongela, logela eta komuna. Horrela, gure maketarako pista batzuk argituko ditugu.

3. ZEHAZTAPEN MAILA

JARDUERAREN PLANIFIKAZIOA

Elkarrizketa planifikatzerakoan, honako oinarrizko elementu hauek izango ditugu kontuan:

1. Haur guztien parte hartzea lortu.
2. Elkarrizketa egiteko espazioa: eroso eta komunikazio bultzatzen duena izan behar da: HARRERA TXOKOA.
3. Jarduera egiteko denbora aurreikusi.
4. Galderen tipologia ondo pentsatu.
 - Galdera irekiak, baina haurren hizkuntza-konpetentzietara egokituak.
 - Pentsarazten duten galderak.

HEZITZAILEAK BERE ESKU-HARTZEA BERRAZTERTUKO DU

Haurren interesak

- Pentsatzeko denbora eman al diezu hurrei?
- Haurren esperientzien kontaketa bultzatu duzu jardueraren bitartez?
- Haurren interesak lehenetsi dituzu?

Erronka kognitiboak

- Galderak errebotatzen dituzu edo erantzuna ematen duzu?
- Hipotesiak, arrazoibideak egiteko, iritziak emateko aukera eskaintzen duzu?
- Jardueraren amaieran, azaldutako ideiak laburbiltzen eta biribiltzen dituzu?

GARAPENA

53. Sukaldea. Zehar-lerroa: etxeko lanak eta rola sexuaren arabera

Helburu didaktikoak: II.1-2-3, III.16(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATBOAK, KOGNITIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: Tt
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Elkarrizketa txiki bat egingo dugu sukaldean egiten dugunari buruz eta bertan dauden tresnei buruz.

- *Nork daki zer egiten dugun sukaldean?*
- *Galdera hori erraza zen, e? Horixe, sukaldean janariak prestatzen ditugu.*
- *Eta ba al dakizue nolako tresnak erabiltzen ditugun janariak prestatzeko?*
- *Bestelako tresna batzuk ere badaude. Ea asmatzen dituzuen horien izenak.*
- *Janaria hotz-hotz gordetzeko balio du. Zer da?*

- *Plater zikinak garbitzeko balio du. Zer da?*
- *Janaria egitean sortzen diren kea eta lurruna tximiniatik botatzeko balio du. Zer da?*

Gaia aprobetxatuz, gizonezkoen eta emakumezkoen rolei buruzko galderak ere zuzenduko dizkiegu.

- *Eta zuen etxean nork prestatzen du normalean janaria? Ondo iruditzen al zaizue beti berdinak prestatzea? Zergatik uste duzue gertatzen dela hori?*
- *Zer janari prestatzen du goxoen zuen amak? Eta aitak? Eta amonak? Aitonak ba al daki zerbait prestatzen?*

54. Jolas kanta: *Txinba txinbatxin*

Helburu didaktikoak: I.5-12-15, III.15(H)-30(MUS)-32(MUS)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: KOMUNIKATBOAK, AFEKTIBOAK, GIZARTERATZEKOAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA, ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: 4.CDa, 24. ABESTIA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Sukaldean egiten ditugun zenbait ekintza jolasen bidez adieraziko ditugu. Abestiak bi egoera bakarrik jasotzen ditu, baina ikasi ondoren, egoera gehiagorekin jolas dezakezue: platerak garbitzen, arrautzak frijitzen, purea egiten, ontziak lehortzen...

TXINBA-TXINBATXIN

- Aitatxo!
- Zer nahi duzu?
- Lanean lagundu nahi dizut.
- Ba, janaria prestatzen.

Txinba-txinba-txinbatxin,
txinba-txinba-txinbatxin,
lanean aitarekin,
lanean amarekin.

- Amatxo!
- Zer nahi duzu?
- Lanean lagundu nahi dizut.
- Ba, zapatak garbitzen.

Txinba-txinba...

55. Sukaldea: gosaria, bazkaria eta afaria

Helburu didaktikoak: I.5, II.14, III.16(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATBOAK, KOGNITIBOAK
Jarduera mota: INFORMAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Egunean zehar egiten ditugun hiru otordu garrantzizkoenak zein diren landuko dugu, denboraren erreferentzia hartzen joan daitezen.

- *Zer otordu egiten dugu goizean, ohetik jaiki ondoren?* (gosaria)
- *Zer otordu egiten dugu eguerdian?* (bazkaria)
- *Zer otordu egiten dugu gauean, ohera joan aurretik?* (afaria)

Nahi izanez gero, askaria edo merienda ere sar dezakegu. Halaber, denetarik jan behar dugula adierazi behar da. Otordu bakoitzean jaten dituzten elikagaiei buruz ere hitz egin dezakegu.

56. Zer ari da gertatzen hemen? Zehar-lerroa: pertsonen arteko harremana

Helburu didaktikoak: II.4-5-6, III.8(H)-9(H)-16(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA, ADIERAZPENA, PROBLEMEN EBAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATBOAK, KOGNITIBOAK, AFEKTIBOAK, GIZARTERATZEKOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: 12. FITXA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Fitxan, aita eta alaba mahaian lasai eta patxadan eserita daude, ama lanez gainezka dagoen bitartean. Egoera hau kontuan hartuz...

Hitzez adierazi

- Ikusten dena deskribatu, arazoa identifikatu, hipotesiak formulatu, konponbideak proposatu, ondorioak atera...
- Denon artean marrazkiari izenburu bat jarri.

Printzipioa formulatu

- Zer ikas dezakegu hemendik? (Lanak denon artean egitea hobe dela, etxean lagundu egin behar dugula...).
- Beste testuinguru eta egoeretan aplikatu. Ikastolan, oporretan, aitona-amonen etxean...

Idatzi

- Marrazkiaren goialdean ezkerrean, tarte bat duzue. Nahi izanez gero, bertan izenburua, printzipioa edota gertatzen ari dena idatz dezakete haurrek beren erara.

57. Zaborra bereizten. Zehar-lerroa: ingurugiro hezkuntza

Helburu didaktikoak: II.15-17(MAT), III.16(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATBOAK, KOGNITIBOAK
Jarduera mota: ARAKETA, MOTIBAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: 13. FITXA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Dagoeneko, Euskal Herriko herri gehienetan zaborra sailkatzeko ontziak erabiltzen dira. Hori dela eta, birziklatzeari buruz hitz egiteari beharrezko deritzogu, eta, zergatia ulertu ondoren, gelan sortzen den zaborra sailkatzen has gaitzke.

Lehenik eta behin, haurrek birziklatzeari buruz dituzten ideiak eta aurreiritziak arakatzea da egokiena. Talde handian ala talde txikian hitz egin ondoren, batera jartzea egingo dugu, eta denen azalpenak kontrastatuz, informazioa osatuz joango gara, hezitzailearen laguntzarekin.

Fitxa honen helburua zaborra sailkatzeko erabiltzen ditugun ontziak bereizten ikastea da. Fitxa egin aurretik zerbait lantzen baduzue, hobe: Ikastolaren ondoan izango dituzuen ontziak dauden lekura joan eta aztertu, udalgarbitzaileraren bat gelara ekarri gure herrian zein ontzi klase dauden argitzeko...

- *Zer egiten dugu janaria prestatzen dugunean sortzen den zaborrarekin?*
- *Hori da, zabor poltsetan jasotzen dugu! Baina, zabor guztia berdina al da? Begira ezazue zer ontzi dauden, eta lot ezazue zabor bakoitza dagokion ontziarekin!*

58. Zaborra bereizten. Zehar-lerroa: ingurugiro hezkuntza

Helburu didaktikoak: II.15-17(MAT), III.16(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATBOAK, KOGNITIBOAK
Jarduera mota: ARAKETA, MOTIBAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: FOLIO KUTXAK, ZELOA, PAPER URDINA, PAPER HORIA ETA IRONFLIX
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

- *Jarriko al ditugu gure maketako sukaldean zaborra sailkatzeko ontziak? Eta gelan?*

3. ZEHAZTAPEN MAILA

Jarduera bukatzeko, gelako zaborrak ere bereizten hasiko gara (baldin eta ez bagenuen lehenagotik egiten). Gelan paper eta plastiko asko bota egiten dugu, hortaz, bi ontzi prestatuko ditugu (folio kutxak erabiliz), paperarako bata, eta plastikorako bestea.

Paperaren ontzia paper urdinaz forratuko dugu eta plastikoarena paper horiaz (paperaren gainetik "ironflox" plastikoarekin forratuz gero, gehiago iraundo du). Bestelako zaborrak gelako paperontzian botako ditugu.

Komeni da gelako egunerokoan ohitura horiek sartuz joatea, jarrera lantzea oso garrantzitsua baita.

59. Bainugela

Helburu didaktikoak: II.1-2- III.16(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Bainugelari buruz hitz egingo dugu, eta haurrek zer dakiten entzungo dugu.

- *Zertarako erabiltzen dugu bainugela? Kaka eta pixa egiteko, bainatzeko, apaintzeko...*
- *Zer gauza daude bainugela batean? (arbelean idazten joan gaitzke)*
- *Zer egiten duzue zuek normalean, dutxatu ala bainatu? Eta gurasoek?*
- *Bainugelan nolana ibil al daiteke? Iturriko ura zabalik utzi behar al da? Bainuontzian irristatu al gaitzke?...*

Adin honetan kaka eta pixarekin bueltaka dabiltzanez, izugarri gustatuko zaie olerki zatar hau!

Kaka zuretzat eta,
kaka niretzako,
kaka egitea da gauza ona,
mundu guztiarentzako

Ez dago printziperik,
ezta printzesarik,
kaka egiten ez duenik,
bere atzeko zuloatik.

60. Igarkizuna

Helburu didaktikoak: II.3(I)-III.1(H) III.2(H), III.15(H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: ----

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

Zapaltzen banauzu: irrist!
Burbuilak lehertzean: plist!
Uretan eskuartean: blist!
Komunean naukazu, irrist! Plist! Eta blist!

61. Abestia: *Aparretan*

Helburu didaktikoak: III.15(H)-32(MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATBOAK, MOTORRAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: 4. CDa, 30. ABESTIA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Lehen esan duzue askotan bainuontzian bainatzen zaretela, ezta? Beno ba, bainu bat hartzen duzuen hurrengo egunerako abesti polit bat ikasiko dugu. Horrela, bainuontzian xaboiaz aparra egin ondoren, abesti hau kantatuz burbuilekin jolas dezakegu. Entzun ondo eta ikasi.

APARRETAN

Parranpan, parranpan,
aparretan parranpan,
goitik behera burbuilak
aparretan.

Gure pausoak eta besoak
beti batera doaz.

Parranpan, parranpan,
aparretan parranpan,
goitik behera burbuilak
aparretan.

Globo batzuk puztu ditzakegu, eta, abestia entzuten dugun bitartean, burbuilak balira bezala mantenduko ditugu airean, kolpeka, musikaren erritmoari jarraituz. Beste aukera bat xaboizko burbuilak egitea da; horiek ere airean mantentzen saiatuko gara putz eginez.

62. LOGELA

Helburu didaktikoak: I.15, II.1-2, III.9(H)-15(H)-16(H)-27(PLAS)
Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA
Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, KOGNITIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

3. ZEHAZTAPEN MAILA

PROZEDURA

Etxearen beste geleskin egin dugun antzera, logelan zer egiten dugun eta zer altzari egoten diren aztertuko dugu, haurrek dakitena entzunez.

Zenbait haur oheratzen direnean beldur izaten dira, beste batzuk ametsetan direla beldurturik esnatzen dira, edo bakardadea sentitzen dute... Sentimendu horiez guztiez hitz egitea egokia izan daiteke, batetik, besteei ere gertatzen zaiela jakin dezaten, eta, bestetik euren zama kanporatzeko.

Ondoren datorren olerkiak ilargia eta izarra aurkezten ditu haurraren loaren zaintzaile. Badira, bestalde, hainbat liburu haurren beldurrak eta aurkezten dituztenak. Horietako bat gelako liburutegian eduki dezakezue eta elkarrizketa girotzeko erabili.

Gauaren ilunean,
izar txuri bat zeruan
keinuka ari zait
ohera noanean.

Gauaren ilunean,
maindire artean,
izarrak laztandu nau
emeki masailean.

Gauaren ilunean,
ilargi ederra zeruan
zaintzen ari zait
lo nagoenean.

Eskua emanda, badoaz biak
eguna argitu denean.
Agur izarño! Agur ilargi!
zatozte berriz gauean.

Gauaren ilunean,
goxo-goxo ametsetan,
ilargiak muxu eman dit
gozoro ezpainetan.

(M. Saenz)

Nahi izanez gero, olerki hau bost zatitan bana daiteke, ahapaldi bakoitza orri batean idatzi eta hurrei banatu. Taldeka arinago egingo dute; talde bakoitzak eszena edo zati horri dagokion marrazkia egingo du testuaren alboan. Horrela, guztion artean olerkia ilustratuko dute.

63. Egongela

Helburu didaktikoak: II.2-3, III.16(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOGNITIBOAK, KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: -----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Egongelan dauden gauzei eta bertan egiten ditugun ekintzei buruzko elkarrizketa txikia egingo dugu.

- *Nork daki zer gauza egoten diren egongelan?*
- *Eta zertarako erabiltzen dituzue tresna horiek guztiak?*
- *Liburutegian liburu asko al dituzue? Nork irakurtzen du gehiag, o aitak ala amak?*
- *Zuek ere egoten al zarete egongelan ipuinak irakurtzen?*
- *Denek al duzue telebista? Eta bideoa?... Zertarako erabiltzen dituzue?*
- *Nork dauka egongelan musika entzuteko tresna?*

Gure maketako logela nola apainduko dugu ere erabaki dezakegu ere.

64. Igarkizuna

Helburu didaktikoak: II.3, III.1(H)-2(H)-13(H)-15(H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA
Gaitasun motak: KOGNITIBOAK, KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: libre
Materiala: -----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Honako igarkizun hauek etxeko egongelan egon ohi diren bi tresnei dagozkie. Ea asmatzen duten zer tresna diren.

Zer dela eta zer dela
ahorik izan gabe
disko txikiak jan
 eta musika egiten duena?
 (CDa, disko-jogailua)

Karratua da eta ez oso handia,
bere aurrean tontotzen zaigu aurpegia
 zein da, zein da,
denbora alferrik galtzeko ere,
 balio duen ikus-entzungailua?
 (telebista)

BUKAERA

65. Maketa osatuko al dugu?

PROZEDURA

Egindako jarduera eta azterketa guztien ondoren (munduko mapa, etxea eta gure etxeokak...) maketa osatzeko eta apaintzeko unea iritsi zaigu.

Maketa egiteko, taldeak egitea proposatzen dizuegu, sukaldea, bi logela, egongela eta komuna banatuz talde bakoitzari.

Lauko taldeak izan daitezke, eta haur asko badaude, bi etxe egin daitezke edota etxe handiagoa, logela eta komun gehiago gehituz.

Talde bakoitzarentzat zapata kutxa bat lortuko dugu bere gela egiteko. Barruko apaingarriak egiteko, plastilina edo paperezko pasta erabil dezakegu (paperezko pastaz egiten baditugu, lehortzen utzi behar dira, eta gero margotu). Azkenik, bein zapata kutxak edo gelak eginda daudenean, elkarren artean itsatsiko ditugu kolaren bidez.

Gure maketa gelatik aterako dugu, pasillora, eta apaindu egingo dugu, gure lagunekin partekatzeko.

66. Ikasnorabideak

Helburu didaktikoak: SINTESIA
Etengabeko ebaluazioa: GUZTIAK
Gaitasun motak: GUZTIAK
Jarduera mota: SINTESIA
Taldekatzea: TH
Materiala: 1. FITXA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Haurrak sintesi-lana talde handian egiten ohituta daudenez, oraingo honetan ikasnorabidea talde txikietan berriro beha dezaten proposatzen dugu. Taldean hitz egin ondoren, besteen aurrean adieraziko dute ikasitakoaren balorazioa. Horretarako, gidoi txiki bat antola dezakezue beraiekin taldean zer erabaki behar duten orientatzeko. Adibidez:

- Zer izan da ezagutzen ez genuena?
- Zer izan da gustukoena?
- Zer izan da gutxien gustatu zaiguna?
- Zer izan da zailena eta errezena egiteko?
- Guztiok ikasi dugun abesti bat, olerki bat, igarkizun bat... Zer gehiago jakin nahi genuke honen guztiaren inguruan?
- Gurasoek lagundu al digute etxean? Gustura jardun al dute?...

Hiztegia

Gaiko hiztegia	Ipuineko hiztegia
Munduko mapa Familia Harraska Konketa/komuna Igogailua Logela Egongela Eskailerak	Antxumeak Ama Otsoa Zazpi Arraultzak Irina guraizeak

Ipuin gomendatuak

Jarraian, unitatean zehar lan daitezkeen zenbait ipuinen zerrenda aurkezten dugu. Ez dira derrigorrez kontatu beharrekoak, proposamen bat baino ez dira, gure eguneroko baliabideen osagarri.

- *Hiru txerrikumeak*, Urtxintxa 3. maila
- *Baserrietan ekilorea*, Euskal mitologia
- *Auzoak*, Kalandraka
- *Buenos días mundo*, Ed. Intermón Oxfam
- *Glup Glup*, Elkar

4. HORRA! HORRA!

Gaia: Gabonak

Iraupena: abendua, oporrak arte

Sarrera



Unitateko PROIEKTUA: gabonetarako prestatu

Gabonetako oporrak iritsi arteko lana daukagu aurretik. Ahurrak garai honetan urduri samar jartzen direnez, unitatearen iraupena gehiegi ez luzatzea erabaki dugu.



Proiekturako proposatutako sekuentzia didaktikoak:

1. Gabonetako giroa sortu: gela apaindu, gabonetako postala prestatu.
2. Olentzeroren gutuna prestatu.

Sekuentzia didaktikoaren ebaluazioa:

- Abiapuntua (nondik hasi garen eta zergatik).
- Sekuentziaren garapenean erabilitako baliabide materialek, jarduerak, lan taldeek eta abarrek ondo funtzionatu duten, ala aldaketaren bat egin behar den hurrengo saio baterako
- Sekuentziaren garapenean izan diren harremanei (haurren artean, hezitzailearekin...) eta jarrerari behatu.



Ikasturteko proiektua: gelako aldizkaria

Landu ditugun sekuentzia didaktikoei buruzko informazioarekin, aldizkaria osatuko dugu.

Ikusi 2. unitatean ematen ditugun azalpenak

HASIERAKOAK

1. Horma-irudia: gabonetako prestaketa

Helburu didaktikoak: I.9, II.1-2-4-5-15, III.2(H)-5(H)-13(H)-16(H)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK, AFEKTIBOAK

Jarduera mota: MOTIBAZIOA, ARAKETA

Taldekatzea: LIBREA

Materiala: HORMA-IRUDIA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

JARDUERAREN PLANIFIKAZIOA

Elkarrizketa planifikatzerakoan, honako oinarrizko elementu hauek izango ditugu kontuan:

1. Haur guztien parte hartzea lortu.
2. Elkarrizketa egiteko espazioa: eroso eta komunikazio bultzatzen duena izan behar da: HARRERA TXOKOA
3. Jarduera egiteko denbora aurreikusi.
4. Galderen tipologia ondo pentsatu.
 - Galdera irekiak, baina haurren hizkuntza-konpetentzietara egokituak.
 - Pentsarazten duten galderak.

HEZITZAILEAK BERE ESKU-HARTZEA BERRAZTERTUKO DU

Haurren interesak

- Haurren esperientzien kontaketa bultzatu duzu jardueraren bitartez?
- Haurren interesak lehenetsi dituzu?

Erronka kognitiboak

- Galderak errebotatzen dituzu edo erantzuna ematen duzu?
- Hipotesiak, arrazoibideak egiteko, iritziak emateko aukera eskaintzen duzu?
- Jardueraren amaieran, azaldutako ideiak laburbiltzen eta biribiltzen dituzu?

Horma-irudian azaltzen diren elementuen inguruan, Tough-en hizkuntza-funtzioen 3., 4., 5., 6. eta 7. atalak aktibatzen saiatuko da hezitzailea. Funtzio asko direnez, hainbat saiotan lantzea aholkatzen dugu, edota horma-irudien elementu egokienak aukeratzea.

Ikusi TOUGH-en hizkuntza-funtzioen sailkapena.

2. Tradiziozko kantua: *Horra Mari Domingi*

Helburu didaktikoak: II.9, III.15(H)-2(H)-32(MUS)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA

Taldekatzea: librea

Materiala: -----

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

HORRA MARI DOMINGI

Horra Mari Domingi, begira horri,
gurekin nahi duela Belena etorri.
Gurekin nahi baduzu Belena etorri,
atera beharko duzu gona zahar hori.
Zatoz! Zatoz! Zure bila nenbilen ni.
Zatoz! Zatoz! Zure bila nenbilen ni.
Zatoz! Goazen! Adora dezagun
Belenen jaio den haur eder hori!
Haur eder hori!

3. Ikasnorabideak: osotasunean zatiak bereizi

Helburu didaktikoak: AURKEZPENA
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: guztiak
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, ARAKETA
Taldekatzeta: librea
Materiala: -----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Txirritx kilkerraren azalpenak:

Kaixo lagun maiteak:

Jadanik urduri samar egongo zarete, ezta? Noski, laster Gabonak iritsiko dira, eta Olentzero dagoeneko ariko da zuen artean banatzeko jostailu guztiak prestatzen. Baina lasai egon, oporrak iritsi baino lehen gauza asko egin beharko ditugu. Jakin nahi al duzue zer egingo dugun gelditzen zaizkigun egunotan?

- 1. Lehenik eta behin, hezitzaileak IPUIN bat kontatuko digu; orain dela urte asko herri txiki batean gertatu zen istorio bat da. Ipuinaz gain, Gabonetako abestiak ikasiko ditugu, olerkiak, igarkizunak...*
- 2. Ondoren, Gabonetako giroa sortzen joan behar dugu, etxean egiten dugun bezala: apaingarriak jarriko ditugu gure gelan.*
- 3. Olentzerori eskutitza idatzi baino lehen, zer eskatuko diogun erabaki behar dugu. Horretarako, telebistako eta etxera iristen zaizkigun aldizkarietako iragarkiak aztertuko ditugu.*
- 4. Eta bukatzeko, zuek egin, ikasi edo ikusi nahi duzuen edozer gauza proposatuko diozue hezitzaileari.*

3. ZEHAZTAPEN MAILA

4. Igarkizuna

Helburu didaktikoak: III.1(H)-2(H)-15(H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: librea
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Egutegiaren lanketa egiten ari garenean, une egokia da iragarkizun hau aurkezteko, hilabetearen aurkezpena egiteko.

Egutegia flako,
azkeneko hila delako.
Zein da?

(abendua)

5. Esaera zaharra

Helburu didaktikoak: II.9, III.15(H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: librea
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Aurreko jarduera bezala, hau ere egokia izan daiteke errutinetako denboran erabiltzeko, modu naturalean.

Abendua hotza,
gauza luzea eta eguna motza

6. Olerkia

Helburu didaktikoak: I.15, III.15(H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: librea
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Hodei beltz eta grisez
estali da zerua.
txuriz jantzita dauka
Aizkorri bere burua.
Abenduak ekarri digu
aurten ere negu.

Joxean Ormazabal

Aizkorri mendiaren ordeaz, hurrei ezaguna zaien mendi baten izena jar daiteke.

7. Antzezpen kolektiboa

Helburu didaktikoak: I.6, III.1(H)-12(H)-13(H)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK, AFEKTIBOAK

Jarduera mota: MOTIBAZIOA, ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala:----

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Ipuinaren antzezpen kolektiboan sartu aurretik, komeni da ipuinaren sarrera bat egitea; hau da, ipuinean azalduko diren pertsonaiak izendatu, antzezpen kolektiboan dauden arauak gogoratu... (Jarduera hau hiru egunetan jarraian egitea proposatzen dugu).

Ikusi jarduera konstanteak: antzezpen kolektiboa (ipuin dramatizatua).

MARI DOMINGI ETA OLENTZERO

	Behin batean, bazen Mari Domingi izeneko emakume behartsu bat. Txabola batean bizi zen eta jendeak burla egiten zion:
Jendea	Mari Domingi mingulina, arlote zikina!!!
Mari Domingi	Ni pobrea naiz, baina ez naiz zikina!!
	Mari Domingi ikatza banatzen ibiltzen zen, eta behartsuei laguntzea gustatzen zitzaion.
Mari Domingi	Kax-kax-kax!
	Kaixo, Mari Domingi!
	Tori ikatz puska hauek etxea pixka bat berotzeko.
	Eskerrik asko, Mari Domingi!
	Behin, ohean lotan zegoela, Olentzeroren ahotsa entzun zuen.
Olentzero	Mari Domingi, Mari Domingi! Olentzero naiz. Esaiezu hurrei Gabonetan opariak banatzera joango naizela.
<i>Esnatuz eta urrutira begiratzuz (eskua begi</i>	Zer? Olentzero? Aizu, aizu... Egia da, Olentzero zen!

3. ZEHAZTAPEN MAILA

<i>gainean bisera bezala jarrita)</i>	Bihar goizean goiz korrika joango naiz herrira.
	Hurrengo egunean, goiz jaiki eta kalera joan zen Mari Domingi.
Mari Domingi	Entzun, entzun guztiok! Olentzerok esan dit Gabonetan herrira etorriko dela opariak banatzera.
Jendea Abestia sar daiteke.	Kar-kar-kar! Entzun al duzue hori? Olentzerok berak esan omen dio! Eta guk sinistu! Mari Domingi mingulina, arlote zikina!!!
	(Kaleko jende harroputzak ez zion sinetsi Mari Domingiri. Honek, ordea, ez zien burla haiei kasurik egin). Egunak pasa eta, Gabon-gaua iritsi zenean, Mari Domingik atean kolpe batzuk entzun zituen.
Olentzero	Kax-kax-kax!
Mari Domingi	Nor da?
	Gabon, Mari Domingi, Olentzero naiz. Eskerrak ematera nator. Nahi al duzu gaur nirekin afaldu?
	Bai, noski. Eta kapoi eder bat ekarri duzu, gainera! Zer gozoa!
	Bapo afaldu ondoren, honela esan zion Olentzerok:
Olentzero	Eta, orain, lagunduko al didazu hurrei opariak banatzen?
Mari Domingi	Bai, horixe. Oso gustura gainera. Goazen!
	Etxe honetan mutil txintxo bat bizi da. Opari bat berarentzat! Hemen, berriz, neska harroputz bat bizi da. Ikatza berarentzat! Hemengo, berriz, txintxo izan da. Opari eder bat!
	Haurren artean opariak banatu zituzten, eta, bukatu zutenean, Olentzerok Mari Domingiri ere eman zion oparia.
Olentzero	Ufa! Zenbat lan! Azkenean bukatu dugu. Eta hemen gelditu den opari hau zuretzat da.

Mari Domingi	Niretzat? Benetan?
	Bai, zuretzat. Herri honetako neskarik jatorrena eta zintxoena zarelako. Eta politena ere bai!
	Soineko dotore bat! Zer polita! Mila esker, Olentzero! Tori musua.
<i>Olentzero lotsati azaltzen da.</i>	Eta Mari Domingi... Ni bakarrik bizi naiz mendian... Eta zu ere bakarrik bizi zara... Eta biok elkarrekin biziko bagina?
	Bai horixe! Pozik gainera!
	Hain zara jatorra eta atsegina... eta polita!
<i>Abestuz</i>	<i>Mari Domingi nik asko maite zaitut, nahi al zenuke nirekin ezkondu? Bai Olentzero, nik ere maite zaitut, zurekin ongi nahi nuke konpondu”.</i>
	Eta, harrez geroz, biak elkarrekin bizi dira. Eta Gabonetan biek banatzen dituzte opariak.
	<i>Hala bazan ez bazan, sar dadila kalabazan...</i>

GABONETARAKO GIROA SORTZEN

8. Ipuinaren abestia

Helburu didaktikoak: III.15(H)-30(MUS)-32(MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: 4. CDa, 32. ABESTIA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Kanta atalka aurkez dezakegu, kantak ikasteko prozedurari jarraituz (ikusi jarduera konstanteak: abestiak).

Kanta luzea eta nahasia izan daiteke osorik memorizatzeko. Badira atal batzuk haurrei oso erakargarriak egiten zaizkienak, *Mari Domingi mingulina!* esaldia esaterako, eta horiek balia ditzakegu haurrak kantuan jartzeko eta dinamismoa bultzatzeko.

Memorizatzeko beste atal egoki bat da errepika edo leloa: *Mari Domingi nik asko maite zaitut...*

3. ZEHAZTAPEN MAILA

MARI DOMINGI ETA OLENTZERO

Behin batean bazen behartsu bat.
Mari Domingi mingulina!
Txabola zahar batean bizi zen.
Mari Domingi mingulina!
Olentzero etorri zitzaion.
Mari Domingi mingulina!
Eta goxoro hitz egin zion:

“Mari Domingi, nik asko maite zaitut,
nahi al zenuke nirekin ezkondu?”
“Bai, Olentzero, nik ere maite zaitut,
zurekin ongi nahi nuke konpondu”.

Mesede bat eskatu nahi dizut.
Mari Domingi mingulina!
Opariak banatzen lagundu.
Mari Domingi mingulina!
Mingulina txintxo portatu zen.
Mari Domingi mingulina!
Opariak banatu zituen.

“Mari Domingi...”

Etxe txiki bat dute mendian.
Mari Domingi mingulina!
Hantxe bizi dira pozik biak
Mari Domingi mingulina!
Abenduan zain daude herrian.
Mari Domingi mingulina!
Helduak eta haurtxo txikiak.

“Mari Domingi...”

Gabonetan beti jaisten dira.
Mari Domingi mingulina!
Opari politak banatzera.
Mari Domingi mingulina!
Eta gaez maitasun handiaz.
Mari Domingi mingulina!
Kapoi eder bat afaltzen dute.

“Mari Domingi...”

9. Ipuinaren elkarrizketa-jolasa atzamarrekin

Helburu didaktikoak: III.1(H)-12(H)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK, GIZARTERATZEKOAK

Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: binaka

Materiala: PERTSONAIEN TXOTXONGILOAK (MATERIAL OSAGARRIA)

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Lehen unitatean landutako prozedura bera proposatzen dugu elkarrizketa-jolasa guztietarako. Behin lan-dinamikan trebatuta gaudenean, zuzenean ipuineko elkarrizketa egin dezakegu.

Ipuin honetarako bi aukera eskaintzen dizkizuegu, baina zuen aldetik beste batzuk sortzera gonbidatzen zaituztegu

1

<i>Haur guztiak irakaslearekin</i>	Egunak pasa eta, Gabon-gaua iritsi zenean, Mari Domingik atean kolpe batzuk entzun zituen.
	Kax-kax-kax!
	Nor da?
	Gabon, Mari Domingi, Olentzero naiz. Eskerrak ematera nator. Nahi al duzu gaur nirekin afaldu?
	Bai, noski. Eta kapoi eder bat ekarri duzu, gainera! Zer gozoa!

2

<i>Haur guztiak irakaslearekin</i>	Haurren artean opariak banatu zituzten, eta, bukatu zutenean, Olentzerok Mari Domingiri ere eman zion oparia.
	Hemen gelditu den opari hau zuretzat da.
	Niretzat? Benetan?
	Bai, zuretzat. Herri honetako neskarik jatorrena eta zintxoena zarelako. Eta politena ere bai!
	Soineko dotore bat! Zer polita! Mila esker, Olentzero. Muxu bat.
	Ez da ezer, merezi duzu. Muxu.

10. Ipuinari buruzko elkarrizketa

Helburu didaktikoak: I.2-5, II.4-5, III.4(H)-5(H)-16(H)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA, ULERMENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK, GIZARTERATZECOAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: ----

3. ZEHAZTAPEN MAILA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

- Zer iruditu zaizue ipuina?
- Nor zen Mari Domingi? Gogoratzen al zarete non bizi zen?
- Zer egiten zioten herriko aberatsek? Eta zuei zer iruditzen zaizue?
- Ondo iruditzen al zaizue aberatsak eta txiroak (behartsuak, pobreak) egotea?
- Zuek egin al diozue inoiz norbaiti burla? Bai? Nori? Zergatik?
- Gabon-gauean, afaltzeko garaian, Mari Domingik ogi zati gogor bat besterik ez zuen. Imajina ezazue zuek ere ogi zati bat besterik ez duzuela. Zer sentituko zenukete?
- Olentzerok opari polit bat egin dio Mari Domingiri. Gogoratzen al duzue zer den? Zer oparituko zenikete zuek? Zertarako?
- Haurren artean opariak banatu ondoren, zer eskatu zion Olentzerok Mari Domingiri, zeharo lotsatuta?

11.Noiz etorriko da Mari Domingi ikastolara?

Helburu didaktikoak: II.14-24(MAT)-25(MAT)-27(MAT), III.8(H)-9(H)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA, PROBLEMEN EBAZPENA

Gaitasun motak: KOGNITIBOAK

Jarduera mota: MOTIBAZIOA, ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea:TH

Materiala: -----

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Ipuina kontatu eta elkarrizketa egin ondoren, hezitzaileak *sorpresa* bat emango die bere gelako haurrei: Mari Domingi gure ikastolara etorriko da Olentzerori idazteko gutuna banatzera!

Gelako egutegia erabiliz, noiz etorriko den aztertzen hasiko gara: zein egunetan, goizez edo arratsalde, zenbat egun falta diren...

Nahi izanez gero, egutegiaren ondoan, *Zenbat egun falta dira Mari Domingi etortzeko?* txartela jar daiteke, eta egunero falta diren egunen zenbakia zifraz eta letraz idatziko duzue orri batean. Atzetik aurrera kontatuko dugunez, zenbakien segida alderantziz entseatzeko aukera berri bat dugu. Bestalde, kenketa-egoera hau egunero errepikatuko zaigunez, tarteka *egun bat gutxiago* edo *kendu egun bat* eta horrelako espresioak erabiliz erabakiko dugu falta diren egunen kopurua.

Mari Domingi etorri ondoren, jarduera bera egiten jarrai dezakezue, baina, oraingoan, *Zenbat egun falta dira oporretara joateko?, ...Olentzero etortzeko?* txarteletan jarriz. Era horretan, zenbakien seriea alderantziz errezitatzeke aukerak zabalduko ditugu.

Taldekatzeari dagokionez, guztiak izan daitezke egokiak, baldin eta hausnarketa konpartitua bada.

12. Gabonetako abestia

Helburu didaktikoak: I.5, II.4(I)-9, III.1(H)-4(H)-15(H)-16(H)-32(MUS)
Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ULERMENA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, KOMUNIKATIBOAK, GIZARTERATZEKOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: 4. CDa, 35. ABESTIA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Abesti honen inguruan elkarrizketa txiki bat gara dezakegu. Gabonen ezaugarri nagusienetako bat familia-giroa eta etxekoen maitasuna litzateke; horren inguruko haurren bizipenak ateratzen ahaleginguduko gara: norekin pasatzen dituzten Eguberriak, zer moduz pasatzen duten, zer kontatzen digun abesti honek, egia ote den...

HATOR, HATOR

Hator, hator, mutil etxera,
gaztaina ximelak jatera.
Gabon gaua ospa(tu)tzeko
aitaren (e)ta amaren ondoan.
Ikusiko duk aita barrezka,
ama ere poz atseginez.

Eragiok, mutil, aurreko danbolin horri,
gaztainak erre artean,
gaztainak erre artean.
Txipli, txapla, pun!
Gabon gaua pozik igaro daigun.

13. Mari Domingirentzat oparia

Helburu didaktikoak: I.11, III.18(PLAS)-19(PLAS)-21(PLAS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: LIBREA
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Mari Domingi gelara etortzen denerako harentzako opari bat prestatuko diogu: gure marrazkien albuma. Horretarako, ohiko margoak erabil ditzakegu, edo bestela, marrazketa eta beste teknika batzuen konbinazioak egin: paperekin egindako collageak, forma geometrikoen konposizioak, ehundura ezberdinetako oihaletan edo paperetan margotu, urradurak egin...



Gure gela apaintzen

HASIERA

14. Elkarrizketa: Gabonetako apaingarriak

Helburu didaktikoak: I.9, II.1-2-4-5-15, III.2(H)-5(H)-13(H)-16(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK, AFEKTIBOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, ARAKETA
Taldekatzea: LIBREA
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Gogoratu elkarrizketa planifikatzeko prozedura:

1. Haur guztien parte-hartzea lortu.
2. Elkarrizketa egiteko espazioa eroso eta komunikazio bultzatzen duena izan behar da: HARRERA TXOKOA
3. Jarduera egiteko denbora aurreikusi.
4. Galderen tipologia ondo pentsatu.
 - Galdera irekiak, baina haurren hizkuntza-kompetentzietara egokituak.
 - Pentsarazten duten galderak.

Elkarrizketarako gaia:

Gabonetan kaleak, etxeak eta ikastola apaindu egiten ditugu. Leku horietan zer nolako apaingarriak jartzen diren hitz egingo dugu. Ondoren, aurten gure gela nola apaindu nahi duten galdetuko diegu.

Gabonetako apaingarriei buruzko hausnarketa txiki bat eragingo dugu. Gure gela apaintzeko, aukera “ekologikoak” aztertu nahi ditugu: zer erabil dezakegun gelako apaingarriak egiteko, zergatik den interesgarria etxeetan botatzeko dauzkagun hainbat elementu edo material apaingarriak egiteko berrerabiltzea...

Arbelean idatziko ditugu haurrek gela apaintzeko proposatzen dituzten aukerak, eta bideratu ote daitezkeen aztertuko dugu denon artean. Bideragarriak direnak egiten hasiko gara, baina betiere material zaharrak berrerabiltzea proposatuz.

- *Nolakoak izaten dira etxeko Gabonetako zuhaitzean jartzen ditugun apaingarriak?*
- *Derrigorrez erosi behar al dira zuhaitzerako apaingarriak?*
- *Pentsa dezagun nolako apaingarriak egin ditzakegun soberan daukagun materialarekin:*

- *Aldizkari zaharren orriekin zuhaitza egin; orri zatiak moztu eta pinu baten perfilaren barruan itsatsiz.*
- *CD zaharrak; zintzilikarioak edo girnaldak eginez, biribil batean itsatsiz, apainduta, atean jartzeko...*
- *Zapata-, galleta- edo esne-kutxak; kartoia edo plastikoa irudiak eginez moztu, zuhaitzetik zintzilikatzeko...*

Ideiak sortzen laguntzeko eredu batzuk baino ez dira. Gurasoen laguntza ere bideratuko dugu, gure ideiak haiekin partekatzeko, eta, bestetik, etxekoei burura dakizkien ideiak jasotzeko eta etxean dauzkaten material zaharrak gelara ekartzeko.

GARAPENA

15. Material zaharrak berrerabiltzen

Helburu didaktikoak: II.3-4-9-17

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK

Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH/B

Materiala: 3a, 3b FITXAK

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA, ADIERAZPEN TXOKOA

PROZEDURA

Material zaharra berrerabiltzeko prozedura ulertzen joateko, 3a eta 3b fitxak baliatuko ditugu. Fitxekin lanean hasi aurretik, adibideak jartzea komeni da. Apaingarriei buruz hitz egitean adibide bat baino gehiago emango dugu (CD zaharrekin atean jartzeko apaingarria; aldizkari, egunkari edo kutxa zaharrekin Gabonetako zuhaitza egin...); hori dena ekarriko dugu gogora fitxan ikusten dutena interpretatzen jakin dezaten.

Lehenik, 3a fitxaren behaketa bideratuko dugu, hurrek uler dezaten zein den materialaren prozesua eta transformazioa, eta 3b fitxan behar den ordenan itsasteko.

16. Gurasoentzako gutuna

Helburu didaktikoak: III.6(H)-8(H)-9(H)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH/B

Materiala: 2. FITXA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

3. ZEHAZTAPEN MAILA

Haurren fitxa-liburuan topatuko duzue gutuna egiteko eredu bat. Etxera bidali aurretik hurrekin landuko dugu gutunak dakarren informazioa: zer lan egingo dugun, horretarako zer material beharko dugun... Haur bakoitzak bere izena non idatzi behar duen azalduko diegu.

GURASO MAITEAK:

HEMEN GAITUZUE BERRIZ ERE ZUEKIN LAN EGITEKO PROPOSAMEN BATEKIN. ORAINGOAN, GABONETARAKO PRESTATUKO GARA: GELA APAINDU, OLENTZEROREN GUTUNA IDATZI...

GURE GELA APAINTZEKO, MATERIAL ZAHARRAK BERRERABILIKO DITUGU. ZER IRUDITZEN ZAIZUE?

GURI IDEIA BATZUK BURURATU ZAIZKIGU:

- GABONETAKO ZUHAITZA ALDIZKARI ZAHARREKIN EGINGO DUGU.
- APAINGARRIAK EGITEKO, CD ZAHARRAK, SUKALDEKO PAPER-TUTUAK... ERABILIKO DITUGU.

ZUEI BESTERIK BURURATZEN BAZAIZUE PARTEKA EZAZUE-(E)KIN; GERO BERAK GURI KONTATU DIGU, ETA, AHAL BADUGU, GELAN EGINGO DUGU.

HORREZ GAIN, ZERA ESKATU NAHI DIZUEGU, ETXEAN DAUZKAZUEN GISA HORRETAKO MATERIALAK EKARTZEA: CD ZAHARRAK, ALDIZKARI ZAHARRAK, ZAPATA, JANARI EDO ESNE KUTXAK, KOMUNNEKO EDO SUKALDEKO PAPERAREN TUTUAK, PLASTIKOZKO EDALONTZIAK... ZUEN EKARPENAK OSO BALIAGARRIAK IZANGO ZAIZKIGU.

ZUEN LAGUNTZAREKIN, GABONETAKO APAINGARRI POLITAK ETA BEREZIAK IZANGO DITUGU AURTEN!

MILA ESKER!

TXIRRITX

17. Txoko txuria: apaingarriak egiteko materiala bildu

Helburu didaktikoak: I.12-15, II.2-3-4, III.16(MAT)-17(MAT)-20(MAT)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA, ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: LIBREA
Materiala: ETXETIK EKARRITAKOA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Harrera txokoan toki bat utz dezakegu Txoko Txuria antolatzeko. Txoko horretan etxetik ekarritako materiala bildu eta sailkatuko dugu. Bildutako materialarekin zein lan egin ditzakegun erabakiko dugu.

Erabakiak hartzeko, haurrek (ahal dela denen parte-hartzea ziurtatu behar dugu) ideiak botako dituzte, apaintzeko proposamenekin egin dugun bezala, eta hezitzaileak arbelean edo paper zuri handi batean apuntatzen joango da.

Lan-zerrenda osatu ondoren, hezitzailearen lana izango da zerrenda horretan bideragarriak diren proposamenak aurrera eramateko pausuak zehaztea. Hona adibide bat:

Gabonetako zuhaitza aldizkari zaharrekin

1. Marraztu zuhaitzaren perfila enbalatzeko paper handi batean eta moztu (hezitzaileak egingo du).
2. Banatu aldizkariak haurren artean, eta moztu bost bat zentimetroko zabalerako tirak. Haurrak 2/3ko taldetan banatuko ditugu.
3. Paperezko tirak zuhaitzean itsatsiko ditugu. Lana denen artean banatzeko, zuhaitzean taldeak adina zati bereiztuko ditugu, eta talde bakoitzak dagokion zatian itsatsiko ditu paper-tirak.

Prozedura bertsua erabiliko dugu zuhaitza beste material batzuekin egin nahi izanez gero (kutxa zatiekin, egunkari zaharrekin...).

18. Artelana

Helburu didaktikoak: III.23(PLAS)-24(PLAS)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK

Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA, ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea: LIBREA

Materiala: 4. FITXA, KOMUNEKO ETA SUKALDEKO PAPER TUTUAK, ETXETIK EKARRITAKOA...

Jarduera egiteko espazioa: ADIERAZPEN TXOKOA

Materialen berrerabiltzearekin ari garen honetan, Legorbururen artelana aztertuko dugu, eta, ondoren, komuneko eta sukaldeko paperaren barneko tutuekin artelan bat egitea proposatuko diegu haurrei. Sortzen diren artelanak etxera eramango ditugu, edo gelan gordeko ditugu apaingarri gisa jartzeko.

PROZEDURA

Legorburuk setazko paperak erabiltzen ditu bere lanean; paperak elkarren gainean jarri, eta transparentzia efektuari esker tonalitate eta testura ezberdinak lortzen ditu. Konposizioa bukatutzat ematen duenean, berniz berezi bat ematen du gainera. Gure kasuan, koloretako zelofanak erabiliko ditugu, baldin eta ondoren bernizik (berniz arrunt batek balio dezake) edo kolarik eman nahi ez badugu. Gainera, koloreetako zelofanak erabiliz, bata bestearen gainean jarrita zer nolako kolore desberdinak sortzen dituzten ikusiko dugu; begien aurrean jarrita ere ikusiko dugu zer efektu egiten duten.

Papera itsasteaz gain, *collageen* bidez eta pinturekin apain ditzakegu hodiak, Legorburuk bere artelanean egin duen modura.

3. ZEHAZTAPEN MAILA

Legorburu, Jose Antonio. Margolari gipuzkoarra (Zarautz, 1952). Olio teknikan Gipuzkoako lehen saria irabazi zuen 1967an. Geroztik, lehiaketa ugaritan parte hartu du, eta baita sariak irabazi ere. Bartzelonako Pintura Garaikideko IV. Bienalerako hautatu zuten 1982an. Serigrafia, zeramika eta beste zenbait baliabide erabili izan ditu. Nahiz banakako, nahiz taldekako hainbat erakusketatan parte hartu izan du: Donostiako San Telmo museoan, Tenerifen, Hondarribian, Madrilén...

19. Gela apaintzeko

Helburu didaktikoak: I.11, III.19(PLAS)-20(PLAS)-21(PLAS)-23(PLAS)-24(PLAS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: LIBREA
Materiala: ETXETIK EKARRITAKOA
Jarduera egiteko espazioa: ADIERAZPEN TXOKOA

PROZEDURA

Legorburuk bere hodi edo tutuak egiteko erabili duen teknikaz (edo antzekoaz) baliatuz, etxetik ekarritako kartoizko hodiak apaintzen hasiko gara.

Jarduera egin aurretik, sukaldeko paperaren eta bestelakoen barruko kartoizko hodiak (komuneko paperarenak baino handiagoak) etxetik ekar ditzatela eskatu izango dugu; ahoz nahiz idatziz egin dezakete.

Behin apaindu ditugunean, erabilera bat baino gehiago izan dezakete hodi hauek. Jatorrizko neurrian (moztu gabe) uzten baditugu, A-4 neurriko marrazkiak barruan biribilduta gordetzeko balio dezakete; etxekoentzat Gabonetako opari polita izan daiteke. Mozten baditugu (bi/hiru zati eginda, espiralean, tirak eginez...) apaingarri politak egin ditzakegu bai etxerako, bai ikastolarako.

Neurri desberdinetako hodiak erabiliz, eskulturak ere egin ditzakegu, zutik jarrita, horizontalean, bietara konbinatuz...

20. Igarkizuna

Helburu didaktikoak: III.1(H)-2(H)-12(H)-13(H)-15(H),
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: LIBREA
Materiala: HIZTEGI TXARTELAK
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Hiztegi-txartelak erabiliko ditugu. Txartelen irudiak deskribatuz, hurrek beren igarkizunak sortuko dituzte. Noelen irudia txertatu dugu, Iparraldean erreferentzia baita; Hegoaldean, berriz, herritik herrira funtzio edo zeregin desberdina betetzen duenez, hezitzaileak jakingo du pertsonaia horri buruzko zer planteamendu egin behar duen.

Gizon ona eta
tripa-bero,
ekartzen dizkigu
opariak urtero.
Nor den asmatu al duzu?
Bera da ...

(Olentzero)

Nahiz eta izan pobrea,
askotan aberatsa baino hobea.
Nor den gure emakumea
erraza da asmatzea.

(Mari Domingi)

21. Olerkia

Helburu didaktikoak: I.15- III.15(H),
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: LIBREA
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Jose Mari Irigoienen olerki labur hau orri txiki batean inprimatuko dugu; orri baten erdia (A-5) izan daiteke, edo horren erdia oraindik egokiago. Olerkiaren orria marraztu eta apaindu ondoren, gelan egingo dugun zuhaitzean eskegi dezakegu

–Zer? Erre egin al da basoa?
–Ez. Olentzero da.
Bete du tripa.
Piztu du pipa.

J.M. Irigoien

22. Pankarta

Helburu didaktikoak: I.11, III.6(H)-8(H)-9(H)-11(H)-20(PLAS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: LIBREA
Materiala: ENBALATZEKO PAPEREA, MARGOAK
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

–*Haurrak, laster etorriko zaigu Mari Domingi bisita egitera. Eta zer egin beharko genuke? Zer egiten dugu, gure familiartekoren bat edo lagunaren bat etxera bisitan*

3. ZEHAZTAPEN MAILA

datorkigunean? Horixe! Ongi etorria eman. Eta nola emango diogu ongi etorria Mari Domingiri?

Pankarta bat egingo dugu *Ongi etorri, Mari Domingi* leloarekin. Denon artean erabaki nola antolatuko duzuen. Komeni da aurretik argitzea zer funtzio betetzen duten pankartek (ongi etorria emateko, txapelketa batean animatzeko, zerbait salatzeke, urrutitik ikusi behar den mezua ondo irakurtzeko...), hala nola bertan idatzi beharreko testu kopurua zenbatekoa izan behar den, letren neurria, nola banatu paperean, irudirik jarri behar ote den... Hori guztia erabaki eta antolatu ondoren, elementuen banaketa markatu eta haurrek argizarizko margoekin edo tenperekirin margotuko dute.

Pankarta bukatutakoan, non eta nola kokatu behar den eztabaidatuko dugu.

23. Olentzero egingo al dugu?

Helburu didaktikoak: III.20(PLAS), III.21(PLAS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA, MOTIBAZIOA
Taldekatzea: LIBREA
Materiala:
Jarduera egiteko espazioa:

PROZEDURA

laz egin genuen moduan, Haur Hezkuntzako gela guztien artean burutu daiteke lan hau, denok batera abestera irteten garenarako.

Olentzero nola egin dezakezuen gogoratzeko, begira ezazue Urtxintxa 3 urteko gidan (4. gaia: *Gabonak*, 18 jarduera).

Herri eta ikastola batetik bestera ohiturak aldatzen direnez, zuen esku geratzen da nola antolatu Olentzeroren irtenaldia.

BUKAERA

24. Apaingarriak jartzeko tokia erabaki

Txoko Txurian hartutako erabakiekin jardun gara lanean. Bukatzeko, zuhaitza eta apaingarriak non jarriko ditugun erabaki eta bertan kokatuko ditugu.

Beste urteetan erabili izan ditugun apaingarriak berrerabil ditzakegu; horretarako, talde txikiak sortuko ditugu eta urteroko prozedurari jarraituko diogu.

25. Gabonetako abestia: Olentzero

Helburu didaktikoak: II.9(I), III.15(H)-32(MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK, GIZARTERATZKEOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: LIBREA
Materiala: 4. CDa, 36. ABESTIA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

–Iaz, Olentzeroren bi abesti ikasi zenituzten. Gogoratzen al zarete? Bada, aurten Olentzeroren beste abesti bat ikasiko dugu. Entzun, entzun...

Olentzero begi gorri
non harrapatu duk
arrain hori?
Zurriolako* harkaitzetan
bart arratseko hamaiketan.

Aginaldo! Aginaldo!
Beste kalean San Fernando!

*Nork bere herriko paraje baten izena jarriz molda daiteke.

26. Ipuina etxera eraman: *Mari Domingi eta Olentzero*

Helburu didaktikoak: III.8(H)-9(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: IPUINEN LIBURUXKAK
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Jarduera honen helburua gurasoekiko harremana mantentzea eta ahal den naurrian estutzea da. Horretarako prestatu ditugu ipuinen liburuxkak. Etxera eraman aurretik, haurrekin batera irakurriko dugu ipuina euskarri horretan.

Liburuxkak dakarren testua ipuinen eskuinaldean doana da; testu hori dagoeneko ezaguna dute haurrek, antzezpenean eta elkarrizketa laburretan landu baitute.

Ipuinaren antzezpen kolektiboan eta elkarrizketa laburretan egin ohi dugun bezala, U batean kokatuko dira haurrak. Liburuxkak banatuko ditugu, eta denen artean irakurriko dugu, gero gurasoei irakurri beharko dieten bezala.

Lehenik, azala aztertuko dugu, eta, horrekin batera, lehen orrian ageri diren egilearen eta marrazkilariaren izenak.

3. ZEHAZTAPEN MAILA

Ondoren, hurrekin batera orrialdeak pasatzen joango gara (komeni da denak batera joatea, galdu ez daitezen). Orrialdeak pasatzean, soinu edo keinu batekin lagun daiteke: –*Klinnn!! Bazen behin...*

Liburuxkaren eskuin aldean agertzen den testuan narratzailearen hitzak eta elkarrizketak daude. Narratzailearen zatia hezitzaileak irakurriz gero, prozedura erraztu eta dinamizatuko dugu. Hurrei gurekin batera elkarrizketak “irakur ditzaten” eskatuko diegu. Horrela joango gara orrialdez orrialdeko irakurketa egiten.



OLENTZEROREN GUTUNA PRESTATU

HASIERA

27. Elkarrizketa

Helburu didaktikoak: III.16(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: LIBREA
Materia: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Zehar lerroak: kontsumorako heziketa eta sexuen arteko berdintasunerako heziketa.

Olentzerori gutuna idatzi aurretik, zer eskatu behar dioten galdetuko diegu hurrei; gure galderen bidez, kontsumoaren inguruko hausnarketa txiki bat egingo dugu (gehiegi dramatizatu gabe):

- aukeratzen duten jostailua zergatik edo zertarako eskatzen duten (telebistan ikusi dutelako, propagandan agertzen delako...),
- jostailu asko eskatzen duenari, zertarako behar duen hainbeste,
- etxean dituzten jostailu guztiekin ea jolasten duten...

Landu dezakegun beste alderdi bat jostailuen karga sexista da: norberak nahi dituen edo gustuko dituen jostailuak aukeratzeko askatasuna, estereotipoen aurka egin beharra...

28. Olerkia

Helburu didaktikoak: I.15, III.15(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: LIBREA
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

–*Haurrak, zuek badakizue Olentzerok ikatza egiten suela. Eta ikatza beltza dela ere bai. Baina, begira, olerki honetan ikazkinak, nonbait, egurra elurretan jaso zuen eta elurra zuria denez, ikatza ere zuria irten zitzaion.*

–*Egia izango ote da hori? Hori ez bada ere, badugu egia biribil bat: oso olerki polita idatzi duela Juan Kruz Igerabidek aitzakia horrekin.*

Ikatz zuria egiten du
ikazkin ezezagunak,
egurra elurretan jaso zunak.

J.K. Igerabide

GARAPENA

29. Olentzerori gutuna idatzi: gelako jostailuak

Helburu didaktikoak: III.6(H)-7(H)-8(H)-11(H)-12(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: LIBREA
Materiala: A-3 ORRI BAT
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Jarduera hau egiteko A-3 neurriko orri bat itsatsiko dugu arbelean.

–*Gutako bakoitzak gure gutuna edo eskutitza idatziko diogu Olentzerori, eta ziur nago eskatutako gehiena ekarriko dizuela; baina, aizue, gelarako ere zerbait eskatu beharko dugu, ezta?*

–*Gauza bat egingo dugu. Zuek esaten duzuen nik orri handi honetan idatziko dut zuen laguntzarekin, Olentzerori bidaltzeko. Konforme? (Ikastetxearen ohituraren arabera jokatu: jostailu bat aukeratu, sorpresa bat eskatu, ezer ez...)*

Segidan, haurrekin batera aztertuko dugu nola idatzi gutuna: nola ematen zaion hasiera, zer idatzi ondoren...

–*Nola hasiko dugu eskutitza? “Behin batean, Olentzero...”, “Olentzero maitea” edota “Olentzero patatero”? Zergatik? Norbaitek ba al daki zer letrekin idazten den Olentzero? Eta zein den lehen letra?*

3. ZEHAZTAPEN MAILA

–Zer eskatuko diogu? Nola adieraziko diogu Olentzerori nahi duguna, zerrenda bat eginez...? Ausartzen badira, zerrenda idazten lagun diezaioke hezitzaileari.

–Nola bukatuko zenukete gutuna?

Gutuna idatzi ondoren, bakoitzak bere sinadura jarriko du behealdean.

–Honelako gutun handia sartzeko kartazalik izango al dugu?

Ez ahaztu: gutunean agertu diren eskaerak erosi, paketetan txukun jarri eta haurrak oporretatik bueltan datozenerako gelan utzi behar dira.

Jarduera hau oso baliagarria izango zaie hurrei beren Olentzeroren gutuna idatzi behar dutenerako.

30.Jolaserako kanta: Sokaz beheraka

Helburu didaktikoak: I.12-13, III.1(H)-15(H)-30(MUS)-32(MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: LIBREA
Materiala: 4. CDa, 37. ABESTIA, SOKASALTOA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Jarduera hau prestatzeko sokasaltoan ibiltzeko soka bat eskuratu behar dugu.

–Aizue, Olentzerori sokasaltoan ibiltzeko soka bat eskatu diogu (ala ez). Baina, zuetako norbaitek ba al daki sokasaltoan jolasten? Bai? Ez? Beno, nik erakutsiko dizuet, oso jolas erraza eta polita da. Horretarako, handien gelako bati bere soka eskatu diot. Jolastuko al dugu?

Sokaz beheraka zingili zangala,
matxinsaltoa bagina bezala.
Trebukatzen ez bazara berehala,
hurrengo laguna sar dadila,
bai... orain!

31.Entzunaldia: Rallph vaughan williams, “Greensleeves-eko fantasia”

Helburu didaktikoak: I.7, III.26(MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: LIBREA
Materiala: 4. CDa, 41. ABESTIA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Gabonetako apaingarriak sortu eta ipini ditugu, gelako oparia pentsatu dugu, eta denen artean gutuna Olentzerori idatzi diogu. Gauza pila egin ditugu dagoeneko, baina oraindik ez dugu pentsatu zer eskatuko diogun gutako bakoitzak Olentzerori. Musika entzuten dugun bitartean, lasai pentsatuko dugu ikusita dauzkagun jostailuen artean zein aukeratuko dugun. Aukeratutakoa gutunean idatziko dugu. Lasai hartu eta imajinazioarekin disfrutatu!

Ralph Vaughan Williams (Ingalaterra, Down Ampney, 1872 - Ingalaterra, Londres, 1958). Ralph Vaughan Williams XX. mendeko konposatzaile ingelesaren artean ospetsuenetakoa da. Ingalaterrako abesti eta musika folklorikoa darabilelako da ezaguna bere lana.

32. Zer ari da gertatzen hemen?

Helburu didaktikoak: I.5-11-12, II.4-5, III.2(H)-12(H)-16(H)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA, NORTASUNA, PROBLEMEN EBAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK, GIZARTERATZEKOAK, AFEKTIBOAK

Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: Binaka/ B

Materiala: 5. FITXA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA, ADIERAZPEN TXOKOA

Hitzez adierazi irudiak:

- Ikusten dena deskribatu, arazoa identifikatu, hipotesiak formulatu, konponbideak proposatu, ondorioak atera...
- Denon artean marrazkiari izenburu bat jarri, edo zer adierazi nahi digun definitu.

Printzipioa formulatu:

- Zer ikas dezakegu hemendik? Behin konponbide bat erabaki ondoren, horren araberrako printzipioa atera. Adibidez: “Gauzak banatzen baditugu, guztiok izan gaitzke zorientsuago” edo “Ez da zuzena batzuek asko edukitzea eta besteek ezer ez”...).
- Beste testuinguru eta egoea batean aplikatu (orokortu). Jostailuez gain, zer gehiagorekin gerta daiteke? Jantziekin, maitasunarekin...?

Idatzi:

- Fitxaren eskuinaldean aukeratutako konponbidea marraztuko dute. Baina, aurretik, azpian esaldi labur bat (printzipioa, konponbidea...) idazteko tarte bat uzteko eskatuko diegu haurrei, ea espazioa antolatzeke gai diren. Zailtasunak dituztenei irakasleak lagunduko die, baina lehenik beraiei saiatzeko utzi behar zaie. Tarte txikiegia uzten badute, idazteko tokirik ez dutela ikusiko dute, handiegia egiten bada, berriz...

33. Mari Domingiren bisita

Helburu didaktikoak: I.4(I), III.1(H)-4(H)-16(H)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK, GIZARTERATZECOAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA

Taldekatzea: LIBREA

Materiala:

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Mari Domingi ikastolako Haur Hezkuntzako gela guztietatik ibiliko da (egokiago deritzogu gelaz gela ibiltzeari, taldeak elkartuta ekintzak indar handia galtzen baitu). Horretarako, talde kopuruaren arabera planifikatu behar da haren bisitaldia. Ondoren azaltzen dugun gidoiari jarraituz, gela bakoitzean, gutxi gorabehera, hamabost bat minutu pasako ditu.

Egun honetarako, *Horra Mari Domingi* eta Gabonetako beste zenbait abesti ikasita izango ditugu.

Hona hemen, adibide gisa, nola antola dezakezen, gela bakoitzean, Mari Domingiren bisita:

- Mari Domingi gelara sartu aurretik, haurrak prest egongo dira, eta marrazkien oparia nork eman behar dion erabakita.
- Mari Domingi gelara sartzean, abestu egingo diote, eta denen aurrean eserarazi.
- Mari Domingiren hitzalditxoak entzungo dute: *Nola portatzen zarete? Txintxoak izan al zarete? Euskaraz hitz egiten al duzue?...* Ipuina erreferentzia hartuta, hurrei bere istorioa kontatuk die.
Olentzero jadanik jostailuak (eta ikatza) prestatzen ari dela, baina oraindik ez dakiela haur bakoitzak zer eskatu nahi duen... *Nola jakin dezake Olentzerok zer nahi duzuen? Eskutitza!...* Berak ekarri ditu eskutitzak idazteko orriak, hurrei banatzeko (lan-koadernoaren 6. fitxa da).
- Mari Domingiri galderaren bat egiteko aukera emango zaie hurrei (zuek hasi zerbait galdetzen haurrak *berotu* daitezen).
- Gailetak eta gutun-orriak banatu.
- Mari Domingiri musu eman eta agurtu.

34. Olentzerori gutuna idatzi

Helburu didaktikoak: III.6(H)-7(H)-8(H)-9(H)-11(H)-12(H)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH/B

Materiala: 6. eta 7. FITXAK

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA, ADIERAZPEN TXOKOA

PROZEDURA

Mari Domingi banatutako gutun-orriak emango dizkiegu.

Hona hemen gutuna idazteko planifikazioa:

Haurrak garbi izan behar du ZER IDATZIKO duen; horretarako, denbora eman behar diogu. Pentsatuta izango dute seguruen, baina gogoraraziko diegu aurretik landu dugun jarrera: ongi al dago gauza asko eskatzea?, justua al da batzuk asko eta beste batzuk oso gutxi izatea? Ez al genuke denok berdintsu eskatu behar?...

NOLA IDATZI behar duten aztertuko dugu. 29. jardueran gelako oparia eskatzeko gutuna idatzi dugunean, gutunak nola hasi eta nola bukatu behar diren aztertu dugu; hortaz baliatu gaitzke Olentzeroren gutunaren sarrera eta bukaera idazteko. Oso garrantzitsua da, halaber, NON IDATZI behar den zehaztea: agurra non, bukaera non, opariaren izenak non, bai eta bakoitzaren sinadura ere non jarri behar duten.

Ondoren, kartazala osatuko dugu (prozedura berari jarraituz ZER, NON eta NOLA IDATZI). Gutuna sartu ondoren, kartazalaren ertzak itsatsiko ditugu.

BUKAERA

35. Gabonetako abestia: *Gaueko izar*

Helburu didaktikoak: ETENGABEKO EBALUAZIOA: II.9, III.15(H)-32

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH/B

Materiala: 4. CDa, 38. ABESTIA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

GAUEKO IZAR

Gaueko izar argitsuena
piztutzeakin batera,
haurtxo eder bat etorri zaigu
gaur arratsean etxera.

Ordu ezkerro etxeko denak
poztu eta zorutzen gera,
haurra delako zerutik honantz
datorren Jainko berbera.

36. Olerkia

Helburu didaktikoak I.15- III.15(H)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea: librea

Materiala: ----

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

3. ZEHAZTAPEN MAILA

Elur zuri hotz-hotzez
egin dugu panpina motza,
tripa handia
eta sudur zorrotza.
Denok entzun dugu
haren hitz-hotsa:
“Nork prestatuko dit,
urtu arte bakarrik,
nork prestatuko dit
bihotza?”

Joxan Ormazabal

37. Gabonetako abestia: *Gabonak*

Helburu didaktikoak: III.15(H), III.32(MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: librea
Materiala: 4. CDa, 39. ABESTIA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

GABONAK

Gabonak, festa alaiak,
Gabonak, alaitasun garaia.
Gure kaleak argiz beteak,
etxeetan zuhaitza,
suaren ondoan opariak,
aurpegietan poza.

Elurra, zapi txuria,
elurra, erortzen den saria.
Olentzero berriz herrian,
jostailuz betea.
Abesten gabiltza denok kalean,
denoi zoriona!

38. Olentzerori gutuna eman

Eskola eta herri bakoitzean ohitura desberdinak daudenez, zuek erabaki beharko duzue zer egin eta nola jokatu gutunekin: Olentzero ikastolara datorrenean eskura eman, postaz bidali, herriko/auzoko Olentzerori edo Bizar Zuriri eman...

OHARRA:

Ahaztu gabe, unitatean zehar egindako lanen (gelako apaingarriak eta Olentzeroren gutuna) argazkiak egingo ditugu: prozesuan zeharrekoak, azken emaitzak... Gurasoentzako prestatuko dugun aldizkarian erabiliko ditugu.

Hiztegia

Gaiko hiztegia	Ipuineko hiztegia
Izeia Izarra Oparia Apaingarria Gutuna/eskutitza Postontzia	Olentzero Mari Domingi Adabakia Behartsua Aberatsa

Ipuin gomendatuak

Jarraian, unitatean zehar lan daitezkeen zenbait ipuinen zerrenda aurkezten dugu. Ez dira derrigorrez kontatu beharrekoak, proposamen bat baino ez dira, gure eguneroko baliabideen osagarri.

La manzana roja, Feridun Oral, Juventud

Sólo una puntita, Émile Jadoul. Corimbo

Comenoches, Ana Juan, Alfaguara

Nire etxea, E. Jadoul, Ibaizabal

Izotzetan lotan, M. Hoj, Ibaizabal, Txio eta mu bilduma